



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko apirilaren 9a

48. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Legea, zeinaren bitartez Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2015. urtera luzatzen baita eta langile horien montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen baitira. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Legea, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina aldatzen duena, desgaitasuna dutenek enplegu publikoa eskuratzeari dagokionez. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Legea, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (28. or.).
- Foru Legea, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekin-tzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (52. or.).
- Foru Legea, Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera Ofizialari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (55. or.).
- Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita 16/2006 Foru Legea, abenduaren 14koa, jokoari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (68. or.).
- Foru Legea, zeinaren bidez indargabetzen baita martxoaren 14ko 3/2014 Foru Legea, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (70. or.).
- Familiari Laguntzeko Foru Lege proposamena. Osoko Bilkurak erretiratua (71. or.).

D SAILA:

Hitzarmenak:

- Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko hitzarmen ekonomikoaren aldaketa. Osoko Bilkurak onetsia (72. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erretira dezan honako Foru Dekretu hau aldatzen duen foru dekretuaren proiektua: martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretua, zeinaren bidez arautu baitzen Nafarroako Foru Komunitatean haur hezkuntzako lehen zikloa eta ezarri baitziren hori irakasten duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak. Osoko Bilkurak onetsia (73. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aste Txuria mantentzea berma dezan, kasuko aurrekontu-zuzkiduraren bidez. Osoko Bilkurak onetsia (73. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da landa eremuko eskolen izaera bereziaren aitortza gauzatu dezan, horiek emandako zerbitzuaren kalitatea eta ikasleentzako arreta egokia bermatzeko behar diren giza baliabideez eta baliabide materialez hornituz. Osoko Bilkurak onetsia (74. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren ekimenak has ditzan, AP-68 autobideko 14. lotunea –Lodosakoa– bi norabidekoa izan dadin. Osoko Bilkurak onetsia (74. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, zeinaren bitartez Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2015. urtera luzatzen baita eta langile horien montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen baitira.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko martxoaren 26an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, zeinaren bitartez Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2015. urtera luzatzen baita eta langile horien montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen baitira"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2015eko martxoaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, zeinaren bitartez Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2015. urtera luzatzen baita eta langile horien montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen baitira

ZIOEN AZALPENA

Foru lege honen bidez, 2015. urtera luzatzen da Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia, eta montepioetako funtzionarioen klase pasiboen pentsioak ere eguneratzen dira.

1. artikulua. Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurriak.

2015. urtera luzatzen dira Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako

neurriak, hots, ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen 1., 5., 6. eta 8. artikuluetan aurreikusitakoak.

2. artikulua. Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen klase pasiboen pentsioak eguneratzea.

1. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen klase pasiboen pentsioek, indarreko araudiaren arabera eguneratzeko esku-bidea dutenek, pentsio publikoek urte horretan duten goera bera izanen dute.

2. Aurreko atalean xedatutakoa galarazi gabe, alargun- eta umezurtz-pentsio minimoek lanbide arteko gutxieneko soldatari jarraituko diote, indarra duen araudian ezarritakoaren arabera.

3. Pentsio publikoen arloko indarreko araudia aplikatzeko, eguneraketa ez da aplikatuko baldin eta aitortutako edo etorkizunean aitortuko diren pentsioek, berek bakarrik nahiz onuradun berak jasotzen dituen beste pentsio publiko batzuekin batera pentsio publikoetarako urtean ezarritako gehieneko zenbatekoa gainditzen badute.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina aldatzen duena, desgaitasuna dutenek enplegu publikoa eskuratzeari dagokionez.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko martxoaren 26an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina aldatzen duena, desgaitasuna dutenek enplegu publikoa eskuratzeari dagokionez."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2015eko martxoaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina aldatzen duena, desgaitasuna dutenek enplegu publikoa eskuratzeari dagokionez

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginaren zazpigarren xedapen gehigarriak neurri batzuk arautzen ditu desgaitasuna dutenei erraztasunak emateko enplegu publikoa eskuratzeko, bai langile finkoentzako deialdietan bai aldi baterako kontratazio zerrendetan. Azken urteotan neurri horien aplikazioan bildu den esperientzia ikusita, komeni da aldaketa batzuk egitea neurri horietan, benetan erantzun diezaioten bilatzen den xedeari.

Funtzio publikoan sartzeko deialdiei dagokionez, hiru aldaketa egin dira desgaitasuna dutenentzako egungo erregulazioa hobetzeko: batetik, enplegu publikoaren eskaintzetan erreserbatutako lanpostuen kopurua igo egiten da, % 5etik % 7ra, Administrazio Publiko gehienen araudietan aurreikusitakoarekin bat; bestetik, erreserbatutako lanpostuetatik hautapen prozesuan betetzen ez diren guztiak gorde, eta hurrengo lan eskaintzan sartuko dira. Azkenik, enplegu lagunduaren arloko neurriak aurreikusten dira, desgaitasuna dutenak eskuratu-

tako lanpostura egokitzen laguntzeko beharrezkoa den kasuan.

Aldi baterako kontrataziorako zerrendei dagokionez, desgaitasunak dituztenek egun duten lehentasuna aldatzen da, eta, aurrerantzean, eskaintako hiru lanpostuko bat, lehenbizikoa, haientzat erreserbatuko da. Aldaketa honen xedea da, hain zuzen ere, desgaitasuna dutenak eskaintako lanpostuetara egokitzeko aukerak hobetzea, eta, horrekin batera, gainerako zerrendetatik heldu diren izangaiak kontratatzeke aukerak ere aurreikusten dira.

Artikulu bakarra. Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina aldatzea.

Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginaren zazpigarren xedapen gehigarria aldatzen da. Aurrerantzean testu hau izanen du:

"1. Nafarroako Administrazio Publikoetako lan publikoaren eskaintzetan lanpostu hutsten % 7 guxtienez gorde egiten da % 33ko desgaitasuna edo handiagoa dutenentzat, betiere hautapen probak gaintzen badituzte eta, dagokion unean, aipatutako desgaitasun gradua eta bete beharreko lanarekin eta eginkizunekin bateragarria dela frogatzen badute. Hala egiten da, helburua izanik lortzea, denboraren poderioz, desgaitasuna duten langileen kopurua Administrazio Publiko bakoitzeko langile guztien % 2koa izatea.

Hautapen prozesuak egin ondotik, desgaitasuna dutenek bete gabe gelditzen diren lanpostu erreserbatuak hurrengo lan eskaintzako kupoari gehituko zaizkio, baina gehienez ere % 10 izanen dira.

2. Hautapen probetan, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa dutenentzat beharrezkoak eta zentzuzkoak diren egokitzapenak eta denbora eta baliabide doikuntzak egiten dira, hala eskatuz gero, desgaitasuna dutenek baldintza berdinetan parte har dezaten ziurtatzeko, ariketaren mamia aldatu gabe, betiere.

3. Desgaitasuna duten langileen egiazko integrazioa ziurtatzeko, lanpostuen benetako zeregi-

nak zehaztuko dira eta lanpostu horien eska-tzaileen desgaitasunaren bakarkako balorazioa egingen da, halako moduz non desgaitasuna duen pertsona bakoitzak jakinen duen zer lanpostu eskura ditzakeen.

Aurreko idatz-zatietan ezarritako desgaitasun gradua izan eta, edozein txandatan, Administrazioan sartzeko deialdi bateko lanpostua lortzen duten pertsonak, lanpostu hutsak aukeratzeko orduan, gainerako izangaien aurretik egonen dira.

Era berean, enplegu lagunduaren arloko neurriak ezarriko dira, baldin eta desgaitasuna duen pertsonak halakoak behar baditu lortutako lanpostura egokitzeko.

Duen desgaitasunak ez badio kasuko pertsonari eragozten eskuratu duen lanpostuaren zeregin berekiak betetzea, beharrezkoak diren neurri guztiak ezarriko dira lanpostura iristea eta/edo bere lana egitea eragozten dioten oztopoak kentzeko.

4. Aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendetan, hiru lanpostuko bat, lehenbizikoa, zerrenda horretan dauden eta % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten izangaientzat erreserbatuko da, betiere hautapen probak gainditzen badituzte eta frogatzen badute desgaitasun hori bateragarria dela bete beharreko lanarekin eta eginkizunekin.

5. Desgaitasuna dutenentzako txandan 1. idatz-zatiaren arabera ezarritako lanpostu kopurutik % 25 erreserbatu ahal izanen da, gehienez ere, adimen gaitasuna mugakoa duten edo atzerapen mental arina edo moderatua dutenentzat, betiere % 33ko desgaitasuna edo handiagoa frogatzen

badute. Erreserba berezi hori ezartzeko, nahitaezkoa izanen da horrelako desgaitasuna duten pertsonen berezitasunetarako egokiak diren lanpostu hutsak egotea enplegu publikoaren eskaintzan.

Idatz-zati honetan aipatzen diren lanpostuak betetzeko eta sartzeko prozedurak deialdi bereizien bitartez egingen dira, eta txanda ezberdinak ezarriko dira, mugako adimen-gaitasuna duten pertsonentzako batetik, eta atzerapen mental arin edo moderatua frogatzen duten pertsonentzat bestetik. Izangaiei ez zaie kasuan kasuko titulaziorik eskatuko, non eta lanpostuaren eginkizunak direla-eta derrigorrezkoa ez den berariazko titulazioa izatea. Proben helburua funtsean izanen da egiaztatzea izangaiek ba ote dituzten lanpostuari dagozkion eginkizunetan aritzeko behar diren jokabide-sail oinarritzakoak eta ezinbesteko ezagutzak”.

Xedapen gehigarri bakarra. Hauteskunde prozesuak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileek aparteko orduak sorrarazten ahalko dituzte, horien lansari araubidea eta eginkizunak zeinahi diren ere, baldin eta 2015ean egiten diren hauteskundeak antolatzen eta garatzen parte hartzen badute, nork bere lanpostuko zeregin berekiak betetzeaz haratago sartzten duen denbora dela kausa, Nafarroako Gobernuak hartutako erabaki bidez ezartzen diren modu eta baldintzetan.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko Foru Legea.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko martxoaren 26an egindako Osoko Bilkuran, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2015eko martxoaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko Foru Legea

ZIOEN AZALPENEA

1. Emakumeen kontrako indarkeria, emakume izaeraren diskriminazioan oinarritutakoa, giza eskubideen urraketa bat da, egungo gizartean gertatzen diren urratze ohikoenetako bat. Funtssezko eskubideak, hala nola bizia, osotasun fisikoa eta mentala edo osasunerako eskubidea, zuzenean kaltetzen dituzten abusu horiek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren oinarriko printzipioa ere urratzen dute.

Azken mende honetan gure gizartea arazo honetaz jabetzen joan dela esan dezakegu, eta bereziki azken urteetan gaia azaleratu da gero eta nabarmenago.

Gaur egun fenomenoari ematen zaion garrantziari esker, nazioarteko komunitateak, eta bereziki Europar Batasunak, emakumeen kontrako indarkeria giza eskubideen kontrako urraketa dela onartu dute, eta, horrenbestez, gizarte demokratiko baten garapenerako oztopoa dela.

Espainiako Konstituzioaren 9.2 artikuluan ezarritzen duenez, botere publikoek bermatu beharko dute egiazko berdintasun eraginkorra, eta, horretarako, hura galarazten edo eragozten duten traba guztiak kendu beharko dituzte. Konstituzioan jasotako oinarriko eskubideen artean badira batzuk lotura estua dutenak emakumeen kontrako indarkeriarekin: pertsonaren duintasuna (10. artikulua); diskriminaziorik ez jasateko eskubidea (14. artikulua), biziari eta osotasun fisiko nahiz psikikorako eskubidea (15. artikulua) eta askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea (17. artikulua).

2. 2002an indarra hartu zuen Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Espainian onartutako lehen lege espezifikotako batek: 22/2002 Foru Legea, uztailaren 2koa, indarkeria

sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzkoa.

Hamaika urte luzez foru lege hori izan da emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean Nafarroako erakundeek egindako ahaleginen euskarria. Urte hauetan zenbait neurri jarri dira abian, emakumeen kontrako indarkeriaren esparru desberdinetan: ikerketa, prebentzioa, informazioa eta arreta, emakumezko biktimen babesa eta justiziara jotzeko bideak hobetzea, baita erasotzaileekin bete beharreko lan prozesuak ere.

Testuinguru horretan egin eta onetsi zen erakundeen arteko akordioa, 2010ean eguneratua, emakumeen kontrako indarkeria kasuen arreta eta prebentzioa eraginkortasunez koordinatzeko; akordioaren xedea da emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioan eta indarkeria horren biktimei laguntza eta babesa ematen esku hartzen duten erakundeen arteko koordinazioa ahalik eta handiena eta onena izatea, bai eta Nafarroako Foru Komunitate osorako jarduteko jarraibide homogeneoak ezartzea ere, esparru guztietan (osasuna, poliziala, judiziala, soziala) arreta kalitatezkoa izan dadin eta prebentzio lana bermatzeko, hezkuntza arloko neurriak eta gizartea sentsibilizatzeko xedea dutenak ezarriz.

Halere, arau hura onetsi zenetik denbora luzea iragan denez eta gure gizartean sentsibilizazioa handitzen doanez, beharrezkoa da araudi hori sakonean gaurkotzea.

Ildo horretan, Genero Indarkeriaren Aurka Babes Osoa Emateko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, Europar Batasunaren eta Europako Kontseiluaren gomendioei jarraikiz egindakoa, jauzi kuantitatiboa eta kualitatiboa izan zen, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko tresna juridiko bat ekarri zuelako sistemara, baina, Nafarroako legearen kasuan ez bezala, jardun-esparrua etxera eta bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eremura mugatzen zuen.

Bestetik, gure herrialdea giza eskubideen alde nazioarteko zuzenbideak ezarriak dituen tresna guztiei atxiki zaienez, administrazio jarduleak beharturik daude diligentziaz erantzutera emakumeen kontrako indarkeria kasuen aurrean.

Nazioarteko zuzenbidearekin bat (Emakumezkoaren kontrako diskriminazio modu guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioa, 1979, CEDAW; Beijingo 1995eko Adierazpena; eta emakumeen

kontrako indarkeriari buruzko legeriaren esku-liburua, Nazio Batuak, 2010), estatuak betebeharrak argiak dituzte emakumeen kontrako indarkeria molde guztien aurrean erantzunen duen legeria aldarrikatu, aplikatu eta gainbegiratzeko eta emakumeen kontrako bortxa ekintza oro zigortzeko.

Bereziki, emakumeen kontrako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren prebentzioari eta haien kontrako borrokari buruzko Hitzarmenak (Istanbulgo Hitzarmena), 2011ko maiatzaren 11koak, Espainiako Erresumak berretsiak eta gure herrialdean 2014ko abuztuaren 1az geroztik indarra duenak, indarkeria mota hori giza eskubideen urraketa eta diskriminazio mota bat dela adierazten du, eta estatuak erantzule direla horren aurrean modu egokian erantzuten ez badute; Hitzarmenak sinatzaileak behartzen ditu beren legeria hitzarmenean jasotako betebeharrak egokitzera.

Horrenbestez, erakundeek emakumeen kontrako indarkeriari aurre egin behar diote, besteak beste, egungo araudia berrikusiz, lege berriak idatziz, horiek garatzeko eta egiaz aplikatzen direla ziurtatzeko bitartekoak ezartzeko betebeharrarekin, eta haien eraginkortasuna egiaztatuz aldi-aldi, disfuntzioak dituzten alderdiak zuzentzeko xedeaz.

Arau-esparru berriari erantzun beharrak, bate-tik, eta emakumezko biktimen eskubideen bermak indartu beharrak, bestetik, legearen aldaketa bat komeni dela iradokitzen dute, ondoren politiko publiko berriak eta eraginkorrak ezartzeko; horiek dira, hain zuzen ere, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko foru lege honen helburuak, indarkeria mota hau errotik desagerrarazten laguntzeko tresnak eskuragai jarri nahi baititu.

3. Foru legearen egitura hau da: hamar titulu, bi xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

I. tituluak, xedapen orokorre buruzkoak, xedea eta aplikazio esparrua jasotzen ditu. Foru legearen xedea da Nafarroako Foru Komunitatean emakumeen kontrako indarkeriari aurre egitea, neurri integralak hartuz esparru hauetan: ikerketa, informazioa, prebentzioa, sentsibilizazioa, detekzioa, arreta integrala, babesak, justiziara jotzeko bideak eta erreparazioa.

Foru legearen aplikaziorako esparru subjektiboan Nafarroan bizi edo lan egiten duten eta ares-tian deskribatutako indarkeria mota horietakoren bat jasaten duten emakume guztiak sartzen dira, bai eta, edozein arrazoi dela eta, Nafarroan daudenak indarkeria egoera gertatzen den unean, betiere errespetatuz beste administrazio batzuek dituzten eskumenak.

Emakumeen kontrako indarkeria egoerek familia ingurune horretan dauden adingabeengan ere eragina dutela ikusirik, foru lege honek indarkeria horren zuzeneko biktimatza hartu, eta babestu egiten ditu, bai haien eskubideen defentsan bai arreta eta babes eraginkorra emateko, arlo honetako nazioarteko itunei jarraikiz.

Bestalde, arau honek definitzen du emakumeen kontrako indarkeriaren kontzeptua zentzu zabalenean, honakoak barne: izaera fisiko, psikologiko, sexual edo ekonomikoko kalteak edo sufrimenduak, baita mehatxuak, ikaratzea eta hertsatzeak edo askatasunaz modu arbitrarioan gabetzea ere, bizitza publikoan edo pribatuan.

Emakumeak indarkeria horretatik babesteko, honakoak hartzen dira halakotzat: bikotekidearen edo bikotekide ohiaren bortxa, sexu-indarkeriaren mota guztiak, feminizidioa, emakumeen eta nesken trafikoa, sexu-esplotazioa, gazteegitan, hitzartuta edo behartuta ezkonaraztea, edota emakumezkoen genitalen mutilazioa.

Azkenik, emakumeen kontrako indarkeriaren biktima diren emakumeei kreditazioa emateko bideak arautzen dira, bai eta foru legearen oinarrian diren arau-printzipioak ere.

II. tituluak ikerketari eta informazio bilketari buruzkoa da. Titulu honetan araututa daude emakumeen kontrako indarkeriaren kausak, ezaugarriak, hedadura eta ondorioak ikertzeko azterlanak eta lanak egitea eta sustatzea, bai eta indarkeria mota honen prebentziorako eta desagerpenerako aplikatutako neurrien ebaluazioa ere.

Era berean, aurreikusirik dago aldi-aldi datu estatistiko bereziak biltzea, emakumeen kontrako indarkeriaren moldeak ezagutzeko eta haien aurre egiteko. Helburu horrekin, halaber, emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean dauden arre-ta eta babes baliabideen mapa gaurkotzea aurreikusitako da, eta inkestak egitea zerbitzu publikoen ebaluaziora buruz.

Prebentzioa eta sentsibilizazioa du izena III. tituluak, eta haren xedea da hezkuntza arloan prebentziorako neurriak hartzea, batetik, eta sentsibilizazio eta informazio neurriak abian jartzea, bestetik.

Hezkuntzaren arloan irakasleei prestakuntza emateko neurriak ezartzen dira, bai eta hezkuntza curriculumak eta materialak egokitzekoak eta hezkuntza plan eta proiektuetan jarraibideak emateko. Ildo horretan, emakumeen kontrako indarkeria egoerak direla eta haurrak ikastetxez aldatu beharra dagoenean, aurreikusirik dago haur horiek lehenbailehen eskolatzea, lehentasuna

emanez biktimaren eskubideei erasotzailearen eskubideen gaintik, ikastetxeetan batera suertatuz gero.

Bestetik, gizartearen sentsibilizazioaren eta informazioaren gaia lantzen da, prestakuntzarako kanpainak eta ekintzak eginez, eta hedabideek eta publizitateak bete beharreko zeregina aipatzen da, emakumeen kontrako indarkeriaren testuingurua osatzen duten estereotipoak desagertzen laguntzeko alegia.

IV. tituluak emakumeen kontrako indarkeriaren detekzioa eta arreta garatzen ditu, eta bertan lantzen dira emakumeen kontrako indarkeria, edozein mota dela ere, zer egoeratan gertatzen den edo gertatzeko arriskua dagoen, horiek detektatu eta identifikatzeko beharrezkoak diren ekintzak.

Osasun eta gizarte zerbitzuen arloetako zerbitzu publikoak taxutzen dira, detekzioarako eta arretarako baliabide funtsezkoak diren aldetik, eta, horretarako, indarkeriaren biktima diren emakumeek non diren detektatu eta haien arreta emateko estrategiak prestatzen dira, bai eta profesionalei prestakuntza emateko planak eta programak, arreta eman eta bideratzeko protokoloak eta kasuen erregistroak ere.

V. tituluaren arreta emateko eta oneratzeko baliabideak eta zerbitzuak jasotzen dira, foru lege honetan aurreikusten den indarkeria motaren bat jasan duten emakumeak zeharo oneratzeko arreta integrala emateko xedeaz.

Arreta integralaren baitan honakoak daude sartuta: emakumeei haien eskubideei eta dauden baliabideei buruzko informazioa eta orientazioa ematea, osasun fisikoaz eta mentalaz arduratzea indarkeriaren ondorioak arintzeko bidea den aldetik, eta behar ekonomikoei, lan, etxebizitza, hezkuntza arlokoiei eta sozialak ere kontuan hartzea, bai eta, beharrezkoa denean, aldi baterako ostatu segurua ematea.

Arretaren aplikazioa zuzendu behar duten printzipio batzuk ezartzen dira, eta arautzen da arreta eman eta oneratzeko sareko baliabideen eta zerbitzuen katalogoa, honakoek osatua: informazio eta arretarako baliabide orokorrak, oneratzeko eta arreta espezializatuko zerbitzuak eta harrerarako eta aldi baterako ostatu segururako sarea.

Indarkeriaren biktima diren emakumeen laneratzea sustatzea, eta autonomia ekonomikoa eta etxebizitza eskuratzeko aukerak bultzatzea, horietatik dira foru legearen VI. tituluaren edukia.

Indarkeria egoera bizi duten emakumezko langileen lan eskubideak jasotzen dira bertan, eta zenbait neurri ezartzen dira biktima diren emaku-

meen laneratzea lortzeko, lehenetasuna emanez haien Nafarroako Enplegu Zerbitzuak prestakuntza eta enplegua bultzatzeko programetarako ematen dituen diru-laguntzen deialdietan; horrekin batera, indarkeriaren biktimek jaso ditzaketen laguntza ekonomiko sorta bat ere ezartzen da. Amaitzeko, etxebizitza eskuratzeko laguntzeko neurriak zehazten dira.

Poliziaren arretari eta babes eraginkorrari buruzko VII. tituluak honako printzipioak ezartzen dizkio polizaren jardunbideari: berehalako arreta, ikerketa zabala eta egiazko babesa, betiere Estatuko eta Foru Komunitateko oinarrizko legeriak administrazio desberdinei segurtasun arloan emandako eskumenak errespetatuz, baina erakunde eta esparruen arteko (estatua, foru komunitatea, toki entitateak) koordinazio eta lankidetzara eraginkorrerako bideak ezarrita.

Foruzaingoarekin lotuta, profesionalen espezializazioa, hastapeneko prestakuntza etengabea eta, poliziaren jarduketarako protokoloak egitea, biktimei arreta emateko guneen kalitatea eta emakumeen kontrako indarkeria mota guztien biktimak egiaz babesteko neurriak hartzea.

Laguntza juridiko espezializatuari eta justiziara jotzeko buruzkoa da VIII. tituluak, eta bertan bermatzen da emakumeen kontrako indarkeria mota baten biktimei abokatu baten laguntza ematea, salaketa bera jarri aurretik, eta zerbitzua kalitate profesional handiarekin emanen da.

Era berean, aurreikusten da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak laguntza eman ahal izanen diela emakumezko biktimei arlo judizialean, emakumeen kontrako indarkeria kasu larriengan irekitako prozedura penaletan pertsonatuz.

Arlo judizialean, espezializazioa eta arreta egokia bermatzeko bidea da emakumeen kontrako indarkeria kasuez arduratzen diren epaitegietako langileen eta indarkeria mota orotan arreta ematen duten talde psikosozialetako langileen hasierako prestakuntza etengabea.

Azkenik, fiskalen nahiz epaileen prestakuntzan laguntzea ezartzen da, emakumeen kontrako indarkeriaz arduratzen diren epaitegietako ekipamenduaren eta baliabide materialen arloko neurri egokiak hartzea eta interpretea izateko eskubidea, prozedura judizialaren fase guztietan informazioa eta komunikazioa ziurtatzeko.

Erreparazioari buruzko IX. tituluaren aurreikusita dago biktima diren emakumeek eskubidea dutela erreparazioa jasotzeko, bai banako gisa, erabat oneratzeko behar diren bitartekoak jarriz, bai

modu kolektiboan, jendaurreko aitorenak eta omenaldiak jasoz.

Amaitzeko, arau arloko berritasun bat, X. tituluak zenbait neurri ezartzen dituelako foru legearen aplikazioa bermatzeko, arretan, babesean eta justizian esku hartzen duten profesionalen lanbide prestakuntza etengabea emateko konpromisoa hartuz; foru legearen garapen orokorrerako ekintza plan bat egitea; eta planaren urteko jarraipena, neurrien eraginari buruzko ebaluazio batekin batera, lau urtetik behin.

Helburu horrekin, ezartzen da beharrezkoa dela emakumeen kontrako indarkeriaren arloko eskumenak dituzten erakunde guztiak koordinatzea, hauen jarraipena ziurtatzeko: foru legearen aplikazioa, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko ekintza planak egitea, urteko jarraipen txostena egitea, eta ekintza planari egokitzen zaio-lan ekitaldi bakoitzean urteko aurrekontuetan onetsi eta ezarritako diru kopurua.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitatean emakumeen kontrako indarkeriari edo genero indarkeriari aurre egitea, zenbait neurri integral hartuz helburu hauekin: ikerketa eta informazioaren bilketa, prebentzioa eta sensibilizazioa, eta indarkeria jasaten duten emakumeak detektatu eta haiei eta, kasua bada, haien seme-alabei, arreta integrala, babesa, justiziaz baliaitzeko aukera eta erreparazioa ematea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bermatuko du zentzumenezko desgaitasunen bat duten emakumeek eta bertako hizkuntza ezagutzen ez dituzten emakume atzerritarrek interprete baten laguntza izanen dutela denbora-epe arrazoizko batean, emakume horiek informaziorako eta komunikaziorako duten eskubidea bermatzeko prozeduraren fase guztietan.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Foru lege honetan aurreikusitako neurriak Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren edo lan egiten duten eta genero indarkeriaren egoera batean dauden emakume guztiei aplikatuko zaie, haien seme-alaba adingabeei eta, kasua bada, haiekin bizi diren beste ahaide batzuei, indarkeriaren egoera horren biktima badira.

2. Aplikatuko zaie, halaber, indarkeria egoera gertatzen denean edozein arrazoiengatik Nafarroako Foru Komunitatean dauden emakumeei, beste

administrazio batzuek izan ditzaketen ahalmenak ezertan ukatu gabe.

3. artikulua. Emakumeen kontrako indarkeriaren definizioa eta motak.

1. Foru lege honen ondorioetarako, emakumeen kontrako indarkeria da emakumea izateagatik emakumeen kontra bideratzen dena edo haiengan proportziorik gabeko eragina duena, genero diskriminazioaren agerpen gisa eta emakumeentzako kalte edo oinaze fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa dakarrena edo ekar dezakeena, mehatxuak, beldurrarazteak eta hertsatzeak edo askatasun-gabetze arbitrarioak barne hartuta, bizitza publikoan nahiz pribatuan gertatzen direnak.

Indarkeriaren biktima diren emakumeen kontzeptuaren barruan neska adingabeak ere sartuta daudela ulertzen da.

2. Foru lege honen ondorioetarako besteak beste honakoak dira emakumeen kontrako indarkeria motak, aurreko idatz-zatian indarkeriaz emandako definizioa mugatu gabe, betiere:

a) Indarkeria bikotean edo bikote ohian: indarkeria fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa edo sexuala, bikotekide duen edo izan duen gizonak edo berarekin antzeko harreman afektiboak izan dituenak, batera bizi direla nahiz ez, emakumearen kontra erabilitakoa, indarkeriazko ingurunean bizi diren haurrengan duen eragina barne hartuta.

b) Sexu-indarkeriaren agerpen ezberdinak: emakume eta nesken kontrako sexu-indarkeriak bere baitan hartzen ditu sexu erasoak, sexu abusua, sexu jazarpenera lanean edo hezkuntzan eta sexu abusua familian, komunitatean, hezkuntzan, lanean eta esparru publikoan.

c) Feminizidioa: bikotean edo bikote ohian eginitako homizidioak, eta generoak eragindako diskriminazioan oinarritutako indarkeria erakusten duten beste krimen batzuk, hala nola sexu-indarkeriaren loturiko hilketak, prostituzioaren eta emakumezkoen salerosketaren eremuko hilketak, ohore-agatikoko hilketak, neskatoen infantizidioa eta ezkonsariagatikoko hilketak.

d) Emakumeen eta nesken salerosketa: emakumeak eta neskek erakarri, eraman, lekuz aldatu, hartu edo jasotzea, barne hartuta pertsona horien gaineko kontrola trukatzeko edo eskualdatzea, mehatxuekin edo indarra edo bestelako hertsamen bideak erabiliz, bahituz, iruzur eginez, engainatuz, botere abusuaren bidez edo egoera ahul batez baliatuz, edo emakume edo nesken gaineko kontrola duen pertsonaren baimena lortzeko dirua edo onurak emanez edo jasoz, helbu-

rua delarik sexu-esplotazioa, laneko esplotazioa edo menpekotasunezko ezkontza.

e) Sexu-esplotazioa: emakumeak eta neskak prostituzioan, sexu morrontzan edo beste sexu zerbitzu batzuetan aritzetik, ekintza pornografikoak edo material pornografikoak egitea barne, finantza onurak edo bestelakoak lortzea, bortxaz, mehatxuz, engainuz edo nagusitasunezko egoera batez edo biktimaren egoera ahulaz baliatuz.

f) Gazteegitan ezkontzea, ezkontza hitzartua edo behartua: baimen libre eta erabatekorik izan ez duen ezkontza, hirugarrenen arteko akordio baten emaitza izan delako, emakumearen borondatea kontuan hartu gabe, edo mehatxupean edo bortxaz egiten delako, edo baimena emateko legez aurreikusitako adina baino gazteagoa delako emakumea.

g) Emakumeen genitalen mutilazioa: emakumearen genitalak osorik edo zati batean kentzea dakarren edo ekar dezakeen edo haietan lesioak eragiten dituen edozein prozedura, emakumearen edo neskaren baimena izanda ere, berariazkoa nahiz esan gabekoa.

h) Emakumeen duintasuna, osotasuna edo askatasuna kaltetzen duen edo kalte dezakeen beste edozein indarkeria mota, nazioarteko ituntan, Espainiako Zigor Kodean edo Estatuko nahiz Foru Komunitateko araudian aurreikusirik dagoena.

3. Foru lege honen ondorioetarako, emakumeen kontra erabilitako indarkeria mota horiek, lehenago adierazitako agerpenetako edozeinetan, kalte edo oinaze fisikoa, sexuala edo psikologikoa eta/edo ekonomikoa eragiten dute, ekintza hauen ondorioz, besteak beste:

a) Indarkeria fisikoa: emakumearen gorputzaren kontrako indarkeriazko edozein ekintza, kalte fisikoa edo mina eragiten duena edo eragin dezakeena.

b) Indarkeria psikologikoa: edozein jokabide, ahozkoa nahiz ez ahozkoa, emakumearengan oinaze, gutxiespen, bakartze motaren bat edo askatasuna mugatzea eragiten duena, hala nola mehatxuak, derrigortzeak, umilazioak edo laidok, menpekotasuna eskatzea, jazarpena, hertsapena edo irainak.

c) Indarkeria ekonomikoa: emakumearen eta haren seme-alaben ongizate fisiko nahiz psikologikorako baliabideak nahita eta legez justifikatu gabe kentzea, edo bikotearen esparruan bienak diren baliabideak erabiltzeko diskriminazioa.

d) Indarkeria sexuala: onartu/baimendu gabeko edozein sexu ekintza, indarkeria, mehatxua, nagusikeria edo manipulazio emozionala tarteko direla, sexu harremanak erakutsi, ikusi edo izatera behartzea barne.

4. artikulua. Emakumeen kontrako indarkeriaren biktima eta izaera hori frogatzea.

1. Emakumeen kontrako indarkeriaren biktima dira foru lege honetan aurreikusitako bortxazko ekintzen ondorioak zuzenean pairatzen dituzten emakumeak, bai eta indarkeriazko ingurunean bizi diren seme-alabak ere, egoera ahulean egoteagatik indarkeria hori zuzenean jasaten dutenak.

2. Foru lege honen ondorioetarako, emakumeen kontrako indarkeriazko egoera modalitate hauetan frogatuko da, beharrezkoa den guztietan eta aplikazio arauetan hala ezarrita dagoenean:

a) Emakumeak indarkeria jasan zuela adierazten duen epai irmoa, edozein maila jurisdikzionalakoa.

b) Biktima babesteko kautelazko neurriak hartzeko erabakia hartu duen babes agindua edo ebazpen judiziala, indarra duena.

c) Indarkeria zantzuak daudela adierazten duen txostena, fiskaltzak egina.

d) Aginte polizialaren akta, kasuan kasuko emakumea giza salerosketaren biktima dela esateko arrazoizko zantzuak daudela frogatzen duena, sexu esplotaziora bideratutako emakumeen salerosketaren kasuetan.

e) Administrazio publiko eskudunaren gizarte eta/edo osasun zerbitzuen ziurtagiria eta/edo txostena.

f) Administrazio publiko eskudunaren harrera zerbitzuen ziurtagiria eta/edo txostena.

g) Lan Ikuskaritzaren eta Gizarte Segurantzaren txostena, lan esparruan gertatzen diren sexu jazarpenaren kasuetan eta sexuak eragindakoetan.

h) Legezko izaera duen arau bidez ezarritako beste edozein.

3. Frogarako bide horiek baliagarriak izanen dira, halaber, indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alaben biktima izaera frogatzeko, kasua denean.

4. Artikulu honen bigarren idatz-zatiak indarkeria egoera frogatzeko arautzen dituen modalitateetatik, erregelamenduz zehaztuko da indarkeriaren biktima izaera frogatzeko bideak zein diren, beha-

rezkoak direnean, foru lege honetan aurreikusitako eskubideak eta prestazioak jasotzeko.

5. artikulua. Biziraun duena.

Biziraun dutenak genero indarkeriaren biktimak dira, jasandako indarkeria prozesua gainditzeko oneratzeko prozesuari ekin diotenak.

6. artikulua. Foru lege honen oinarri diren printzipioak.

Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko lana printzipio hauen zuzendaritzapean egin behar da:

a) Giza eskubideen errespetua, babesa eta sustapena: emakumeen kontra generoak eragindako indarkeria, borrokatzeko jardun instituzional eta profesionala emakumeen giza eskubideak errespetatu, babestu eta sustatzera bideratuko da.

b) "Arreta egokia" izeneko printzipioa: emakumeen kontrako indarkeriaren aurreko erantzuna erantzukizun instituzionalaren maila guztietara zabalduko da (prebentzioa, babesa, laguntza, biktimentzako erreparazioa eta justiziaren sustapena) eta xedetzat izanen du bermatzea emakumeen eskubideak egiaz gauzatea.

c) Genero ikuspegia eta bitartekaritzaren berariazko debekua: emakumeen kontrako indarkeriari eman beharreko erantzunerako, oinarritzat izanen da ulertzea generoko estereotipoak eta harremanak, haien erroak eta ondorioak. Biktimaren eta erasotzailearen arteko bitartekaritza berariaz dago debekaturik emakumeen kontrako indarkeria kasuetan, aplikatu beharreko oinarritzatko araudian xedatuta dagoenez.

d) Diskriminazioaren debekua: erakunde publikoek bermatu eginen dute foru lege honetan aurreikusitako neurriak aplikatuko direla inolako diskriminaziorik gabe, hau da, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak edo beste edozein, jatorri nazionala edo soziala, gutxiengo nazional bateko kide izatea, gaitasun ekonomikoa, sexu joera, genero identitatea, adina, osasun egoera, desgaitasuna, egoera zibila, migratzaile estatusa edo egoitzaren egoera administratiboa edozein izanik ere.

e) Diskriminazio anitzari arreta ematea: erakundeen erantzunak bereziki hartuko ditu kontuan, emakumeen kontrako indarkeriaren biktima diren emakumeen kasuan, diskriminazio faktore erantsiak dituztenak, hala nola adina, klase soziala, nazionalitatea, etnia, desgaitasuna, egoiliar-egoera administratiboa emakume migratzaileen kasuan, edo bestelakoak, emakume sektore zeha-

tz batzuk egoera okerragoan jartzen dituztenak eskubideez baliatzeko garaian.

f) Erantzun integrala eta koordinazioa: erakundeen erantzunak onartzen du emakumeen kontrako indarkeria faktore anitzeko arazoa dela eta biktima diren emakumeen beharrei politika publikoaren esparru desberdin askotatik heldu behar zaiela. Horren ondorioz, erakundeen erantzuna integrala izanen da eta instantzien arteko koordinazioa eta lana sustatuko ditu.

g) Begirunea eta birbiktimizaziorik eza: erakundeen erantzunak bideak ezarriko ditu biktimak begirunez tratatzen direla eta emakumea ez dela bi aldiz biktima bihurtzen ziurtatzeko; bermatuko da neurriak bideratzen direla biziraun dutenen autonomia eta askatasuna lortzera, eta haien behar nagusiei erantzuten zaiela, biktimen seme-alabenak barne.

h) Erantzukizuna: erakunde publikoek prestakuntza prozesuak ezarriko dituzte emakumeen euren eskubideez egiaz baliatu daitezkeela ziurtatzeko ardura dutenek modu egokian jarduten dutela bermatzeko. Era berean, erantzukizunak eskatuko dira arreta falta dagoenean.

i) Partaidetza: indarkeriaren biktima diren emakumeek eta emakumeen elkarteek, bai eta arlo horretako berariazko problematika duten desgaituen eta bestelako talde ahulen elkarteek ere, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko zerbitzu eta politika publikoen diseinuan eta ebaluazioan parte har dezaten bultzatuko da.

II. TITULUA

Ikerketa

7. artikulua. Ikerketa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan eskuduna den departamentuaren bidez, emakumeen kontrako indarkeriaren arrazoi, ezaugarri, hedadura eta ondorioei buruzko azterlanak eta ikerlanak egin eta bultzatuko ditu, bai eta indarkeria horren prebentziorako eta errotik desagertzeko aplikatutako neurrien eraginkortasuna ebaluatu eta hura tratatzeko behar diren bitartekoei buruz ere.

2. Emakumeen kontrako indarkeria eta foru lege honen printzipioak gaitzat dituzten azterlanak, ikerketak eta doktore tesiak egiten laguntzeko neurriak ezarriko ditu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak.

3. Era berean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak interesgarritzat jotzen diren azterlanak eta ikerketen emaitzaren zabalkundea eginen

du. Zabalkunde hori unibertsa eta doakoa izanen da, eta kontuan hartuko du informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera.

8. artikulua. Informazio bilketa eta inkestak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak datu estatistikoaren aldizkako informazioa bildu beharko du, honako kategoria hauek zehaztuta: sexua, adina, nazionalitatea, jatorrizko herrialdea, bizitokia, desgaitasunen bat duten pertsonak eta bestelako talde ahulak; horrela, modua egonen da jakin eta aztertzeko, bere eskumenean esparruan, emakumeen kontrako indarkeria mota guztien arazoak, ondorioak eta maiztasuna, bai eta ezarritako neurrien eraginkortasunaren berri ere izateko.

2. Horrez gain, emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean arreta eta babeserako baliabideen mapa bat egin eta egunean izan beharko du, zerbitzu guztiak bertan adierazita, bai eta biztanleko eta tokiko banaketa ere, aukera eman dezan identifikatzeko zer traba nagusik eragiten duten ezaugarri zehatz batzuk dituzten emakumeak baliabide edo zerbitzu espezializatuetatik kanpo gelditzeko.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bermatu egiten du foru lege honetan aurreikusitako zerbitzuak eta baliabideak kudeatzen dituzten entitateek aldizka gogobetetze inkestak egin ditzatela bertara jotzen duten emakumeekin, eta emakumeen autonomia eta ahalduntzea lortzeko esku-hartzea ebaluatzeko adierazleak ezarri eta biltzen dituztela. Inkesta horien emaitzak argitara emanen dira eta zerbitzuak eta baliabideak ebaluatzeko tresnetako bat izanen dira.

III. TITULUA

Prebentzioa eta sentsibilizazioa

9. artikulua. Xedea eta esparrua.

1. Prebentzio neurriak portaera soziokulturalak aldatzera bideratuko dira, emakumeen gutxiagotasunaren ideian edo emakumeen eta gizonen zeregin estereotipuetan oinarritutako aurreiritziak, ohiturak, usadioak eta beste edozein praktika errotik desagerrarazteko xedeaz, eta emakumeen ahalduntzea lortzea umetatik hasita, hezkuntza formalaren eta ez formalaren bidez.

2. Horretarako, prebentzio neurriak hartuko dira hezkuntzaren esparruan eta sentsibilizazio eta informazio neurriak emakume eta gizonentzat, genero indarkeriaren arloko estatuko oinarritzko araudian eta hezkuntza arlokoan aurreikusitakoari jarraikiz.

10. artikulua. Prebentzio neurriak hezkuntzaren esparruan.

1. Emakumeen kontrako indarkeriaren prebentziorako, Foru Komunitateko Administrazioak, bere eskumenean barruan:

a) hezkuntza maila desberdinetako curriculumetan behar diren edukiak txertatuko ditu, giza eskubideen errespetuan eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean oinarritutako heziketa lortzeko.

b) Emakumeen eta gizonen esperientzia, gaitasunak eta ekarpen soziala eta kulturala berdinduz balora daitezela sustatuko du, estereotiporik eta diskriminaziozko jarrerarik gabe.

c) Mendekotasunean, kontrolean eta indarkerian oinarritzen diren harremanak sortzen dituzten estereotipoei aurka egiteko hezkuntza neurriak garatuko ditu.

d) Protokoloak egiten ditu hezkuntzaren esparruan emakumeen kontrako indarkeria, nerabeen eta gazteen artean gertatzen dena, identifikatzeko eta horri erantzuteko.

e) Heziketa afektibo-sexuala eta genero indarkeriaren prebentzioa irakasgaia garatuko du hezkuntza-maila guztietan, eta hezkidetzeta plan bat taxutuko du, ikastetxe guztietan ezinbestean garatu beharko dena.

2. Hezkuntza administrazioak finantzabide egokiak jarri eta irakasleei laguntza emanez bermatuko du Foru Komunitateko ikastetxe guztietan gauzatzea artikulua honetan deskribatutako neurriak.

11. artikulua. Irakasleen eta hezkuntzaren arloko profesionalen hastapeneko eta etengabeko prestakuntza.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak lagunduko du hezkuntza arloko profesionalen prestakuntza berriazkoa eta etengabea izan dezaten emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioaren gaitan.

12. artikulua. Hezkuntza curriculumak eta materialak.

1. Hezkuntzaren arloko eskumena duen departamentuak bermatuko du hezkuntza maila guztietako curriculumak osatzen duten edukiak eta prozedurak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eta giza eskubideen errespetuaren sustatzaile izan daitezela.

2. Hezkuntzaren arloko eskumena duen departamentuak hezkuntza ikuskapenaren zerbitzuaren

bitartez gainbegiratu du hezkuntza materialak eta testuliburuak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eta giza eskubideen errespetuaren sustatzaile izan daitezen.

3. Hezkuntzaren arloko eskumena duen departamentuak proiektu eta material didaktiko eguneratuak egin eta zabalduko ditu, hezkuntza maila guztietarako, jokabiderako ildoak emanez, diskriminazioaren prebentzioa lantzeko, praktika eta jokaera sexistak gainditzeko, indarkeriarik gabeko maskulinitate ereduak eta harreman pertsonal eta afektibo libre, berdintasuneko eta bortxarik gabekoenak emateko.

13. artikulua. Hezkuntza plan eta proiektuetako jarraibideak.

1. Hezkuntza Administrazioak aholkularitza berariazkoa emanen du hezkuntza arloko berdintasunari eta generoko diskriminaziorik ezari buruz, euskarria izan dadin ikastetxeen orientazio lanerako eta irakasleentzako laguntza zentroetarako.

2. Hezkuntza maila guztietako tutoretza-lanerako planetan atal bereziak ezarriko dira emakumeen kontrako indarkeriaren arrazoiei buruz hausnartzeko, bai eta ikasketa eta lanbideetarako orientazioa ere, pertsonen gaitasunetan eta trebetasunetan oinarritua, eta ez sexuan.

3. Ikastetxeek egindako proiektuetan jokabide-etarako ildoak txertatuko dira, honakoak sustatuko dituztenak: pertsona guztien gorputzari begirunea izateko jarrerak, autoestimua, norberaren segurtasuna, eta errespetuzko eta indarkeriarik gabeko giza harremanetarako gaitasuna eskuratzeko. Horretarako, hezkuntza arloko eskumena duen departamentuaren aholkularitza izan dezakete.

4. Hezkuntza administrazioak bultzatuko du berariazko proiektuak egitea ikastetxeetan, pertsonen garapen integralari lagunduko dioten jarrerak, balioak eta gaitasunak ziurtatu eta sustatuko dituztenak.

5. Ikastetxeetako barne arauetan berariaz azaldu beharko dira balio hauetan oinarritutako bizikidetzako arauak: errespetuan, berdintasunean, portaera sexisten bazterketan, giza harremanetatik indarkeria mota oro desagertzean eta, beraz, sexu indarkeriazko portaeren erabateko gaitzespenean. Portaera horietarako zuzenketa edo zehapen neurriak ere berariaz azaldu beharko dira.

6. Hezkuntza arloko eskumena duen departamentuko Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak zainduko du foru lege honetan emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna sustatzeko ezarritako betebeharrak bete eta aplikatzen direla, gai horri buruzko araudian xedatzen den moduan.

14. artikulua. Nafarroako Eskola Kontseiluaren txostena.

Nafarroako Eskola Kontseiluak, Nafarroako hezkuntza sistemari buruz urtero egiten duen txostenean informazioa ere jasoko du, foru lege honek hezkuntza arlorako aurreikusten dituen neurrien garapenari buruz, edo txosten berariazkoa egiten du.

15. artikulua. Eskolatzea, emakumeen kontrako indarkeria kasuetan.

1. Hezkuntza arloko eskumena duen departamentuak berehala eskolatuko ditu emakumeen kontrako indarkeria egoerak direla-eta ikastetxea aldatu behar duten haurrak, eta behar diren kaute-lazko neurriak hartu ahal izanen dira aldaketa hori benetan berehala egin dadin. Kasu horietan ez da beharrezkoa izanen Nafarroako Eskolatze Batzorde Orokorrak edo eginkizun horiek antzeko izaeraz betetzen dituen organismoak aldeztatik onarpena ematea.

2. Hezkuntza arloko eskumena duen departamentuak erraztuko du ikastetxeek arreta berezia ematea ikasle horiei, eta haien eskubideei lehen-tasuna emanen diete erasotzailearen eskubideen gainetik, horrelako egoera bat gertatuz gero ikastetxeko elkarbizitzan.

16. artikulua. Prestakuntza unibertsitateetan.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sustatuko du, bere eskumenen esparruan, indarkeria mota hau ulertzeko edukiak txerta daitezen emakumeen kontrako indarkeriarekin lotura zuzena duten lanbideetan aritzeko gaikuntza ematen duten unibertsitate titulu-etarako ikasketa guztietan, prebentzioan, kasuen detekzio goiztiarrean, esku-hartzean eta/edo biktima diren emakumeei laguntzen trebatzeko.

17. artikulua. Sentsibilizazio sozialerako eta informaziorako neurriak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta toki entitateek sentsibilizaziorako kanpaina instituzionalak egiten dituzte, emakumeen kontrako diskriminazio eta indarkeriaren gaitzespen soziala sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egiteko. Horretarako, behar diren bitarteko guztiak erabiliko dituzte populazio osoari helarazteko mezu horiek, eta, bereziki landaguneetako emakumei, gazteei eta gizonezkoei, diskriminazioa eta indarkeria dakartzaten jarrerak alda daitezen.

Kanpaina horiek isla berezia izanen dute hedabide publikoetan, ikastetxeetan, eta gizarte, osasun, lan, kultura eta kirol zentroetan.

2. Horrekin batera, informaziorako kanpainak eta ekintzak eginen dira, emakumeek behar beste-ko informazioa izan dezaten haien eskubideez eta dauden baliabideez, eta arreta berezia emanen zaie talde hauei: landaguneetako emakumeak, migratzaileak, ijitoen etniakoak, desgaitasuna edo menpekotasuna dutenak, gizartean baztertuta, arriskuan edo egoera ahulean daudenak eta babesgabezia handiagoa izan daitekeen talde edo esparruak, horien artean, lan esparrua.

18. artikulua. Hedabideen esparruko neurriak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bermatuko du bere hedabideek ez dezatela eman programazioan emakumeen irudiarekin lotutako irudi edo eduki iraingarririk, edo emakumeen kontrako indarkeriaren testuingurua osatzen duten estereotipo eta aurreiritziak errepikatzen dituenik, aplikaziorako oinarriko araudian aurreikusitakoarekin bat. Baliabide publikoen diru-laguntzak jasotzen dituzten hedabide pribatuek betebeharrak bete beharko dituzte, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aukera izanen du, betiere, betebeharrak hori betetzen dela bermatzeko behar diren ekintza guztiak gauzatzeko.

2. Halaber sustatuko du informazioaren teknologien sektoreak eta hedabideek autoerregulazio arauak egin eta aplikatzea, emakumeen kontrako indarkeria motekin lotutako edukiek tratamendu egokia izan dezaten bermatzeko, indarkeria horren gaitzespen soziala indartzeko, betiere adierazpen askatasuna eta haien independentzia errespetatuz.

19. artikulua. Publizitatearen esparruko neurriak.

1. Foru Komunitatean jarduten duten hedabide sozialetan, tratamenduagatik edo agertzeko moduagatik, emakumeen kontrako indarkeria justifikatzen, arinkeriak tratatzen edo bultzatzen duten publizitateko edukiak eta iragarkiak egitea eta zabaltzea saihestuko da, bai eta emakumeen duintasuna urratzen duten mezurik berriak edo esan gabekoak dituztenak ere, Estatuko oinarriko arauetan aurreikusitakoarekin bat.

2. Nafarroako Gobernuak epaitegietara jo dezake, emakumeen irudia modu iraingarririko edo diskriminaziorik erabiltzen duen legez kanpoko publizitatea eteteko eskatzeko, Estatuko oinarriko arauetan aurreikusitakoarekin bat.

IV. TITULUA

Emakumeen kontrako indarkeriaren detekzioa eta arreta

20. artikulua. Indarkeria detektatzeko erantzukizun instituzionala.

1. Nafarroako Foru Komunitateak, batez ere arlo sozialaren eta hezkuntza eta osasun arloen eskumenak dituzten departamentuek, behar diren ekintzak beteko dituzte emakumeen kontrako indarkeria egoerak edo halakoak gertatzeko arriskuak detektatu eta identifikatzeko, edozein eratakoa dela ere.

2. Lan hori betetzeko, tresna tekniko batzuk jarriko dira abian, emakumeen kontrako indarkeria (fisikoa, psikikoa, sexuala, ekonomikoa) identifikatu eta ikusarazteko bide emanen dutenak, are biktimiek beraiek indarkeria hori berariaz errekonozitzen ez duten kasuetan ere.

Foru Administrazioak detekzio, jarduketa eta deribaziorako protokolo bereziak prestatuko ditu bere lurralde esparruko toki entitateekin elkarlanean, eta prozesu horietan dituen inplikazioa eta eginkizunak kontuan hartuta. Protokolo horietan ildo batzuk ezarriko dira emakumeen kontrako indarkeria mota desberdinen aurrean lan egiteko.

I. KAPITULUA

Indarkeriaren detekzioa eta arreta osasunaren esparruan

21. artikulua. Osasun arreta jasotzeko eskubi-dea.

1. Osasun Zerbitzu Publikoak, detekzio eta arretarako baliabide funtsezkoa den aldetik, foru lege honetan jasotzen den edozein indarkeria motaren biktima diren emakumei ziurtatuko die osasun arreta jasotzeko eskubidea eta haien osasun egoeraren eboluzioaren jarraipena egitekoa, guztiz suspertu artekoa, jasandako indarkeriak eragindako kalteen sintomei dagokienez, edozein dela ere haien administrazio-egoera.

2. Kasu horietan, zerbitzuak indarkeria pairatu edo pairatzen duten emakume guztiei emanen zaizkie, haien pribatutasuna eta intimitatea ziurtatuz, bai eta beren osasun arretari dagokionez haiek hartzen dituzten erabakiak ere.

3. Era berean, neurri bereziak ezarriko dira desgaitasuna, osasun mentaleko arazoak, adikzioak edo bestelako arazoak edo indarkerian jatorria duten edo hari gehitzen zaizkion bestelako adikzioak dituzten emakumeen kontrako indarkeria egoerak detektatzeko eta kasu horietan esku hartzeko eta laguntza emateko.

22. artikulua. Osasun arloko detekzio eta arretarako estrategia.

Foru lege honetan aurreikusitako indarkeria motaren bat jasan duten emakume guztien osasun arretarako eskubidea bermatzeko, Foru Administrazioako osasun arloko organo eskudunak osasun arloko detekzio eta arretarako estrategia bat egiten du emakumeen kontrako indarkeriaren esparruan, honakoak barne hartuta:

a) Gutxieneko estandar batzuk, Foru Komunitate osoan emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzio, detekzio eta arretarako behar diren giza baliabide eta bitarteko materialei dagokienez, zeinak jasoko baitira oinarrizko osasun laguntzaren zerbitzuan, larrialdietan eta osasun mentalekoan, emakumeen kontrako indarkeriari arreta emateko zerbitzuen zorroetan.

b) Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko prestakuntzarako programazio bat, adierazleekin eta bete beharreko helburuekin, biktimen diren emakumei arreta ematen dieten osasun arlo guztietako profesionalen parte-hartzea lortzeko; prestakuntza bideratuko da indarkeria kasuak detektatzera eta biktimekin esku-hartze egokia izatera.

c) Artikulu honetako a) eta b) letrak titulartasun pribatuko osasun zerbitzuetan ere aplikatzekoak izanen dira.

23. artikulua. Laguntza psikologikoa.

1. Osasun arloko laguntza psikologikoa oinarrizko arreta zerbitzuetan hartuko da, zein laguntza mailatan ematen den ere, eta mailen artean mekanismo eta koordinazio bide egokienak sustatuko dira, kaltetutako emakumeentzako arreta azkartzeko, arretarik eta onbideratzerik erabatekoena eta berehalakoena izan dezaten, emakumeekiko begirunea eta haien autonomia bermatuz, eta tratatu txarrak jasoko dituzten harremanetan berriz ere sartzera eragotziko dieten bitartekoak emanez.

2. Foru lege honetan aurreikusitako indarkeria motaren bat jasaten duten emakumei aitortzen zaie emakumeen kontrako indarkeriaren gaietan prestakuntza jaso duten profesionalen laguntza psikologikoa hartzeko eskubidea, horren barne direla hasierako arreta eta jarraipena prozesu terapeutiko osoan.

Esku-hartzea berezia izanen da indarkeria egoera pairaturik osasun mentaleko arazoak dituzten edo gai adiktiboan menpekotasuna duten eta/edo tratamendu psikologiko berriazkoa behar duten bestelako patologiak dituzten emakumeekin.

3. Aitortzen da laguntza psikologikorako eskubidea dutela emakumeen kontrako indarkeria egoerak bizi edo pairatzen dituzten adingabeek eta menpekotasuna duten beste pertsona batzuek, horren barne direla laguntza psikosozialeko neurri bereziak eta haien ezaugarri eta beharretara egokituak.

24. artikulua. Jarduketarako protokoloak eta koordinazioa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak detekzio, arreta eta deribaziorako protokoloak prestatuko ditu oinarrizko osasun laguntzako, laguntza espezializatuko eta ospitaleratzeetako osasun esparru guztietan. Protokolo horietan indarkeriaren biktimen detekzio eta arretari buruzko adierazle multzo bat jasoko da, osasun prestazioen gaineko kalitate kontroletan ere sartuko direnak.

2. Protokolo horiek emakumeen kontrako indarkeria garaiz detektatzeko neurriak ezarriko dituzte, bai eta lesioen agiri bateratu eta unibertsala Nafarroako osasun zentro guztietarako, profesionalak nahitaez bete beharrekoa.

Orobat, foru lege honetan aurreikusitako indarkeria jasaten duten emakumeentzako osasun arretan berriaz esku-hartzen duten unitate guztiak koordinatzeko prozedurak zehaztuko dituzte protokoloek, berdintasunaren arloko eskumena duen departamentuarekin elkarlanean.

25. artikulua. Kasuen erregistroa.

Osasun arloko departamentu eskudunak emakumeen kontrako indarkeria kasuen erregistrorako sistema bat ezarriko du, osasun zerbitzuen tipologia zehaztuta; horrela, arazoari neurria hartu ahal izanen zaio, eta aldizka informazioa helaraziko dio berdintasunaren arloko departamentu eskudunari, honakoetan ezarritakoarekin bat: azaroaren 14ko 41/2002 Lege oinarrizkoan, Gaixoaren autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrak arautzen dituen, eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan.

26. artikulua. Nafarroako osasun planak eta inkestak.

1. Nafarroako osasun planetan emakumeen kontrako indarkeria jasoko da osasun publikoaren gai gisa, Osasunaren Mundu Erakundeak bere txostenetan adierazi bezala, horren barne direla osasunaren ikuspuntutik gaia aztertzea eta esparru horretan arazoari heltzeko neurriak indartzea.

2. Osasunari buruzko inkestetan emakumeen kontra erabilitako indarkeriari buruzko adierazleak jasoko dira.

II. KAPITULUA

Emakumeen kontrako indarkeriaren detekzioa eta arreta gizarte zerbitzuetan

27. artikulua. Gizarte arreta jasotzeko eskubidea.

1. Gizarte zerbitzuen sistema publikoak, detekzioarako eta arretarako baliabide funtsezkoa den aldetik, arreta sozialerako eskubidea bermatuko die foru lege honetan jasotako edozein eratako indarkeriaren biktima diren emakumeei, oneratzeko eta erreparazioa jasotzeko prozesu osoa amaitu eta burutu arte.

2. Kasu horietan, zerbitzuak indarkeria jasan duten edo jasaten duten emakume guztiei emanen zaizkie, haien pribatasuna eta intimitatea errespetatuz, bai eta haien beren gizarte arretari dagokionez hartzen dituzten erabakiak ere.

3. Era berean, neurri bereziak ezarriko dira desgaitasuna edo menpekotasuna duten emakumeen edo gizartean baztertuta, arriskuan edo egoera ahulean dauden nahiz indarkeriari erantsitako bestelako problematikak dituzten emakumeen kontrako indarkeria egoerak detektatzeko eta kasu horietan esku hartzeko eta laguntza emateko.

28. artikulua. Gizarte arloko detekzio eta arretarako estrategia.

Emakumeen kontrako indarkeria egoerak jasan dituzten emakume guztien gizarte arretarako eskubidea bermatzeko, Foru Administrazioan gai horren eskumena duen organoak detekzio eta arreta sozialerako estrategia bat eginen du emakumeen kontrako indarkeriaren esparruan, honakoak barne hartuta:

a) Gutxieneko estandar batzuk, Foru Komunitate osoan emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzio, detekzio eta arretarako behar diren giza baliabide eta bitarteko materialei dagokienez.

b) Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko prestakuntzarako programazio bat, adierazleekin eta bete beharreko helburuekin, biktima diren emakumei arreta ematen dieten gizarte zerbitzuen arloko profesionalen parte-hartzea lortzeko; prestakuntza bideratuko da indarkeria kasuak detektatzera nahiz biktimiekiko esku-hartzea egokia izatera.

c) Gizarte zerbitzuen arloko jarduketara eta koordinaziorako protokoloak egitea, indarkeriaren biktima

men detekzioari eta arretari buruzko adierazleak jasoko dituztenak.

29. artikulua. Kasuen erregistroa.

Gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskudunak emakumeen kontrako indarkeria kasuen erregistroarako sistema bat ezarriko du, tipologia zehaztuta; horrela, arazoari neurria hartu ahal izanen zaio, eta aldizka informazioa helaraziko dio berdintasunaren arloko departamentu eskudunari, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat.

30. artikulua. Nafarroako Gizarte Zerbitzuen planak eta inkestak.

1. Nafarroako gizarte zerbitzuen arloko planetan emakumeen kontrako indarkeria jasoko da babes sozialaren arloko gai gisa, horren barne direla ikuspuntu sozialetik gaia aztertzea eta esparru horretan arazoari heltzeko neurriak indartzea.

2. Gizarte zerbitzuei buruzko inkestetan emakumeen kontra erabilitako indarkeriari buruzko adierazleak jasoko dira.

V. TITULUA

Arretarako eta oneratzeko baliabideak eta zerbitzuak

I. KAPITULUA

Kontzeptua eta printzipioak

31. artikulua. Kontzeptua.

1. Emakumeen kontrako edozein eratako indarkeriatik biziraun duten emakumeek eskubidea dute arreta integrala jasotzeko, zeharo oneratzeko lortzeko. Arreta integralak honakoak hartzen ditu:

a) Emakumei informazioa eta orientazioa ematea haien eskubideei eta dauden baliabideei buruz.

b) Osasun fisikoari eta mentalari arreta ematea, indarkeriaren ondorioak arintzeko modua den aldetik.

c) Behar ekonomikoari, lan, etxebizitza eta hezkuntza arloetakoari eta sozialei erantzuna ematea.

d) Aldi baterako ostatu segurua izan beharri erantzuna ematea, bidezkoa denean.

2. Titulu honetan ezarritako neurriei baliatu ahal izanen dira, emakumeen kontrako edozein eratako indarkeriatik biziraun duten emakume adindun nahiz adingabeak ez ezik, haien guraso-ahalarren, zaintzaren edo tutoretzaren menpe dauden pertsona adingabeak edo, kasua bada, biktima den

emakumearekin bizi diren eta desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsona adindunak.

32. artikulua. Arreta Integralaren Sarea arautzen duten printzipioak.

Arreta Integralaren Sareko printzipioak hauek dira:

1. Helburua. Arreta Integralaren Sarea osatzen duten zentroyen eta zerbitzuen xede nagusia emakumeei laguntza ematea da, oneratu, ahaldundu eta autonomia osoa eskuratzeko prozesuan.

2. Genero ikuspegia. Nafarroako Foru Administrazioak bermatuko du, berdintasunaren arloko departamentu eskudunaren bitartez, arreta integralaren baliabideak osatzen dituzten zentro eta zerbitzu guztietan genero ikuspegitik eginen dela lan.

3. Diziplinartekotasuna eta espezializazioa. Nafarroako Foru Administrazioak bermatuko du baliabideetako talde profesionalak diziplinartekoak izanen direla eta beharrezkoa den espezializazioa izanen dutela emakumeen kontrako indarkeriaren tipologia desberdinetan esku hartu ahal izateko (indarkeria bikotean/bikote ohian; sexu-indarkeria, emakumeen salerosketa), mota bakoitzaren ezauzgarri bereziak kontuan hartuta.

4. Koordinazioa eta sareko lana. Nafarroako Foru Administrazioak bermatuko du indarkeria kasuetatik biziraun duten emakumeekin lan egiten duten baliabideetako profesionalen taldeek koordinatuta lan eginen dutela.

5. Informazioaren eta arretaren eskuragarritasuna. Biziraun duten emakumeek eskubidea dute informazio osoa eta euren egoera pertsonalaren arabera aholkularitza izateko, administrazio publikoek izan ditzaketan baliabide, antolakunde edo bulegoen bidez.

6. Ebaluazioa Zerbitzu hori ematen duen erakundeak profesionalen lana ebaluatzeko sistema bat izanen du, biziraun duten emakumeek jaso duten arretarekin duten gogobetetasun-maila izateko bide eskuragarri bat barne.

II. KAPITULUA

Arretarako eta Oneratzeko Sareko baliabideen eta zerbitzuen katalogoa

I. atala Definizioa

33. artikulua. Definizioa eta egitura.

1. Arretarako eta Oneratzeko Sarea doako baliabide eta zerbitzu publikoen multzo koordinatua da, xedetzat duena 31. artikuluan aurreikusten

diren jarduketak betetzea, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean.

2. Arretarako eta Oneratzeko Sarea honako baliabide eta zerbitzuek osatuko dute:

a) Informazioa eta arreta emateko baliabide orokorrak:

i) Informaziorako eta larrialdietarako telefonoa.

ii) Informaziorako eta lehen arreta emateko zerbitzuak.

b) Oneratzeko eta arreta espezializatua emateko zerbitzuak:

i) Arreta eta oneratzeko psikosozial integrala.

ii) Haurrentzako arreta psikologikoa.

iii) Sexu-indarkeriaren biktimentzako oneratzeko.

iv) Giza-salerosketaren biktimentzako arreta integrala.

c) Harrerarako eta aldi baterako ostatu segurua emateko sarea:

i) Larrialdietako zentroa.

ii) Harrerarako baliabideak.

iii) Egoitza-etxebizitzak.

3. Erregelamendu bidez ezarriko dira zerbitzuen erregulazioa eta antolaketa, eta bermatuko dute baliabideak irizpide hauen arabera kudeatuko direla: baliabiderik badagoen, haien irisgarritasuna eta kalitatea. Edozein kasutan ere, baliabideen kopurua herriz herri eta haien lurralde-banaketa-aren arabera zehaztuko da, banaketa orekatua ziurtatuz eta landa inguruneke eta bestelako eskualde urrunetako emakumeei ere haietaz baliatzeko aukera ematen zaiela bermatuz.

II. atala

Informazioa eta arreta emateko baliabide orokorrak

34. artikulua. i) Informaziorako eta larrialdietarako telefonoa.

1. Informaziorako telefonoak laguntza emanen die emakumeen kontrako edozein eratako indarkeriaren biktima diren emakumeei eta haiek ardurapean dituzten pertsona adingabeei. Zerbitzua eguneko 24 orduetan emanen da profesionalen talde batek artaturiko telefono baten bidez. Profesional horiek emakumeen kontrako indarkeriarekin lotutako gai juridiko, psikologiko eta sozialetan espezializatuta egonen dira.

2. Larrialdietarako telefonoaren zerbitzua telefono bidezko arretarako taldeak emanen du; talde horrek kasu zehatz bakoitzaren inguruabarren arabera behar diren arreta-, laguntza- eta harrera-baliabideak abian jarriko ditu, biktimei babesa eta laguntza berehalakoan emateko.

35. artikulua. Informazioa eta lehen arreta emateko zerbitzuak.

1. Nafarroako Foru Komunitateak informazioa eta lehen uneko arreta bermatuko dizkie emakumeen kontrako edozein eratako indarkeriaren biktimei diren emakumeei, modu honetan:

a) Lehen uneko arreta emanen die, informazioa emanez gai hauei buruz: laguntza ekonomikoak eta baliabide sozialak, orientazioa, zerbitzu juridikoa eta, beharrezkoa bada, beste zerbitzu batzuetarako deribazioa.

b) Informazio, laguntza eta arreta psikologikoko zerbitzua emanen du, etengabeko guardia lokalizatuaren araubidean.

2. Zerbitzuak emanen dituzten profesionalak prestakuntza egokia izanen dute emakumeen kontrako indarkeriaren arloan eta genero ikuspegiarekin lan egitearen arloan.

III. atala

Oneratzeko eta arreta espezializatua emateko zerbitzuak

36. artikulua. Arreta eta oneratze psikosozial integrala.

1. Lehen uneko arreta eman ondoren, oneratze integralerako zerbitzuen bidez bermatuko da emakumeen kontrako indarkeria kasuetatik biziraun duten emakumeen oneratzea.

2. Zerbitzu horiek diziplinarteko taldeen ardura izanen dira, behar diren prestakuntza eta esperientzia dituztenak, eta emakumeei aholkularitza juridikoa, arreta psikologikorako zerbitzua, esku-hartze soziala eta lan arloko orientazioa emanen diete.

3. Zerbitzu horietaz baliatzeko prozedurak erregelamenduz zehaztuko dira. Edozein kasutan ere, haietatik baliatzera iritsi ahal izateko bide desberdinak aurreikusiko dira, emandako baliabideek haien premia duten emakume guztiei arreta emateko.

4. Baliabideak erabili ahal izateko ez da beharrezkoa izanen erasotzailearen kontrako inolako salaketarik aurkeztea.

5. Emakumeen kontrako indarkeria motaren bat jasaten duten eta zenbait arrazoiengatik egoera ahulagoan dauden emakumeek (adikzioak, gai-

xotasun mentalak, desgaitasuna, menpekotasuna eta gizarte bazterkeria edo arrisku egoerak) bermatua izanen dute beren beharrei erantzunen dien arreta integrala.

37. artikulua. Haurrentzako arreta psikologikoa.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak arreta psikologiko espezializatua bermatuko du indarkeriazko inguruneetan bizi izan diren haurrak oneratzeko.

38. artikulua. Sexu-indarkeriaren biktimeentzako oneratzea.

1. Foru Administrazioak baliabide espezializatuak izanen ditu, sexu-indarkeriatik (sexu-jazarpena barne) biziraun duten emakumeak behar bezala oneratzeko. Zerbitzu horiek 24 orduko telefonoa izan beharko dute informazioa emateko, bai eta goiz eta arratsaldeko ordutegia duen zerbitzu bat ere, biktimei eta ahaideei arreta pertsonalizatua eskaintzeko.

2. Zerbitzu horiek laguntza psikologiko eta sozialaren, orientazioaren eta akonpainamendu juridikoaren bidez emanen dira. Osasun- eta polizia-zerbitzuekin koordinazioa ezarriko da, arretaren eta justizia-bilaketaren prozesua emakumei ahalik eta traumarik txikiena sortzeko modukoa izatea ziurtatzeko.

39. artikulua. Emakume-salerosketaren biktimeentzako arreta integrala.

Emakume-salerosketaren biktimeentzako arreta integralean sartuko dira, gutxienez ere, laguntza psikologikoa, arreta juridikoa, tratamendu medikoa eta hainbat neurri, biziraupena ziurtatzekoak eta aholkularitza nork bere hizkuntzan jasotzea bermatzekoak.

40. artikulua. Detekzioa eta arreta, emakumeen genitalen mutilazioari eta ezkontza behartuei dagokienez.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak jarduera-protokoloak ezarriko ditu, emakumeen genitalen mutilazioaren eta ezkontza behartuen kasuak detektatzeko eta arreta emateko; horretarako, horrelakoetan esku hartzen duten profesionali beharrezkoa den berariazko prestakuntza emanen zaie.

41. artikulua. Familia elkartzeko guneak.

1. Familia elkartzeko gunearen zerbitzua emakumeen kontrako indarkeria kasuez arduratuko da babes poliziala edo judiziala emateko neurri bat ezarri denean eta epaitegietatik hala erabakitzen denean.

2. Familia elkartzeko guneetako profesionalen taldeak generoaren arloan prestakuntza daukala frogatu beharko du, emakumeen kontrako indarkeria kasuetan esku hartu ahal izateko. Era berean, jardun profesionalean ezin dute bitartekaritza prozesurik garatu, baldin eta frogatzen bada bikotearen edo familiaren esparruan emakumeen kontrako edozein indarkeria-mota izan dela, aplikatzekoa den oinarriko estatu-legerian ezarritakoarekin bat.

42. artikulua. Adingabeen babeserako entitate publikoaren jarduna.

1. Emakumeen kontrako indarkeria kasu batean, adingabe batentzako arrisku egoera bat edo babes gabezia egon daitekeela ikusiz gero, adingabeen babesaren arloan eskuduna den entitate publikoari jakinaraziko zaio, komeni diren babes neurriak har ditzan.

2. Indarkeriaren biktima batek adingabearen guraso-ahala, tutoretza, zaintza edo harreran hartua baldin badu, botere publikoek bermatu beharko dute premiazkoa den laguntza emanen dutela adingabea, adina edozein dela ere, harekin egon dadin, eta adingabeari babesa, arreta espezializatu eta oneratzeko bitartekoak emanen dizkiote.

3. Adingabeen babesaz arduratzen diren profesionalen taldeek prestakuntza egokia jasoko dute, emakumeen kontrako indarkeriaren kasuetan esku hartzeko beharrezkoa dena barne, haurren egoera baloratu ahal izan dezaten, haien interes nagusian oinarrituta eta foru lege honetan jasotako printzipioei jarraikiz.

IV. atala

Harrerarako eta aldi baterako ostatu segurua emateko sarea

43. artikulua. Helburua eta egitura.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bermatuko du, harrerarako eta aldi baterako ostatu segurua emateko sarearen bidez, biziraun izanik arriskuan dauden emakumeek segurtasunez eta konfidentziasunez beharrezkoa duten arreta integrala emanen dien baliabide bat izan dezaten.

2. Harrerarako eta aldi baterako ostatu segurua emateko sareak erantzuna eman beharko die emakumeen kontrako edozein eratako indarkeriatik biziraun duten emakumeei.

Zentro horiek bermatu beharko dute profesionalak izanen direla bertan, eguneko hogeita lau orduetan lanean, harreran hartutako emakumeei eta adingabeei behar den akonpainamendua ematen.

3. Emakume-salerosketatik biziraun duten emakumeek segurtasun eta arreta behar bereziak dituztenez, segurtasuna eta oneratzeko ziurtatzeko moduko zentroetan emanen zaie arreta.

4. Biziraun duten emakume horiek bestelako arazo erantsiak dituztenean, adikzioak edo eritasun mentalak, kasu, behar berezi horiei erantzun egokia emateko moduko baldintzak dituzten zentroetan emanen zaie arreta, horretarako beharrezkoak diren baliabideak koordinatuz.

44. artikulua. Larrialdietako zentroa.

1. Larrialdietako zentroak zerbitzu espezializatuak dira, indarkeria egoeran dauden edo egon diren emakumeei, bai eta haiekin bizi diren eta ekonomikoki haien ardurapean dauden seme-alabei ere, aldi baterako harrera emateko, epe labur batez, haien segurtasun pertsonala bermatzeko. Orobat, krisi egoerari aterabidea emateko baliabide pertsonal eta sozialak eman beharko dituzte.

2. Larrialdietako zentroek eguneko hogeita lau orduetan emanen dute zerbitzua, urteko egun guztietan. Zerbitzu hauetako egonaldia ireaupena baliabide egonkorak abian jartzeko ezinbesteko gutxienezkoa izanen da; gehienez ere hilabetekoa, betiere.

3. Baliabide horiek erabiltzeko ez da beharrezkoa izanen erasotzailearen kontrako inolako salaketarik aurkeztea.

4. Zentro hauek bete beharko dituzten arau eta baldintza bereziak erregelamenduz ezarriko dira. Arau horiek, nolahi ere, foru lege honen oinarri diren printzipioen eta 30. artikuluan ezarritakoen arabera izanen dira.

45. artikulua. Harrerarako baliabideak.

1. Harrerarako baliabideak egonaldi ertainetarako lojamendu seguruak dira, emakumeen kontrako indarkeria egoerak pairatu dituzten emakumeak oneratzeko, indarkeriak eragindako arrisku egoerarengatik haientzat eta ardurapean dituzten adingabeentzat babesgune bat behar dutenean.

2. Diziplinarteko taldeak arduratuko dira harrerarako baliabideez, eta arreta emateko eta/edo oneratzeko tratamendu integrala ziurtatuko dute, bere baitan hartuta alderdi psikologikoak, soziolaboralak eta juridikoak; horrez gain, emakumeei lagunduko die ahalduntzen eta autonomia osoa eskuratzen, eta haiekin bizirik ekonomikoki haien ardurapean dauden seme-alabei egoera horretatik oneraten.

3. Baliabide horiek erabiltzeko ez da beharrezkoa izan erasotzailearen kontrako inolako salaketarik aurkeztea.

4. Harrerarako baliabideek bete beharko dituzten arau eta baldintza bereziak erregelamenduz ezarriko dira. Arau horiek, nolana ere, foru lege honen oinarri diren printzipioen eta 30. artikuluan ezarritakoen arabera izanen dira.

46. artikulua. Egoitza-etxebizitzak.

Egoitza-etxebizitzak etxebizitza normalizatuan arreta integrala emateko baliabidea dira, eta haien helburua da oneratzeko hasi diren emakumeen beharrei laguntzea, etxebizitza, akonpainamendua eta arreta integrala emanez biziraun duten emakumeei gizarteratzeko eta autonomia osoa eskuratzeko prozesuan.

47. artikulua. Emakume-salerosketaren biktima izan direnentzako harrera zerbitzua.

1. Nafarroako Foru Administrazioak harrerarako zerbitzu bat jarriko du, gutxienez, emakume-salerosketa egoeratik biziraun duten emakumeentzat, arreta soziala, juridikoa, lan arlokoa eta psikologikoa bermatuko diena.

2. Zerbitzuaz arduratuko den taldeak frogatu beharko du prestakuntza eta esperientzia dauzkala emakumeen salerosketaren arloan lan egiteko, foru lege honen oinarri diren printzipioekin eta giza salerosketaren kontrako Europako Hitzarmenarekin bat.

VI. TITULUA

Laneratzearen eta autonomia ekonomikoaren sustapena eta etxebizitza eskuratzea

I. KAPITULUA

Laneratzea sustatzeko neurriak

48. artikulua. Laneratzea sustatzea.

1. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak prestakuntzako eta enpleguko programa mistoei laguntzeko, kontratazioa sustatzeko, ekonomia soziala bultzatzeko edo autonomo gisa jartzeko onesten dituen diru-laguntzen deialdi guztietan lehentasuna ematen zaie emakumeen aurkako indarkeria motaren baten biktima diren emakumeei, dela kontratazioa eskuratzean, dela diruz laguntzen den kopuruan, dela bi alderdi horietan.

Idatz-zati honetan aipatzen diren laneratzea sustatzeko neurriak aplikatzeko lehentasunak jartzerakoan, indarkeriaren biktima diren emakume guztiak hartuko dira kontuan, edozein dela ere haien administrazio-egoera.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoaren ondorioetarako, emakumeek izaera horrekin behar dute inskribaturik egon Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren erregistroetan.

3. Emakumeak laneratze aldera, emakumeen aurkako edozein eratako indarkeriatik biziraun duten emakumezko biktimei lana eta familia batera eramateko laguntza ematen zaie, ahal bada.

II. KAPITULUA

Biziraun duten emakumeen lan eskubideak

49. artikulua. Emakumezko langile publikoen eskubideak.

1. Emakumeen aurkako indarkeriaren egoera batetik biziraun duten emakumezko langileek eskubidea izanen dute lanorduak murriztu edo berrantolatzeko, beste herri batean lan egiteko, beste lantoki batera aldatzeko, lan harremana eteteko -lanpostua gordeta- eta lan kontratua amaitzeko, Langileen Estatutuan eta aplikatu behar den lan arloko araudian finkatutako moduan.

2. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko lan-kontratudunak ez diren emakumezko langile publikoek, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak badira, eskubidea izanen dute bere lanorduak murriztu edo berrantolatzeko, beste lantoki batera aldatzeko eta eszedentzia eskatzeko, berariazko legedian finkatutako moduan.

III. KAPITULUA

Laguntza ekonomikoak

50. artikulua. Informazioa.

Nafarroako Foru Administrazioak informazioa ematen die indarkeriaren biktimaren izaera frogatua duten emakumeei, administrazio publikoek ematen dituzten laguntza ekonomikoak buruz.

51. artikulua. Larrialdiko laguntzak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak berariazko kontu-sail ekonomiko bat sortuko du larrialdiko laguntzak emateko; horren xedea izanen da berehalakoan aurre egitea emakumeen aurkako indarkeria egoera baten biktima izan diren emakumeen gizarte larrialdiei, baliabide ekonomikorik ez badute edo laguntza behar badute, gizarte zerbitzuetan, talde espezializatuetan, abegi-etxeetan eta larrialdi zerbitzu edo zentroetan artatu dituzten langileen irizpide profesionalaren arabera.

2. Erregelamendu bidez ezarriko dira laguntza horien motak, zenbatekoak eta kudeaketa-araubidea.

52. artikulua. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimeentzako laguntzak, baliabide ekonomiko askirik ez dutela eta lana lortzeko zailtasun bereziak dituztela frogatzen dutenean.

1. Nafarroako Gobernuak prozedura laburtu bat ezarriko du laguntza hori tramitatu, eman eta ordaintzeko, aplikatu behar den oinarritzko estatu-legegian finkatutako arauekin bat.

2. Horretarako, prestazioa jasotzeko eskubidea hilabeteko epean aitortuko da, gehienez ere, laguntzaz ebazteko eskudun den organoaren erregistroan interesdunaren eskabidea sartzen denetik.

53. artikulua. Eskola-laguntzak.

Hezkuntza Administrazioak faktore kualifikatutzat hartuko du familia barneko indarkeria baliabide ekonomiko urriko familientzako balizko laguntzak arautzean, bereziki eskolako eta jantokiko gastuetarako eta eskolaz kanpoko jardueretarako.

54. artikulua. Gizarteratze-errenta.

1. Erregelamenduz prozedura laburtu bat ezarriko da indarkeriaren biktima diren emakumeentzako gizarteratze-errenta izapidetu, eman eta ordaintzeko, edozein dela ere haien administrazio-egoera.

2. Horretarako, prestazioa jasotzeko eskubidea hilabeteko epean aitortuko da, gehienez ere, laguntzaz ebazteko eskumena duen organoaren erregistroan interesdunaren eskabidea sartzen denetik.

55. artikulua. Beste laguntza batzuk.

Aurreko artikuluetan ezarritako laguntzez gain, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak beste prestazio ekonomiko berariazko batzuk ezartzen ahal ditu, erregelamenduz, aurrekoekin bateragarriak direnak, edo dauden prestazioak jasotzeko baldintzak aldatzen, indarkeriatik bizi-raun duten emakumeen oneratzea bermatzeko.

IV. KAPITULUA

Etxebizitza eskuratzea

56. artikulua. Etxebizitza eskuratzeko neurriak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak neurriak sustatu behar ditu emakumeen aurkako edozein indarkeria mota jasaten duten emakumeek etxebizitza bat eskura dezaten errazteko, betiere indarkeriaren ondorioz eskasia ekonomikoa badute edo etxebizitza lortzea beharrezkoa denean emakumea oneratzeko.

2. Babestutako etxebizitzaren multzo bat (erosketan eta alokairuan) erreserbatuko da, bai eta etxebizitzak eskuratzeko berariazko laguntza-sistema bat ezarri ere, emakumezko biktimentzat,

sektorean aplikatu behar den legedian finkatutako baldintzetan.

3. Emakumeen aurkako indarkeriaren egoera baten biktimek, abegi-etxeak eta/edo egoitza-etxebizitzak utzi ondoren, bertako egonaldia amaituta, laguntza ekonomikoak jasotzeko eskubidea izanen dute ohiko bizilekua eta etxeko oinarritzko ekipamendua izatea bermatzeko, betiere baliabide ekonomikorik ez badute.

Horretarako, prestazioa jasotzeko eskubidea hilabeteko epean aitortuko da, gehienez ere, interesdunaren eskabidea laguntzaz ebazteko eskumena duen organoaren erregistroan sartzen denetik.

VII. TITULUA

Poliziaren arreta eta babes eraginkorra

57. artikulua. Eskubidearen edukia eta xedea.

1. Arau honetan aurreikusitako indarkeria egoeraren bat jasaten duten emakumeek eskubidea dute poliziaren arreta eta babes jasotzeko. Nafarroako administrazio publikoek emanen dute zerbitzu hori, eginkizun hauekin:

a) Berehalako eta kalitatezko laguntza, salaketa jartzera bideratua.

b) Salatutako egintzen ikerketa sakona.

c) Poliziaren babes eraginkorra arrisku egoeratan.

2. Nafarroako administrazio publikoek Foruzaingoaren eta udaltzaingoaren bidez bermatuko dute eskubide hori. Foruzainek eta udaltzainek, Estatuko segurtasun indar eta kidegoen laguntza koordinatuarekin, laguntza espezializatua emanen diete foru lege honetan jasotako indarkeria motaren baten biktima diren emakumezkoek.

Aplikatzekoa den oinarritzko estatu-legerian xedatuarekin bat, Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzak koordinazio eta lankidetzaren hitzarmenak edo protokoloak sinatu beharko dituzte, baita Nafarroako Gobernuak eta toki entitateek ere, polizien jarduketak koordinatzearen indarkeriaren biktimei laguntza eta babes eraginkorra ematearen arloan, hirietan zein landa-ingurunean.

3. Poliziek emakumezko biktimei ematen dieten laguntza espezializatuak jarduera hauek bilduko ditu gutxienez:

a) Ahal den neurririk handienez, poliziaren erantzuna sentibera, kalitatezkoa, azkarra eta eraginkorra izanen da, eta saihestuko dira biktimizazioak.

zioa larriagotzen duten jarduketak eta esku-har-tzeen bikoiztea edo errepikatzea.

b) Informazio argia eta ulergarria ematea emakumeei haien eskubideez eta horietaz baliatzeko bidez.

c) Ahal den neurrian, berehalako laguntza eta babes egoki eta eraginkorra ematea biktimei arrisku egoeretan.

d) Koordinazioa eta lankidetzaren bermatzea polizia eta laguntza juridiko, sozial eta psikologikoko baliabideen artean.

58. artikulua. Espezializazioa eta poliziaren jarduerarako protokoloak.

1. Poliziaren arreta zerbitzuak baliabide espezializatuak dira, eta bermatzen dute genero-indarkeriako egoeraren batean dauden emakumeek eta haien menpeko seme-alabek laguntza espezializatu, babesa eta indarkeria horrekiko segurtasuna jasotzeko daukaten eskubidea.

2. Foru Administrazioak bermatuko du Nafarroako Foruzaingoak hasierako eta etengabeko prestakuntza egokia jasotzen duela emakumeen aurkako indarkeriaren arloan, eta prestakuntza eta trebakuntza berariazkoak eta etengabekoak jasotzen dituela indarkeria horren prebentziorako eta hura jasaten duten emakumeei laguntza eta babesa emateko.

Etengabeko prestakuntzako ikastaroak antolatuko dira Foruzaingoko unitate espezializatuarentzat ez ezik Foruzaingoko eta udaltzaingoetako gainerako unitate guztientzat ere, baldin eta zereginik izan badezakete indarkeria jasan duten emakumeei dagokienez.

3. Jasotako prestakuntza hartuko da kontuan biziraun duten emakumeekin zuzenean lan egin behar duten foruzainen hautaketan.

4. Foruzaingoak lana ebaluatzeko sistema bat izanen du, emakumezko biktimek jasotako laguntzari buruzko gogobetetasuna islatzeko bide erraz bat barne.

5. Foruzainek emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei laguntza eta babesa ematean bete behar dituzten protokoloak ezarriko dira .

6. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin koordinaturik, Foru Komunitateko Administrazioak bultzatuko du Nafarroako Foru Komunitateko udaltzaingoen prestakuntza jaso eta protokoloak egin ditzaten emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei laguntzeko.

7. Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzarekin edo toki enti-

tatekin sinatzen dituen koordinazio eta lankidetzaren hitzarmen edo protokoloetan bermatuko da Estatu-ko segurtasun indar eta kidegoek Nafarroako Foru Komunitatean ematen duten zerbitzua eta Foruzaingoarekin lankidetzan diharduten udaltzaingoa behar bezalako kalitatezkoa dela.

Protokoloek bermatuko dute Nafarroako emakumezko biktimak babes sistema nazionaletan sartuak direla eta Foruzaingoak eta udaltzaingoen sistema hori erabiltzen dutela, bidezko denean.

59. artikulua. Arretarako guneen kalitatea.

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei laguntza emateko polizia-bulegoek eta bestelako guneek baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Indarkeriaren emakumezko biktimak eta lekukoak hartzeko eta horiei laguntza emateko espazio fisiko bereziak diseinatuko dira polizia etxeetan, bigarren mailako biktimizaziorik ez gertatzeko.

b) Itxarongelak, salaketak jartzeko tokiak eta poliziaren beste edozein motatako esku-hartze edo jarduketarako lekuak berezi egin behar dira, eta egoera bakoitzeko beharrezan berezietara moldatu, uneoro konfidentziaztasuna bermatzeko eta biktima eta erasotzailea elkarrengandik erabat aldentuta egotea ahalbidetzeko.

c) Toki bereziak diseinatuko dira emakumeekin doazen adingabeentzat.

d) Biktimak eta haiekin doazen adingabeak tokiz mugitu behar direnean, horretarako egokiak diren ibilgailuak erabiliko dira.

60. artikulua. Ikerketa poliziala.

1. Foru Komunitateko Administrazioak Foruzaingoaren esku jarri behar ditu ikertzeko baliabide erabilgarri guztiak, teknika aurreratuenak barne, emakumeen aurkako indarkeria izan daitzeko egintzak egiaztatu eta frogatzeko, betiere biktimen osotasuna eta intimitatea babestuz.

2. Aldian behin Foruzaingoaren protokoloak eguneratuko dira emakumeen aurkako indarkeriaren ikerketaren arloan, egintza horiek argitzeko polizia-teknikak eta -jarduketak hobetzeko.

61. artikulua. Babes eraginkorra.

1. Zerbitzu publikoen txostenak eta salaketa aurkezten duten emakumeen informazioa abiapuntutzat harturik, Foruzaingoak edo Estatu-ko segurtasun indar eta kidegoek arrisku egoera baloratuko dute, protokolo bidez zehaztuta dagoenari jarraituz. Balorazio horretan oinarriturik, eta Estatu-ko segurtasun indar eta kidegoekin eta udaltzaingoen koordinaturik, Foruzaingoak bera-

riazko babes planak eta jarraipen eta koordinazio sistemak ezarriko ditu biktimak eraginkortasunez babestua direla bermatzeko.

2. Babes lanetan baliabide teknologikoak, zerbitzu polizialak eta emakumeen babesa eta babes neurri judizialen eraginkortasuna bermatzen duen beste edozein baliabide erabiliko dira.

Genero-indarkeriaren egoera batean edo hura jasateko arriskuan dauden emakumeentzako babeserako gailuek helburu hauek dituzte:

a) Lokalizazioa eta etengabeko komunikazioa erraztea.

b) Urrunetik berehalako arreta ematea.

c) Berehalako babes egokia ematea larrialdietan.

3. Babes neurriek helburu hauek izan behar dituzte: emakumeek indarkeria berriro ez jasatea eta askatasunez eta segurtasunez bizi ahal izan daitezen ahalbidetzea.

4. Estatuko segurtasun indar eta kidegoekin koordinaturik, Foruzaingoak zaindu eta kontrolatu beharko du organo judizialek biktima babesteko erabakitako neurriak zehatz betetzen direla. Horretarako, inputatuak edo kondenatuak zainduko ditu. Nafarroako Foru Komunitateko udaltzaingoek laguntza eman beharko diote Foruzaingoi organo judizialek erabakitako neurriak betetzen direla bermatzeko.

5. Emakumeen aurkako indarkeria ikertzeko eta indarkeria horren biktimei laguntza eta babesa emateko unitate espezializatuak eta delituen prebentziorako eta segurtasun publikoa mantentzeko unitate orokorrak koordinaturik arituko dira, indarkeriaren emakumezko balizko biktimei babes integral eta eraginkorra emateko.

62. artikulua. Babes eta jarraipen aginduen koordinazioa.

1. Justiziaren arloko eskumena duen departamentuaren menpean dagoen babes aginduen koordinaziorako guneak du Nafarroan ematen diren babes agindu guztien berri izateko ardura.

2. Justiziaren arloko eskumena duen departamentuak kasu bakoitzaren jarraipena egiten du, eta babes agindua duten emakumeekin harremanetan jarriko da haiek eskatzen dioten informazio guztia helarazteko eta laguntza- eta babes-zerbitzuen jarduketara antolatzeko.

VIII. TITULUA Laguntza juridikoa eta justiziara jotzea

I. KAPITULUA Laguntza juridiko espezializatua

63. artikulua. Laguntza juridiko espezializaturako eskubidea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bermatuko du emakumeen aurkako indarkeria motaren baten biktima diren emakume guztiek abokatu baten laguntza dutela salaketa jarri baino lehen eta prozedura judizial eta administratibo guztien iraunaldi osoan. Orobat, bermatuko du laguntza hori ematen duten profesionalak espezialistak izatea.

2. Eskubideak barne hartuko du akusazio-akzioa baliatzea izaera horretako delituengatik instruitzen diren prozedura guztietan, bai eta falta-judizioetan abokatu baten laguntza izatea ere. Eskubideak abokatu baten laguntza ere barne hartuko du, ezkontza edo izatezko bikotea haustearekin zerikusia duten prozesu zibiletan, eta gurasoen eta seme-alaben arteko harremanen gaineko neurriak eta babes neurri zibilak ere bai.

3. Era berean, abokatu-laguntzaren barnean jasotako zeregina izanen dira delituaren ondorioz legeak aitortutako eskubideak Administrazio Publikoari erreklamatzeko prozedurak.

4. Bermatu eginen da abokatu beraren zuzendaritzapekoa izatea biktimaren defentsa juridikoa, jasandako indarkeria-egintzaren ondoriozko prozesu guztietan.

5. Biktima hil egin bada, oinordek izanen dute doako laguntza juridikorako eskubidea, kaltetuak diren aldetik, edo beraien legezko ordezkariak, ezgai badira.

6. Artikulu honen ondorioetarako, oinarrizko legerian doako justiziari buruz xedatutakoa hartuko da kontuan.

64. artikulua. Zerbitzu-ematea eta kalitate profesionala.

1. Nafarroako abokatuen elkargo profesionalekin ituntzen ahalko da laguntza juridiko espezializatuaren zerbitzua. Nolanahi ere, ofiziozko txanda bat osatuko da emakumeen aurkako indarkeriaren arloko espezialista batzuekin, zeinak arduratuko baitira foru lege honetan aurreikusitako indarkeria motaren baten biktima izan diren emakumeen abokatu-laguntzaz eta -ordezkaritzaz.

2. Zerbitzu hori ematen duen erakundeak bermatu beharko du txanda hori osatzen dutenen kalitate profesionala. Horretarako, derrigorrezko

prestakuntza eta kalitate kontrol batzuk ezarriko ditu.

Txanda horri atxikitzen zaizkionek derrigorrez gainditu beharko dituzte hasierako eta etengabeko prestakuntza ikastaroak arlo hauetan: kasu horietarako beharrezkoak diren gai juridikoak, lana genero ikuspuntutik egitea eta biktimen beharriak.

Zerbitzu hori ematen duen erakundeak sistema bat izan beharko du gauzatutako jardun profesionala ebaluatzeko, biziraun duten emakumeek jaso duten arretarekin duten gogobetetasun-maila izatzeko bide eskuragarri bat barne.

3. Indarkeria jasaten duten emakumeei akonpainamendua emanen zaie esparru judizialean, hala eskatzen badute.

4. Salaketa erretiratzearen kasuetan, bide egokiak ezarriko dira indarkeriaren biktima diren emakumeak laguntza zerbitzuetara bideratzeko.

II. KAPITULUA Babes judiziala

65. artikulua. Administrazioa pertsonatzea emakumeen aurkako indarkeria arrazoiengatik irekitako prozedura penaletan.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta toki entitateek prozedura penaletan pertsonatzea erabakitzen ahalko dute herri-akzioa egikaritzeko, emakumeen aurkako indarkeriaren kasu larrietan edo delitu ekintzaren ondorioz emakumea hiltzen denean, arlo zibilean kalteturiko alderdi gisa, Prozedura Kriminalari buruzko Legearen 110. artikuluan ezarritakoarekin bat.

2. Epaiketako ordezkari eta defentsa Nafarroako Gobernuari eta, kasua bada, toki entitateei dagozkie, ezertan galarazi gabe ordezkari eta defentsa eginkizun horiek jarduneko abokatu profesional bati edo batzuei esleitu ahal izatea, baldin eta jardunean egonik abokatuen elkargo bateko kide badira, autonomia erkidegoko Administrazioaren zerbitzu juridikoei buruzko araudiari jarraituz, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 447. artikuluan ezarritakoarekin bat.

III. KAPITULUA Especializazioa eta laguntza egokia esparru judizialean

66. artikulua. Esparru judizialeko funtzionarioen eta lan-kontratudunen especializazioa.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, Justizia Departamentuak proposaturik:

1. Bereziki bermatuko du emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegietako langile guztien hasierako eta etengabeko prestakuntza, salbu epaileena, fiskalena eta idazkari judizialena. Orobat, bultzatuko du prestakuntza egokia jaso dezaten emakumeen eta nesken kontrako bestelako indarkeria motengatik irekitako prozedurak tramitatzear arduratzen diren epaitegietako langileek.

2. Bermatu egingen du hasierako eta etengabeko prestakuntza izan dezatela emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiei eta forentse-balorazio integralerako unitateetako profesionalen laguntza ematen dieten talde psikosozialek.

3. Ezarri egingen ditu Delituaren Biktimei Laguntza emateko Bulegoko langileen prestakuntza betekizunak, emakumeen aurkako edozein indarkeria motaren biktimei laguntza emateko.

67. artikulua. Laguntza ematea fiskalen eta epaileen prestakuntzan.

Nafarroako Foru Komunitateak lankidetzeta hiztarmenak sinatuko ditu justizia arloko eskumenak dituzten organoekin, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean diharduten epaile eta fiskalei prestakuntza emateko foru legeei eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloko baliabideei buruz.

68. artikulua. Segurtasunerako neurriak prozedura judizialean.

1. Foru Administrazioak neurri egokiak ezarriko ditu Nafarroako emakumearen aurkako indarkeriaren arloko eta beste arloetako epaitegien ekipamendu eta baliabide materialei buruz, prozesu judizialean biktimak eta lekukoak babesteko eta birbiktimizazioa saihesteko.

2. Arlo horretako eskumenak dituzten epaitegiek behar diren guneak eta baliabide teknologikoak izanen dituzte emakumearen aurkako indarkeriaren arloko prozedura judizialean biktimen segurtasuna mantentzeko eta biktima eta inputatua edo akusatua aurrez aurre egon ez daitezen.

69. artikulua. Interpreteta izateko eskubidea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bermatu egingen du zentzumen desgaitasunak dituzten emakumeek eta bertako hizkuntza ez dakiten emakumezko atzerritarrek zentzuzko denbora-tarte batean interprete baten laguntza izan dezaten, emakumeek informaziorako eta komunikaziorako duten eskubidea bermatze aldera prozedura judizialaren fase guztietan.

IX. TITULUA Erreparazioa

70. artikulua. Erreparaziorako eskubidearen heina, norbanakoari dagokionez.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, berehalako erreparazio egokiaren bidez, ondokoa bermatuko die indarkeriatik ateratzeko prozesua burutzen duten emakumeei:

a) Abusuak berriz ez gertatzeko behar den babesa izatea, ppliziaren babesari buruzko tituluaren aurreikusitakoarekin bat.

b) Erabat oneratzeko behar diren tratamendu eta zerbitzuak izatea.

c) Behar den laguntza izatea jasandako kalteen araberrako erreparaziorako eskubideaz baliatze, bidezkoa denean.

71. artikulua. Erabat oneratzeko laguntzak eta berriz ez gertatzeko bermea.

1. Nafarroako Gobernuak behar diren baliabideak jarriko ditu indarkeriatik biziraun duten emakumeak erabat onera daitezzen, arretarako eta oneratzeko baliabideen sarearen bidez (V. tituluaren finkatzen da sare hori).

2. Biziraun duten emakumeek ez badute erantzun egokirik edo nahikorik aurkitzen aipatu sarean, indarkeriaren ondorio espezifikoa eta/edo larriak izateagatik, laguntza osagarriak jasotzen ahal dituzte behar dituzten osasun tratamenduak finantzatzeko. Laguntza horiek erregelamendu bidez arautzean, biktimaren egoera sozioekonomikoa hartuko da kontuan bereziki.

3. Bultzatu egingen da esku hartzeko baliabideak jartzea erasotzaileekin, indarkeriarik berriro ez gertatzeko helburua lortze aldera.

72. artikulua. Erreparaziorako eskubidearen heina, ikuspegi kolektibotik.

Omenaldiak eta hedapen publikoko ekintzak egingen dira emakumearen aurkako indarkeriaren kontrako konpromisoa eta biktimenganako eta biziraun dutenenganako begirunea sustatzeko. Ekintza horietan emakumeak birbiktimizatzea saihestuko da.

X. TITULUA Foru legea aplikatzeko bermeak

73. artikulua. Foru legea aplikatzeko bermeak.

Foru legea eraginkortasunez aplika dadin lortzeko, berme hauek ezartzen dira: prestakuntza, politika publikoen plangintza eta foru legearen jarraipena eta ebaluazioa.

74. artikulua. Etengabeko lanbide prestakuntza.

1. Foru lege honen aplikaziorako berme nagusi bat da indarkeriaren detekzioan eta arreta, babesa eta justizia emateko baliabideetan erantzukizun zuzena duten profesionalen prestakuntza.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, prestakuntzaren eta langileak hautatzeko baldintzen bidez, bermatuko du detekzioan eta arreta, babesa eta justizia ematen lan egiten duten profesional guztiei prestakuntza egoki eta homogeneoa ematen zaiela, foru lege honetan finkatutako printzipioen arabera lan egin dezaten.

Orobat, lege berri bat aldarrikatzen denean berriazko prestakuntza emanen zaie, modu horretan bermatzeko profesionalak legea eta haien betebeharrak berriak ezagutzen dituztela.

3. Foru lege hau onetsi eta urtebeteko epean Nafarroako Administrazio Publikoek, gaian adituak diren gobernu kanpoko erakundeekin eta profesionalen laguntzarekin, emakumeen aurkako indarkeriaren arloan berriazko prestakuntza programak diseinatuko dituzte, arlo honetan esku hartzen duten profesional guztien prestakuntza bermatzeko.

4. Elkargo profesionalak, sindikatuek, enpresaburuaren erakundeek eta administrazio publiko eskudunek bermatu behar dute artikulua honetan aipatzen diren berriazko prestakuntza eta trebakuntza sartuak direla prestakuntza programetan.

5. Prestakuntzaren parte bat dira indarkeriaren tratamenduan parte hartzen duten profesionalen laguntza eta arreta emateko programak, akidura eta neke profesionala prebenitu eta saihesteko.

75. artikulua. Ekintza plana eta plan sektorialak.

1. Foru lege hau onetsi eta urtebeteko epean Nafarroako Gobernuak foru legearen garapen orokorrerako ekintza plan bat egin eta onetsiko du. Eduki hauek izanen ditu gutxienez: aplikatzeko epea, lortu nahi diren helburuak, ekintza publikoaren eremu ezberdinetan hartu beharreko neurriak, gauzatzeko aurreikusi diren baliabide ekonomikoak, neurrien mailaz mailako ezarpena, erantzukizunaren esleipena eta adierazle sistema batean oinarritutako ebaluazio ekintzak.

2. Plana onetsi baino lehen jendaurreko tramieta egingen da, hilabete batez gutxienez, halatan profesionalak, eragile sozialek, emakume taldeek eta, oro har, indarkeriaren prebentzioan eta desagertapenean interesa duten pertsona guztiek

bidezkotzat jotzen dituzten ekarpen eta iradokizunak egin ditzaten.

3. Ekintza planeko ildoak oinarri hartuta, sei hilabeteko epean, plan sektorialak eginen dira ekintza sakonagoak ezartzeko, foru legea osorik aplikatze aldera legeak berak finkatzen dituen jarduketara esparru nagusietan. Gutxienez esparru hauetan eginen dira plan sektorialak: hezkuntza, osasuna, gizarte zerbitzuak, enplegua, berdintasuna, polizia eta justizia.

76. artikulua. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko zerbitzuen zorroa.

Foru lege hau indarrean sartzetik denetik urtebeteko epean, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko zerbitzuen zorro bat prestatuko da.

1. Zerbitzuen zorroak dira emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko sistema publikoko prestazioak ezartzeko tresna.

2. Zerbitzuen zorroan zehaztuko dira emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko sistema publikoak Nafarroako Foru Komunitateko lurralde osoan aplikatzekoak dituen prestazioak.

3. Foru lege honetan aurreikusitako eskubide eta prestazio guztiak, bai ekonomikoak, bai baliabideetakoak edota zerbitzuak, prestazio bermatuak izanen dira.

4. Prestazio bermatuak eskubide subjektibo gisa eskatu ahalko dira, zorroan bertan ezarritako moduan; bertan adieraziko da, halaber, horietako bakoitzaz baliatzeko baldintzak zein diren eta eskubide hori behin aitorturik zer epetan eskatu ahalko den Administrazioan, halako moduz non, Administrazioak ez badu erantzuten, administrazioarekiko auzi-jurisdikziora jo ahalko baita.

5. Kostuen azterketa ekonomikoak eta prestazioak finantzatzeko modua ere jaso beharko dira zorroan.

77. artikulua. Koordinazioa.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bultzatuko du foru lege honetako gaietan eskumenak dituzten instituzioen arteko koordinazioa, helburu hauek bermatzeko: legearen aplikazioaren jarraipena, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako ekintza planen eta neurrien prestaketa, urteko jarraipen txostenaren prestaketa eta foru lege hau aplikatzeko ekintza planen eta ekitaldi bakoitzeko aurrekontu legeetan urtero esleitzen zaien zenbatekoaren arteko egokitzapena.

78. artikulua. Urteko jarraipen txostena.

Nafarroako Gobernuak foru legearen aplikazioaren jarraipen txostena igorriko dio urtero Parlamentuari, nahitaezko eduki hauekin:

a) Foru Administrazioak jarritako giza baliabideak, bitarteko materialak eta ekonomikoak emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako eta indarkeria horren biktima diren emakumeak babesteko.

b) Gauzatutako prebentzio neurrien gaineko datuak eta detekziorako eta arreta integrala, babesa eta justizia emateko baliabideek artatutako emakumeen gaineko informazio kuantitatiboa.

c) Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan hasitako prozedura penalak, datu hauekin: zenbakia, prozedura penal mota, egotzitako delitu edo falta eta Foru Administrazioaren esku-hartzea prozedura horietan. Anonimotasunari eutsiko zaio, ukitutakoaren intimitatea errespetatzeko.

79. artikulua. Foru legearen eraginaren ebaluazioa.

Foru legea onetsi eta lau urteko epean ebaluatuko da planaren neurrien eragina. Ebaluazio hori lau urtean behin eginen da foru legeak indarra duen bitartean.

Lehenengo xedapen gehigarria. Aurrekontuko dirua.

Nafarroako Gobernuak behar diren kontusailak onetsiko ditu foru lege hau betetzeko garatuko diren neurriak gauzatzeko, ekintza planaren, plan sektorialen eta emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko zerbitzuen zorroaren arabera.

Bigarren xedapen gehigarria. Protokoloen derrigorrezkotasuna.

Foru lege honetan aipatzen diren protokolo guztiak derrigorrez bete beharrekoak izanen dira sinatzen dituzten erakunde, pertsona eta entitate publiko edo pribatu guztientzat.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Indargabetu egiten dira foru lege honetan xedatutakoari kontra egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak, eta bereziki 22/2002 Foru Legea, uztailearen 2koa, indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzkoa.

Azken xedapenetan lehena. Arauak emateko ahalmena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau aplikatu eta garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko martxoaren 26an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duena."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2015eko martxoaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENEA

Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea onetsi ondoren –urriaren 25eko 15/2010 Foru Legearen bidez partzialki aldatu zen gero–, bost urteko indarraldiaren ondoren, aurkitzen gara kidego bati, Nafarroako polizien kidegoari, egokituko zaion aldaketa bat egin beharrean, hain zuzen ere kidego hori bizirik dagoelako eta etengabeko bilakaeran dagoelako, gizarteak bizi dituen aldaketen ondorioz. Hori dela eta, beharrezkoa da kidego horren erregulazioa egokitzea.

Erreformaren xedea da, era berean, 15/2010 Foru Legean jasotako zenbait xedapen gauzatzea, horretarako legegintza-bultzada emanaz, eta barrenean sartuz negoziazio kolektiboan lortutako akordioak; izan ere, egungo egoera dela eta, litekeena da akordio horiek bertan behera uztea, langileek beren eginkizunari berezko zaizkion eskubideen aitortpena dela-eta lortutakoak ahaztuta.

8/2007 Foru Legearen egiturari eutsita, aldaketa honek kidegoen eta haiek osatzen dituzten kideen definizio hobea lortu nahi du, aintzat hartuta batera bizi direla horiek gure erkidegoan, bereki

gisa. Aldaketa horrek ez die eragiten, funtsean, Nafarroako polizia kidegoen izaerari eta eginkizunei, izaera zibileko kidego armatu diren aldetik, beren eginkizunetan ari direnean herritarren esku-bide eta askatasunen alde jarduten dutenak eta segurtasun publikoa ziurtatzen dutenak, haien arteko eta gainerako segurtasun indar eta kidegoekiko lankidetzaren egokia eta leialtasuna mantenduta.

Aldaketa horren xedea da, izenburuak dioten eta muinak nahi duen moduan, polizia-eginkizunak eta eginkizun horiek gauzatzen dituzten funtzionarioak arautzea. Horrek eginkizunak betetzeko antolamenduaren aldaketa ekarriko du, behartuko duena zerbitzu-ematearen plangintza egokiago eta efizienteagoa egitera, herritarren segurtasunaren murrizketarik gabe eta lehen urrats gisa, poliziaren garapen integral eta osorako erreferente izanen den polizia bat lortzeko bidean.

Era berean, aldaketak sartu dira tokiko polizia kidegoak sortzeko betekizunetan, eraginkorrak izan daitezkeen, kopurua eta populazioa kontuan hartuta. Kontuan hartu behar da, eginiko aldaketak gorabehera, prestatu ahal den tokiko mapa berrian polizia-antolamenduari buruz egiten den egokitzapena, buruz egiten diren aldaketak, beharrezkoak ez diren kontraesanak saiheste aldera.

Aldaketak egin dira bai kidego horietan sartzeko betekizunetan, bai igotzeko promozioan; hala, epaitegiek beste kidego batzuetarako ezarritakora gehiago egokitzen dira, eta kidego horietarako promoziorako lehen zeuden zenbait muga kentzen dira, eta horrekin Nafarroako polizia kidegoen arteko mugikortasun handiagoa, eta mugatua, ahalbidetzen da.

Ordainsariei buruzko zatia xehetasun handiz arautzen da. Araubidea egokitu egin da, kontzeptuei dagokienez, eta funtzionarioentzat, oro har, ezarritakoetara moldatu da. Halaber, portzentajeak ezarri dira haren aplikaziorako.

Lege-zehaztasun horren arrazoia da Gobernuak ez duela ezer egin 15/2010 Foru Legean jasotako agindua, kategoria bereko ordainsarietan dauden desberdintasunak murriztekoa, betetzeko, bai eta urteetan zehar lortutako akordio kolektibok errespetatzea ere; izan ere, ekonomikoki asalduzkoak diren garai hauetan ezabatuak izan daitezke, langileen eskubideekiko inolako begirunerik gabe.

Ordainsarien araubide berriak egoera ekonomikoarekiko errespetu osoa gordetzen du; izan ere, egiten dena da poliziari bere osotasunean esleitutako zenbatekoa hobeto banatzea, baina inolaz ere handitu gabe. Horri dagokionez, nabarmendu behar da kontuan hartzekoa dela gure polizia funtzionarioak direla okerren ordainduak, Estatuan jarduten duten autonomia erkidegoetako poliziaekin alderatuta, nahiz eta gizarterako eta segurtasun publikorako onurak berberak diren.

Ez da alde batera uzten haien lana aitortzearen eta pixkanaka haien homonimoekin parekatzearen xedea, baina ez da egungo egoeraren aurka arautzeko unea; bai, ordea, gure erkidegoan herritarrentzat eginkizun berberak betetzen dituzten artean ordainsari parekatuagoak dituen kidego bat izateko beharizanari erantzutekoa. Hori guztia egiten da lege batek egin behar duen moduan; hau da, oinarriak finkatzen dira, geroago Gobernuak bere aplikatze-ahalmenak erabil ditzan horien gainean.

Azkenik, diziplina-araubidea aldatu da, eta modu zehatzagoan arautu dira hutsegiteak, gainerako funtzionarioei aplikatzen zaien araubidearen antzera eta polizia eginkizunaren berezitasunetara egokituta, izaera zibila duten gainerako kidego armatuetan bezala. Horrela, dagoen araubidea hobetzen da, modu zehatzagoan finkatu ahal baitira aplikatzekoak diren tipo desberdinak, eta, aldi berean, berme gehiago ematen zaizkio kasu bakoitzean aplikatzekoak diren zehapenak ezartzeko prozedurari.

Artikulu bakarra. Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legearen aldaketa.

Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legearen honako agindu hauek testu hau izanen dute aurrerantzean:

Bat. 4. artikuluari p), q), r) eta s) letrak gehitzen zaizkio.

“p) Nafarroako polizien kidegoek uneoro beteko eta betearaziko dituzte Nazio Batuen giza eskubideen inguruko hitzarmen nagusiak, bai eta Nazio Batuek egindako legea betearazteaz arduratzen diren funtzionarioentzako adierazpen eta prin-

tzipio-multzo ugariak ere. Halaber, Nafarroan indarra duen antolamendu juridikoa bete eta betearaziko dute.

q) Nafarroako poliziek, beren eraketan eta jarduteko moduan, Poliziarentzako giza eskubideen arloko araudi eta jardunbidea onartuko dute. Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren Bulegoak aldarrikatutako agiria da, New Yorken eta Genevan 2003an sinatua eta poliziarentzat interes berezikoak diren giza eskubideei buruzko gaiak biltzen dituena; esate baterako, ikerketak, atxiloteta poliziala eta indarraren erabilera.

r) Atxiloturik dauden edo zaintzapean dituzten pertsonen bizia eta osotasun fisikoa begiratuko dute, eta haien ohorea eta duintasuna errespetatuko. Horretarako, polizia-etxeek, ziegek eta galdeketa-gelek bideo- eta soinu-sistemak eduki behar dituzte. Kasuko epaileek eskatu ahalko dituzte haien grabaketak, atxilotuek salaketarik aurkeztuz gero.

s) Nafarroako polizietako kideak diren agenteek ezin izanen dute aurpegia estali herritarren segurtasuneko kontuetan inplikaturako pertsonen errekerimenduak edo ohartarazpenak egiten dizkietenean, salbu eta erregelamendu bidez ezarritako kasuetan. Halaber, uneoro erakutsi beharko dute beren polizia-identifikazioa”

Bj. 5. bis artikulua sortzen da.

“5. bis artikulua. Herritarrekiko harremanak.

1. Nafarroako poliziek herritarrak artatzeko bulego bat edukiko dute, non, salaketak hartzeaz gainera, herritarren kexak eta eskariak ere jasoko dituzten. Bulego hori izanen da haiei erantzuteko erantzukizuna izanen duena.

Foruzaingoaren edozein polizia-etxetan salaketak, kexak eta polizia-zerbitzua hobetzeko iradokizunak aurkeztu ahalko dira.

Kexa eta iradokizun guztiak, haien erantzunak eta haien jarraipena erregistratuko dira, Nafarroako polizietan ezartzekoak diren ekintzak edo neurriak eskatu badira.

Segurtasun publikoaren arloan eskuduna den Departamentuari kexa eta iradokizunen eta haien erantzunen eta jarraipenaren berri emanen zaio, erregelamendu bidez ezatzen den moduan.

2. Herritarrekin harremanetan jarduteko eta herritarra artatzeko arauari buruzko eskuliburu edo prozedura bat garatuko da, eta polizia guztiek hura bete beharko dute”

Hiru. 5. ter artikulua sortzen da.

“5. ter artikulua. Nafarroako polizien arteko harremana.

1. Foruzaingoak zentralizatuko du tokiko polizientzako goranzko nahiz beheranzko polizia-informazio guztia.

Foruzaingoak udal bakoitzari emanen dio bere udalerriri buruz daukan informazio guztia.

Tokiko poliziek beren udalerriri buruzko polizia-informazio guztia emanen diote Foruzaingoiari.

2. Polizia-ikerketan diharduten tokiko poliziei babesa, informazioa edo beste edozein gisatako laguntza poliziala emateko eskari guztiak Foruzaingoaren bitartez eginen dira beti. Foruzaingoak, bidezkoa bada, eskari hori Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei bidaliko die.

3. Foruzaingoak lankidetzan jardunen du tokiko poliziekin, beharrezkoa denean haien zerbitzuak osatuz.”

Lau. 11. artikuluko 1. idatz-zatia.

“1. Nafarroako Foruzaingoko kideek, lanean dihardutela, uniforme jantziko dute beti. Organo eskudunak ezarriko du, arrazoiak emanda, zein unitatek edo kidegoko kideek beteko dituzten beren eginkizunak arauzko uniforme jantzi gabe, zerbitzuak halakorik eskatzen duenean. Herritarrek eskatzen dietenean, beren identitate profesionala erakutsiko dute, polizia-eginkizunetan ari direla.

Foruzaingoko buruak arauzko arma eramateko betebeharretik salbuetsi ahalko ditu uniforme daramatenak eta ez daramatenak, kasuko inguruabar berezien arabera.”

Bost. 11. artikuluari 3. idatz-zatia gehitzen zaio.

“3. Eremu mistoan eta eremu euskaldunean dauden Foruzaingoaren polizia-etxeei atxikitako polizien uniforme guztiek, bai eta ibilgailu eta instalazioek ere, errotulu elebidunak izanen dituzte, gaztelaniaz eta euskaraz, elementu horietako toki ikusgarrietan eta antzeko tamainako karakterrekin, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 28/1986 Foru Legean ezarritakoari jarraikiz.”

Sei. 17. artikuluko 1. idatz-zatia.

“1. Zazpi mila bizilagun eskubidedun edo gehiago dituzten Nafarroako udalek beren tokiko poliziak sortuko dituzte, salbu eta 4. idatz-zatian aipatzen den hitzarmena sinatzen badute.”

Zazpi. 19. artikuluko 1. idatz-zatia.

“1. Udaltzaingoa, albienteen kidegoa edo udal agenteen kidegoa duten toki entitateek edota hala-

ko kidegorik izan ez eta sortu behar dutenek zilegi izanen dute aldi baterako langileak kontratatzea, udaltzain laguntzailearen izenarekin eta araubide administratiboan, udaltzainen eginkizunen eraginkortasuna helburu, plantilla organikoari udaltzainen absentismoak edo aldi baterako hutsik dauden lanpostuen kopuruak eragiten dionean, lanpostu hutsak betetzeko edo segurtasun publikoaren arloan gertatzen diren salbuespenezko edo behin-behineko beharrei kasu egiteko.”

Zortzi. 19. artikuluko 4. idatz-zatia.

“4. Kontratazioa egiteko orduan, Nafarroako Segurtasun Eskolak berariaz ematen duen udaltzain laguntzailearen gaikuntza ez dutenak ezin izanen dira kontratatu udaltzain laguntzaile gisa aritzeko. Eskolak gaikuntza hori emanen die horretarako propio prestatzen dituen probak gainditzen dituztenei soilik. Gaikuntza lortzeko bi bide daude: Eskolak aldi behin egiten dituen deialdi publiko berariazkoak edo toki entitateak sustatzen duen hautapen prozesua.”

Bederatzi. 19. artikuluari 8. idatz-zatia gehitzen zaio.

“8. Tokiko poliziaren kidegorik ez duten toki entitateek, aparteko izaeraz, tokiko poliziako laguntzaileak kontratatu ahalko dituzte, udal agenteei laguntzeko, Nafarroako Gobernuo segurtasun publikoaren arloko departamentu eskudunak aurrez baimena emanda. Kontratazio horiek ezin izanen dira inolaz ere egin toki entitatean jardunean dagoen udal agenterik ez badago.”

Hamar. 21. artikuluari 3. idatz-zatia gehitzen zaio.

“3. Bi toki entitate desberdinetakoak izan eta tokiko polizia edo udal agente izaera duten bi funtzionario publikoren arteko permuta egin ahalko da. Permuta hori hauxe izanen da: beren borondatez destinoak elkarrekin trukatzeko, esku hartzen duten toki entitateek hori aurrez onetsita.

Tokiko poliziako agenteen edo laguntzaileen arteko permutarik izanez gero, lanpostua eremu euskaldunean edo mistoan eskatzen dutenek euskaraz badakitela egiaztatuko beharko dute, eskatutako destinoan jarduteko eskatzen baita.”

Hamaika. 24. artikuluko 1. idatz-zatia.

“1. Tokiko polizietako kideek, lanean dihardutela, uniforme jantziko dute beti. Toki entitateko alkateak edo buruak, edo hark eskuordetuta tokiko poliziaren kidegoko buruak, baimenduko ditu, arrazoiak emanda, zein unitatek edo kidegoko kideek beteko dituzten beren eginkizunak uniforme jantzi gabe, zerbitzuak horretara behartzen duenean.”

Hamabi. 24. artikuluko 3. idatz-zatia.

“3. Tokiko poliziako kideek, beren eginkizunetan dihardutela, Nafarroako Gobernuak erregelamendu bidez ezartzen dituen armak eramanen dituzte. Toki entitateko alkateak edo buruak, edo hark eskuordetuta tokiko poliziaren kidegoko buruak, ezarriko ditu, arrazoiak emanda, zein unitatek edo kidegoko kidek beteko dituzten beren eginkizunak arauzko arma eraman gabe, zerbitzuak horretara behartzen duenean.”

Hamahiru. 24. artikuluari 5. eta 6. idatz-zatiak gehitzen zaizkio.

“5. Nafarroaren errealitate elebiduna dela-eta, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen arabera eremu mistoan edo euskaldunean dauden tokiko poliziako agente eta laguntzaile guztien uniformeek errotulazio elebiduna izanen dute, gaztelaniaz eta euskaraz, biak ere uneoro ikusgarriak eta antzeko tamainako karakterekin.”

“6. Euskarari buruzko abenduaren 15eko 28/1986 Foru Legearen arabera eremu mistoan edo euskaldunean kokatutako tokiko poliziaren polizia-etxe eta instalazioek, bai eta eremu horietako polizia-etxeei atxikitako ibilgailu guztiek ere, errotulu elebidunak izanen dituzte, gaztelaniaz eta euskaraz, elementu horietako toki ikusgarrietan eta antzeko tamainako karakterekin.”

Hamalau. 29. artikuluko 1. idatz-zatia.

“1. Hautaprobak objektiboak izanen dira, eta izangaiak aurretiaz ezagutuko dituzte ebaluaziorako parametro teoriko eta praktikoak. Hautaprobetan sartuko dira, gutxienez ere, egoera fisikoari buruzko probak, eskatutako maila akademikoaren araberrako ezagutza-probak, euskararen ezagutza-mailari buruzko probak, indarreko legediarekin bat ezatzen diren hizkuntza eskakizunen arabera edo horiekin bat, eta proba psikoteknikoak. Ekipo berak egiten dizkie proba psikoteknikoak izangai guztiei, eta halako moduan egiten dira non diskrezioa ziurtatuko den eta, hortaz, ekipo ebaluatzaileak ez dituen ezagutuko gainontzeko proben emaitzak.”

Hamabost. 29. artikuluko 3. idatz-zatiari lerrokada bat gehitzen zaio, amaieran.

“Behin ikastaroaren berdintasuna edo baliokidetasuna egiaztatuta, proportzio bat kalkulatu da, bai haren puntuazio orokorrarena, bai hura osatzen duten atal bakoitzarena.”

Hamasei. 30. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letra.

“b) Gutxienez hemezortzi urte izatea.”

Hamazazpi. 30. artikuluko 1. idatz-zatiko e) letra kentzen da.

Hemezortzi. 30. artikuluko 2. idatz-zatia.

“2. Betebehar hauek eskabideak aurkezteko epea bukatu baino lehen bete behar dira, g) letra izan ezik, prestakuntza ikastaroan onarturiko hautagaien behin-behineko zerrenda argitaratzen den egunean bete beharko baita.”

Hemeretzi. 33. artikuluko 2. idatz-zatiari lerrokada bat gehitzea, amaieran.

“Txanda irekian betetzen ez diren postuak barne igoerako txandari gehituko zaizkio. Idatz-zati honetan ezarritakoa aplikatzeko, hiru lanpostu hutsetatik lehendabizikoa eta hirugarrena barne igoera txandakoak izanen dira eta bigarrena txanda irekikoa, kontuan hartuta betiere egindako azken deialdian betetako lanpostuak, eta behar den ordena korrelatiboari jarraituz hurrengoetan.”

Hogei. 34. artikuluko 1. idatz-zatia.

“34. artikulua. Inspektore-orde kategorian sartzea.

1. Inspektore-orde kategoriako deialdiko lanpostu hutsak kabo kategoria dutenen barne-igoeraren bidez beteko dira. Horretarako, oposizio-lehiaketa egiten da. Oposizio-lehiaketa horretan parte hartzeko, kabo kategorian gutxienez ere hiru urteko antzintasuna eskatuko da eta, orobat, erdi mailako ikasketa titulua. Titulurik ez edukiz gero, kategoria hartan bost urte baino gehiagoko antzintasuna izatea.

Halaber, gutxienez ere zazpi urteko antzintasuna eta eskatzen den erdi mailako titulazioa daukaten Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioek hartu ahal izanen dute parte.”

Hogeita bat. 35. artikulua.

“35. artikulua. Inspektore kategorian sartzea.

1. Inspektore kategoriako lanpostu hutsak inspektore-orde kategoria dutenen barne-igoeraren bidez beteko dira. Horretarako, oposizio-lehiaketa egiten da. Oposizio-lehiaketa horretan parte hartzeko, inspektore-orde kategorian gutxienez ere hiru urteko antzintasuna eskatuko da eta, orobat, erdi mailako ikasketa titulua. Titulurik ez badute, kategoria hartan bost urte baino gehiagoko antzintasuna izatea.

2. Aurreko idatz-zatian aipatzen diren lanpostu hutsak betetzeko deialdietan, polizia kidego bereko kideentzako barne igoerarako txanda bat ezarriko da, eta beste txanda bat gainerako lanpostu hutsekin, ezarriko betebeharrak betetzen dituzten

Nafarroako polizia kidego guztietako kideentzat irekia.

3. Txanda ireki horretan betetzen ez diren postuak barne igoerako txandari gehituko zaizkio.

4. Idatz-zati hau aplikatzeari dagokionez, lanpostuak 33. artikuluan ezarritakoaren arabera beteko dira.

5. Administrazio publikoek lanpostu hutsen % 25, gehienez ere, erreserbatu ahalko dute, oposizio-lehiaketaren bidez, eskatzen den erdi mailako titulazioa izan eta polizia kidegoetan sartzeko gainerako betebeharrak betetzen dituzten izangaientzat. Txanda hori egiten denean, gai-zerrenda eta probak berariazkoak izan ahalko dira, eta dauden lanpostu hutsetatik txandarako erreserbatuko dira laugarrena, zortzigarrena, hamabigarrena, eta ondoz-ondokoak, eta gainerakoei 33. artikuluko araua aplikatuko zaie”

Hogeita bi. 36. artikulua.

“36. artikulua. Komisario kategorian sartzea.

1. Komisario kategoriako deialdiko lanpostu hutsak inspektore kategorian dutenen barne-igoeraren bidez beteko dira. Horretarako, oposizio-lehiaketa egingen da. Oposizio-lehiaketa horretan parte hartzeko, hiru urteko edo gehiagoko antzinatasuna eskatuko da inspektore kategorian, bai eta eskatutako goi mailako titulazioa ere. Halaber, gutxienez ere hamabi urteko antzinatasuna eta eskatzen den goi mailako titulazioa daukaten Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioek hartu ahal izanen dute parte.

2 Aurreko idatz-zatian aipatzen diren lanpostu hutsak betetzeko deialdietan, polizia kidego bereko kideentzako barne igoerarako txanda bat ezarriko da, eta beste txanda bat gainerako lanpostu hutsekin, ezarritako betebeharrak betetzen dituzten Nafarroako polizia kidego guztietako kideentzat irekia.

3. Txanda ireki horretan betetzen ez diren postuak barne igoerako txandari gehituko zaizkio. Idatz-zati hau aplikatzeari dagokionez, lanpostuak 33. artikuluan ezarritakoaren arabera beteko dira.

4. Lanpostu hutsak adjudikatzeko garaian, soilik haien % 20 bete ahal izanen dituzte Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioak izan eta inspektore kategorian ez daukatenean, betiere lanpostu hutsak betetzeko moduari buruz 33. artikuluan ezarritakoa errespetatuz”

Hogeita hiru. 37. artikulua.

“37. artikulua. Komisario nagusiaren kategorian sartzea.

1. Komisario nagusi kategoriako deialdiko lanpostu hutsak komisario kategorian dutenen barne-igoeraren bidez beteko dira. Horretarako, oposizio-lehiaketa egingen da. Oposizio-lehiaketa horretan parte hartzeko, eskatuko da gutxienez hiru urteko antzinatasuna izatea komisario kategorian, bai eta eskatutako goi mailako titulazioa ere.

2. Aurreko idatz-zatian aipatzen diren lanpostu hutsak betetzeko deialdietan, polizia kidego bereko kideentzako barne igoerarako txanda bat ezarriko da, eta beste txanda bat gainerako lanpostu hutsekin, ezarritako betebeharrak betetzen dituzten Nafarroako polizia kidego guztietako kideentzat irekia.

3. Txanda ireki horretan betetzen ez diren postuak barne igoerako txandari gehituko zaizkio.

4. Idatz-zati hau aplikatzeari dagokionez, lanpostu hutsak 33. artikuluan ezarritakoaren arabera beteko dira”

Hogeita lau. 38. artikuluko 2. idatz-zatia kentzen da.

Hogeita bost. 39. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatiak.

“2. Oposizio-lehiaketetako prozeduren oposizio fasean, gutxienez ere, honakoak sartuko dira: proba praktikoa eta ezagutzei buruzko proba baztertzailak egitea, eskatutako maila akademiakoaren araberrakoak eta lortu nahi den enpleguaren araberrakoak, eta plantilla organikoko lanpostuko hizkuntza profileen eskatzen den euskaren ezagutza-mailari buruzko probak, hori ziurtatzen duen titulaziorik aurkezten ez denean. Era berean, proba psikoteknikoak ere izanen dira, izangaiak lanpostuaren profil profesiografikoari zenbateraino egokitzen zaizkion neurtzeko. Proba psikoteknikoak ez dira baztertzailak izanen.

3. Kategoria-igoeraren lehiaketako prozedurek, 1. idatz-zatian ezarritakoaz gain, lortu nahi den lanpostuaren edukiari eta eginkizunei buruzko proba teoriko-praktiko baztertzaila bat izanen dute, gutxienez. Era berean, proba psikoteknikoak ere izan ditzakete, izangaiak lanpostuaren profil profesiografikoari zenbateraino egokitzen zaizkion neurtzeko. Proba psikoteknikoak ez dira baztertzailak izanen”

Hogeita sei. 39. artikuluko 5. idatz-zatia.

“5. Kategoria desberdinetara sartzeko hauta-probak objektiboak eta teoriko-praktikoak izanen dira, eta izangaiak aurretiaz ezagutuko dituzte ebaluaziorako parametroak”

Hogeita zazpi. 41. artikuluko 2. idatz-zatia.

“2. Praktiketara dauden funtzionarioek erregelamendu bidez ezartzen diren oinarrizko lansariak, familia-laguntza eta lansari osagarriak jasoko dituzte.”

Hogeita zortzi. 44. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatiak.

“2. Nafarroako polizia kidegoetako kideek Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioentzako igoera txandako prozeduretan parte hartzen ahalko dute, baina Nafarroako polizietan egiazki zortzi zerbitzu-urte ematen dituztenetik aurrera.

3. Nafarroako polizia kidegoetako partaideek kide diren administrazioko merezimenduen lehiaketetan eta lanpostuen leku-aldatzeetan parte hartu ahalko dute, Nafarroako polizien zerbitzuan zortzi urte eman badituzte.”

Hogeita bederatzia. 45. artikulua.

“45. artikulua. Destinoen banaketa.

1. Nafarroako Polizia kidegoen barruko destinoak betetzeko, merezimendu, antzintasun eta gaitasun printzipioak hartuko dira kontuan. Honakoak izanen dira sartzeko modalitateak: lehiaketa, zeina sistema arrunta baita, berariazko lehiaketa eta izendapen askea.

2. Berariazko lehiaketa erabili ahalko da berezitasunen bat edo profil jakinen bat eskatzen duten lanpostuak betetzeko.

Sistema horren bitartez sartzeko ezartzen diren hautaprobek objektiboak eta ez-baztertzailak izan beharko dute, eta izangaiek aurretik ezagutu beharko dituzte ebaluatuko diren parametroak.

3. Izendapen askea soilik erabiliko da bete beharreko lanpostuak berekin unitate organiko baten burutza badakar.

4. Funtzionario bat izendapen askeko sistemaren bitartez betetzen ari bada lanpostu bat, izendatu zuen organoak libreki kentzen ahalko du lanpostu horretatik. Hala gertatuz gero, utzi egingen dio zuzendaritza-karguari dagozkion osagarriak jasotzeari, eta, berehala, jatorrian esleituta zuen lanpostura itzuli beharko du. Horretarako, funtzionario guztiei jatorrizko lanpostu bat esleitu beharko zaie.

5. Plantilla organikoetan, polizia kidegoetako lanpostuak zerrendatuko dira, eta haietan ezarriko dira lanpostuak, behar bezala sailkaturik. Soilik honakoak aipatuko dira berariaz:

- a) Lanpostu bakoitza zein mailari atxikita dagoen.
- b) Lanpostuaren zenbakia eta izena.
- c) Zein unitate organikoren menpean dagoen.
- d) Zein egoitzatan edo herritan dagoen kokatuta.
- e) Zein kategoriatakoentzat erreserbatuta dagoen.
- f) Artikulu honetako 1. idatz-zatian aipaturiko lanpostuak betetzeko sistema.
- g) Lansari osagarriak.
- h) Bigarren jarduerako lanpostuak, erregelamendu bidez ezartzen direnak.
- i) Sartzeko moduak.

Foruzaingoaren plantilla organikoa eta haren aldaketak Nafarroako Gobernuak onetsiko ditu, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.”

Hogeita hamar. 47. artikuluko 1. idatz-zatia.

“1. Hauxe da bigarren jardueraren helburua: Nafarroako polizia kidegoetan jardunean dauden langileen eraginkortasuna bermatzea eta lanbide karrera denboraren joanean edo gaitasun fisiko edo psikikoak ustekabeen murriztean gertatzen diren aldaketetara egokitzeko modua ematea.”

Hogeita hamaika. 49. artikulua.

“49. artikulua. Araubide orokorra eta espezialitateak.

Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioen eskubide eta betebeharrak Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan ezarritakoak izanen dira, foru lege hau aplikatzearen ondoriozko berezitasunekin, hauekin batez ere:

- a) Zin egitea edo hitz ematea Konstituzioari, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoari eta legeei men eginen diela.
- b) Foru lege honen 4. artikuluan ezarritako oinarrizko jarduketa printzipioen ondoriozko egin-kizunak bete beharko dituzte, eta Segurtasun indar eta kidegoei buruzko martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoko 6. artikuluan aitortutako eskubideak izanen dituzte.
- c) Beren interesak defendatzeko aldera, sindikatuetan afiliatzeko eskubidea izanen dute eta, orobat, sindikatuetatik atera eta beste erakunde ba-

tzuk sortzeko, betiere askatasun sindikalari buruzko legediak ezarritako baldintzak betez gero.

d) Grebarako eskubidea Segurtasun Indar eta Kidegoentzat eskubide horren gainean ezarrita dauden xedapenen arabera erabiliko da.

e) Nafarroako polizia kidegoetako partaideek Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko gainerako langileentzat oro har ezartzen den lanaldi bera –urteko ordu zenbatekoari eta ordutegi araubideari dagokionez– izanen dute.

Oporraldiak, lizentziak eta baimenak hartzeko berriazko modua erregelamenduz zehaztuko da, eta hartan jasoko dira karguak berezko dituen jardura guztiak, eta kopuruan eta forman gainerako funtzionarioenen antzekoak izanen dira.

Hartara, urtea hasi aurretik organo eskudunak lan-egutegiak ezarriko ditu; haietan zehaztu ahal da lanaldia eguneko edo gaueko txandan izatea, eta guardia lokalizatuak nahiz bertan egotekoak ezarri ahal dira, bai eta jai-egunetan lan egin behar izatea ere. Egutegi horiei behar den publikitate emanen zaie.

Salbuespen gisa, eta larrialdi eta babes zibileko arrazoiak tarteko, egutegi horiek aldatu ahal dira, era arrazoituan. Aldaketa horiek idatziz jakinaraziko zaizkie interesdunei.

f) Bidezko ordainsaria jasotzeko eskubidea izanen dute; hartan, honakoak hartuk dira kontuan: prestakuntza-maila, bateraezintasunen araubidea, zerbitzu-arrazoiengatik eta egitekoen dedikazio eta arriskuarengatik mugikortasuna, eta lan-ordutegien eta haien egituratze bereziaren berriazkotasuna. Ordainsarien kontzeptuak eta zenbatekoak hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaizkio.

g) Beren eginkizunetan egindakoengatik erantzukizuna eskatzen zaien auzi guztietan, atxikita duen administrazio publikoko profesionalek laguntza emateko, ordezkatzeko eta aldezteko eskubidea izanen dute, Administrazioaren kontura, baldin eta, hasiera batean, foru lege honetako 4. artikuluan jasotzen diren jardunaren oinarritzko printzipioen arabera direla uste bada.

Halaber, eskubide hori funtzionarioen edo haien senideen interes zilegien defentsa juridikora hedatuko da, delituren batean gertatutako heriotza kasuan, baldin eta polizia izatearen ondorioz izan bada biktima.

Salbuespeneko kasuetan, kasuko administrazio publikoak ezin baldin badu zerbitzua bere bitartekoekin eman, baimena eman ahal da adminis-

trazio horretaz kanpoko bitartekoez baliatzeko, betiere haren kargura.

h) Polizia izatearekin lotutako kalte pertsonal edo materialak jasanez gero, erregelamenduz ezarriko den kalte-ordainen sistemaren onuradun izateko eskubidea izanen dute.

i) Nafarroako polizia kidegoetako kideek eskubidea dute urtean azterketa mediko bat egin dakien.

j) Eskubidea izanen dute haiek hautatutako legelari batek lagun diezaien, haien kargura betiere, haiek ukitzen dituzten diziplina-espedita edo aurretiazko informazio guztiak garatzen direnean.

k) Polizia eginkizunetan aritzeko eskatzen diren prestakuntza fisikoko baldintza berezietan eusteagatik –adinarean arabera egokituak, betiere– diru bidezko edo denbora bidezko ordain bat emanen da, zazpigarren xedapen gehigarrian ezarri bezala.”

Hogeita hamabi. 50. artikulua.

“50. artikulua. Ordainsariak.

1. Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioek ondoko kontzeptu hauei dagozkien ordainsariak jasoko dituzte, ez besterik:

A. Norberaren oinarritzko ordainsariak:

- a) Mailari dagokion hasierako soldata.
- b) Graduari dagokion ordainsaria.
- c) Antzinasun saria.

Norberaren oinarritzko ordainsariak eskuratuta eskubidea dira, funtzionario izaerari daxtekiona.

B. Ordainsari osagarriak:

- a) Berriazko osagarria.
- b) Lanpostuaren osagarria.
- c) Burutzaren osagarria.
- d) Txandakako lanaldiaren osagarria.
- e) Lanaldiaren luzapeneko osagarria.

f) Aldi baterako osagarri pertsonala bigarren jardueran aritzeagatik.

Lansari horiek dira esleituta dituen lanpostua betetzeagatik ordaina, eta, ondorioz, haiek jasotzeari utziko zaio lanpostua utzitakoan.

C. Bestelako ordainsariak:

- a) Zerbitzuan izandako gastuen kalte-ordaina.
- b) Egindako bidaien kalte-ordaina.

c) Bizilekua aldatzea dakarren nahitaezko lekualdatzeagatik ematen den kalte-ordaina.

d) Familia-laguntza, familia-unitateak sortutako gastuak jasoko dituen.

e) Aparteko orduen konpentsazioa; gaueko ordutegian edo jaiegunetan egiten direnena; bertan egoteko guardiak eta guardia lokalizatuak egiteagatik; langileak hautatzeko epaimahaietan parte hartzeagatik eta prestakuntza ikastaroak emateagatik.

2. Oinarrizko ordainsari pertsonalak eta artikulua honetako 1. idatz-zatiko C) letran adierazitakoak Nafarroako administrazio publikoen gainerako funtzionarioei oro har aplikatzekoak zaizkien arauen arabera antolatuko dira, betiere foru lege honetan ezartzen diren berezitasunak kontuan hartuta.”

Hogeita hamahiru. 51. artikulua.

“51. artikulua. Lansari osagarriak.

1. Berariazko osagarria Nafarroako polizia kidegoetako kide guztiei ordainduko zaie eta haren zenbatekoa kasuan kasuko mailari dagokion oinarritzko soldataren % 45 izanen da. Honako kontzeptuak bilduko ditu:

- a) Bateriaezintasun poliziala (% 35).
- b) Arrisku berezia (% 10).

Lanpostuak dedikazio eskusiboa eskatzen badu, berariazko osagarria kasuan kasuko mailaren hasierako soldataren % 65 izanen da. Porzentaje horren barruan, arrisku bereziari dagokion % 10 sartuta dago.

Nafarroako polizia kidegoetako inongo kidek ezin izanen ditu aldi berean jaso bateraezintasunaren osagarri hori eta dedikazio eskusiboko osagarria.

Dedikazio eskusiboko osagarria kobratzeak debekua dakar irabazizko inolako jarduerarik egiteko, hala sektore publikoan, nola pribatuan ere, non ez den irakasle lana unibertsitateko zentroetan, norberaren edo familiaren ondarea administrazioa, lan zientifiko eta teknikoak edo literatur eta arte lanak ekoizti eta sortzea, eztabaida eta programetan noizbehinka parte hartzea, ikastaro profesionaletan noizbehinka lagundu eta parte hartzea eta baimendurik dauden beste jarduerak batzuetan aritzea.

Bateraezintasunaren osagarria jasotzeak berekin dakar kasuko lanpostuari dagokion titulua lanbide-jardueraren debekua.

2. Lanpostuko osagarriaren bidez zailtasuna, dedikazioa eta erantzukizuna saritzen dira, bai eta eskatzen den prestakuntza tekniko berezia ere.

Halaber, diru-sari bat eman ahalko da prestakuntza fisikoan emandako denboragatik.

Foruzaingoan jaso beharreko gutxieneko kopurua mailari dagokion hasierako soldataren gaineko portzentaje bat izanen da. Honela xehakatu da kategorien arabera:

- a) Polizia: % 6.45
- b) Kaboa: % 17.
- c) Inspektoreordea: % 10.
- d) Inspektorea: % 17.
- e) Komisarioa: % 5.
- f) Komisario nagusia: % 17.

3. Burutzako osagarria izanen ahalko dute kategoria baten barrenean aginte lan berezia egin behar duten lanpostuek, eta horrela jasoko da plantilla organikoan. Kontzeptu horri dagokion saria ezin izanen da mailako hasierako soldataren % 10etik gorakoa izan.

4. Errotazio-txanden araberako araubidean lan egiten duten langileek –halakotzat ulerturik ordutegia lanaldien heren batean baino gehiagotan aldatu behar izatea dakartenak, hiru hilabetez behingo kontaketa orokorra eginda– dagokien taldeko hasierako soldataren % 6ko ordain ekonomikoa jasoko dute

5. Erregelamendu bidez lanaldiaren luzapeneko osagarri bat esleitu ahalko zaie orokorrean ezarritakoaz goragoko lanaldia izatera behartu ohi duten lanpostuei. Kontzeptu horrengatik zenbatekoa erregelamendu bidez finkatuko da, baina inoiz ere ezin izanen du gainditu kasuko mailako hasierako soldataren % 10.

6. Bigarren jardueran aritzeagatik ordaintzen den aldi baterako osagarri pertsonala foru lege honen 47.5 artikulua bigarren lerrokadan ezarritako kasuetan aplikatuko da. Horretarako baldintzak eta prozedura erregelamendu bidez finkatuko dira.

7. Lansari osagarrien gehieneko kopurua ez da izanen kasuko mailaren hasierako soldataren % 95etik gorakoa. Kategoria bereko lanpostu desberdinen artean kontzeptu horrengatik jasotako lansariaren gehieneko aldea % 7koa izanen da. Halaber, errespetatuko da, polizia kategoria desberdinetako lanpostu osagarria ezartzerakoan, Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuko A, B eta C mailen artean

ezarritako proportzionaltasun indizea C mailarako oinarritzat harturik polizia kategoria; B mailarako, inspektore-orde kategoria; eta A mailarako, komisario kategoria. Maila berean kategoria bat baino gehiago dagoenean, haien arteko proportzionaltasun bat ezarriko da, eta kontuan hartuko dira goragoko eta behegoko kategorien proportzionaltasun indizeak.

8. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Tokiko Poliziak Koordinatzeko Batzordeak adostasun txostena eman ondoren, erregelamendu bidez zehaztu ahalko ditu Nafarroako tokiko polizietako kideei ordaindu beharreko ordainsari osagarriak, foru lege honetako xedapenekin bat”

Hogeita hamalau. 57. artikulua.

“57. artikulua. Legezketasun eta erantzukizun printzipioak.

1. Nafarroako polizia kidegoetako langileak beren eginbeharrak ez betetzeagatik zehatuko dira bakar-bakarrik ez-betetze hori, foru lege honen arabera, diziiplina hutsegitea denean.

2. Diziiplina erantzukizunak ez du galarazten funtzionarioak izan dezakeen erantzukizun zibil edo penala.

3. Hutsegitea egitera bultzatzen dutenek eta hutsegitea onartzen duten nagusi hierarkikoek egileen erantzukizun berbera izanzen dute. Era berean, hutsegite larri edo oso larri bat estaltzen dutenek maila baxuagoko hutsegitea egingen dute.

Hutsegite larria edo oso larria dakarren egintza baten berri izanda, hierarkian gora dagoen nagusi eskudunari hori lehenbailehen ez jakinaraztea estalketatzat hartuko da.

4. Diziiplina erantzukizuna kasu hauetan iraungiko da: zehapena beteta, hilez gero, hutsegitea edo zehapena preskribatuta edo indultuaren edo amnistiaren ondorioz.

Amnistia edo zehapen administratiboaren indultua honela emanen dira:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren menpeko erakunde publikoetan, Nafarroako Gobernuak emanen ditu, Lehendakarietzako kontseilariak proposatuta.

b) Nafarroako toki entitateetan, udalaren osoko bilkurak emanen ditu.

Zehapen administratiboen indultu eta amnistien hedapena, eraginak eta baldintzak haiek emateko erabakietan zehaztuko dira.

5. Egitate berengatik zigor zehapena eta zehapen administratiboa ezarri ahalko dira soilik funts

juridikoak eta babestutako ondasun juridikoak identitate bera ez dutenean”

Hogeita hamabost. 58. artikulua.

“58. artikulua. Diziiplina hutsegiteen sailkapena eta preskripzioa.

1. Diziiplina hutsegiteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke. Hutsegite arinak hilabeteren buruan preskribatuko dira, larriak urtebeteren buruan eta oso larriak bi urteren buruan.

2. Hutsegiteen preskripzio epea hutsegitea egin denean hasten da kontatzen.

3. Preskripzioa diziiplina prozedura hasten denean etenen da”

Hogeita hamasei. 59. artikulua.

“59. artikulua. Hutsegite arinak.

Hauek dira hutsegite arinak:

1. Puntualtasun hutsegiteak, behin eta berriz gertatutakoak hil beraren barruan, justifikatutako arrazoirik gabe (hamabi hutsegite baino gehiago ez).

2. Behin huts egitea, hilabeteko epean, justifikatu gabeko arrazoirik gabe.

3. Lanaldia behin ez betetzea, hilabeteko epean, justifikatutako arrazoirik gabe.

4. Herritarrekiko, agintariekiko, nagusiekiko eta lankide edo menpekoekiko tratu-desegokitasunez jokatzeta.

5. Zerbitzuetako lokalak, instalazioak, ibilgailuak, materialak, dokumentazioa eta gainerako elementuak gaizki erabiltzea edo axolagabekeriak zaintzea, betiere arau-hauste larriagoa ez denean.

6. Nagusiei ez jakinaraztea, ezarritako bidetik, zerbitzuarekin lotutako edozein eskari, erreklamazio edo kexa, urgentzia kasuetan izan ezik, bai eta halakoak ez izapidetzea ere.

7. Lanean dihardutela edari alkoholdunak edatea.

8. Uniformeari eta agurrari buruzko arauak urratzea.

9. Lanbide kredentzialak bidezko arrazoi justifikaturik gabe erakustea.

10. Lanbide kredentzialak edo polizia-eginkizunetarako erabiltzen diren beste bitarteko edo baliabide batzuk desagertzeko, galtzeko, galtzeko edo lapurtzeko bidea ematea, aitzakiarik gabeko zabarkeriaren ondorioz.

11. Intsignia, domina edo bestelako bereizgarriak agerian eramatea, horretarako baimenik gabe, hutsegite larriagotzat jotzen ez bada.

12. Doluz egindako faltagatik epai irmoaren bidez kondenatua izatea, eginiko arau-hauste penalak zerbitzuarekin zerikusia duenean.

13. Foru lege honen 4. artikuluan ezarritako printzipioen ondoriozko eginbeharrak ez betetzea, betiere hutsegitea larria edo oso larria ez bada, eta, orobat, polizia lanari dagozkion eginbehar eta betebeharrak berandu iristea edo zabarkeriaz edo utzikieriaz jokatzeko, hutsegitea larriagotzat jotzen ez bada.”

Hogeita hamazazpi. 60. artikulua.

“60. artikulua. Hutsegite larriak.

Hauek dira hutsegite larriak:

1. Hamabi puntu altasun-hutsegite baino gehiago, hil berean, justifikatutako arrazoirik gabe.

2. Gehienez ere bost aldiz, hilabeteko epean, lanera ez joatea, justifikatutako arrazoirik gabe.

3. Gehienez ere bost aldiz, hilabeteko epean, lanaldia ez betetzea, justifikatutako arrazoirik gabe.

4. Herritar, agintari, nagusi, lankide edo menpekoekiko begirune falta larria, lanean jardutean.

5. Lokalen, materialaren edo zerbitzuarekin lotutako gainerako elementuen kontserbazioan kalte larriak eragitea, aitzakiarik gabeko zabarkeriaren ondorioz, edo haiek desagertzeko, galtzeko edo lapurtzeko bidea ematea.

6. Zerbitzuaren berezko arloetan nagusiek idatziz edo ahoz emandako aginduak ez betetzea, ordenamendu juridikoaren arau-hauste nabarmena ez badira.

7. Legeek ezarritako abstentzio-arrazoiren bat gertatzen denean, prozedura administratiboren batean parte hartzea.

8. Lanean dihardutela iskanbilak sortu edo horrelakoetan parte hartzea.

9. Lanbide-sekreturako betebeharra ez betetzea, hirugarrenak edo polizia-lanaren garapena kaltetzen ez direnean.

10. Beren eskurantzez gehiegikeriaz baliatzea, herritarren kaltean, hutsegite larriagotzat hartzen ez bada.

11. Zerbitzuari buruz txosten edo erabaki gezurrezko edo alderdikoiak egin edo hartzea, hutsegite larriagotzat hartzen ez bada.

12. Nagusiei ez jakinaraztea beren eginkizunetik lotuta dagoen eta haiek jakin beharko luketen edo lehenbailehen erabaki beharko luketen edozein kontu.

13. Arauzko armak erabiltzea haiek zerbitzuko jardunean edo zerbitzutik kanpo erabiltzeko arauak hautsiz, gauzei edo pertsoneri kalte egin gabe.

14. Doluz egindako delitu batengatik epai irmoaren bidez kondenatua izatea, eginiko arau-hauste penalak zerbitzuarekin zerikusia duenean eta arau-hauste oso larria ez denean.

15. Bakarka nahiz taldeka obediencia ukatzeko egintzak prestatzea.

16. Mozkortzea edota droga toxikoak, estupefazianteak edo substantzia psikoaktiboak kontsumitzea zerbitzuan ari dela edo zerbitzua betetzea mozkortuta edo nabarmenki aipatu substantzien eraginpean; halaber, egoera fisiko edo psikiko ez-ohikoan egonik, uko egitea bidezkoak diren egiaztapen teknikoak egiteari.

17. Esleitutako zerbitzuan ez egotea edo bertatik joatea justifikatutako arrazoirik gabe, nagusiari ez-egote hori jakinaraztea eragozten duen ezinbesteko arrazoi bat ez dagoenean.

18. Zerbitzuen eraginkortasunean eragina duen edo herritarrei kalte eragiten dien errendimendu falta agerikoa, errepikatua eta justifikaziorik gabea.

19. Batera ezintasunen gaineko araubidearen ez-betetzea.

20. Arauzko arma desagertzea, galtzea edo lapurtua izatea, aitzakiarik gabeko zabarkeriaren ondorioz.

21. Menpekoei galaraztea, mugatzea edo oztopatzea aitortuta dituzten eskubideez baliatzea, hutsegite oso larriagotzat ez bada jotzen.

22. Gertaera edo inguruabar larrietan lehenbailehen laguntzarik ez ematea, horretara beharturik egonez gero, eta delitutzat ez bada jotzen.

23. Polizia eginkizunetik heldu diren betebeharrak eta eginbeharrak ez betetzea zabarkeria larriaren ondorioz, halakoak modu larri eta agerikoan gertatzen direnean eta zerbitzuen funtzionamendu eraginkorra nahasten dutenean edo Administrazioari nahiz herritarrei kalteak eragiten dizkietenean.

24. Segurtasun kidego eta indarretako beste kide batzuekiko lankidetzat falta agerikoa.

25. Zerbitzuko eginkizunetan edo nahitaezkoa denean arauzko uniformeak, kategoria edo karguaren bereizgarriak, arauzko arma edo zehazten

diren babes- edo ekintza-baliabideak ez eramatea, horretarako baimenik ez bada eman edo justifikatutako arrazoi bat ez badago.

26. Uniformez jantzita joatea edozein manifestazio edo bilkura publikotara, non eta ez den zerbitzuko eginkizuna edo uniformez joatea egokitzat jotzen den edo baimenduta dagoen ekitaldi ofiziala.

27. Destino aldaketak eskatzea eta lortzea edozein ordainen truke, irabazi asmoz edota aldaketa horiek arautzen dituzten baldintzak faltasuta.

28. Segurtasun indar eta kidegoek toki publikoetan bideokamerak erabiltzeari buruzko legerian ezarritakoaren urraketak, hutsegite oso larritzat jotzen ez badira.

29. Lan arriskuen prebentziorako arauen urraketak, norberaren bizitza, osasuna edo integritate fisikoa, lankideena edo menpekoena arrisku larrian jartzen bada.

30. Zerbitzuarekin zerikusia duen edozein eskabide, erreklamazio edo kexa izapidetzeari uko egitea behin eta berriro, hutsegite arintzat ez bada jotzen.”

Hogeita hemezortzi. 61. artikulua.

“61. artikulua. Hutsegite oso larriak.

Hutsegite oso larriak izanen dira:

1. Hilabeteko epean lanera ez joatea bost aldiz baino gehiagotan, justifikatutako arrazoirik gabe.

2. Lanaldia ez betetzea, justifikatutako arrazoirik gabe, bost aldiz baino gehiagotan, hilabeteko epean.

3. Zerbitzuarekin zerikusia duen doluzko delitu batengatik zigortuta egotea epai irmoaren bidez, hiru urtetik gorako espetxeratze-zigorra.

4. Kargua dela-eta ezagutzen dituen aferetan, sekretu profesionala eta behar bezalako isilpea urratzea, poliziaren eginkizunei edo edonori kaltea eragiten zaienean.

5. Entitateen edo partikularren eskupekoak eskatu edo onartzea, emaniko zerbitzuengatik edo horiek eskertzeko.

6. Insubordinazio nabarmena, indibiduala nahiz kolektiboa.

7. Eginkizunetan ari dela, Nafarroako foru eraentzari zor zaion begirunea ez izatea eta Konsultazioari eta legeei ez men egitea.

8. Grebetan, haien ordezkotza ekintzetan edo hitzarturiko ekintzetan parte hartzea, zerbitzuen funtzionamendu normala galarazteko helburuarekin.

9. Neutraltasun edo independentzia politikoa urratzea, esleituriko ahalmenak edonolako edo edonongo hauteskundeetan erabiliz.

10. Herritarrei, menpekoei edo Administrazioari kalte larria eragiten dien agintekeria, bai eta zaintzapean dituen pertsonak gizalegez ez tratatzea, mesprextatuz, diskriminatuz edo laidotuz.

11. Arauzko armak zerbitzutik kanpo edo haiek erabiltzeari buruzko arauak hautsiz erakutsi edo erabiltzea, horren ondorioz gauzei edo pertsoneri kalte egiten bazaie edo alarma publikoa gertatu bada.

12. Sekretu ofizialak argitaratzea edo modu desegokian erabiltzea, sekretutzat jo badira alor horretako berariazko araudiari jarraikiz.

13. Arraza edo jatorri etnikoa, erlijioa edo usteak, ezgaitasuna, adina edo sexu-joera, sexua, hizkuntza, iritzia, jatorria, bizilekua edo bere egoera edo inguruabar pertsonal edo sozial dela-eta inolako bazterkeria egitea ekarri ahal duten jarduketak.

14. Sexu-jazarpena eta lan-jazarpena. Azken hau da behin eta berriro jazarpen psikologikoko edo etsaigoko ekintzak egitea zerbitzu-harreman baten esparruan.

15. Askatasun publikoak eta eskubide sindikalak erabiltzeko oztopo larriak jartzea.

16. Segurtasun indar eta kidegoek toki publikoetan bideokamerak erabiltzeari buruzko legerian arau-hauste oso larritzat jotzen diren urraketak.

17. Edozein eginbehar profesional ez betetzea, zerbitzu publikoen funtzionamendu egokia nabarmen eragotziz gero edo Administrazioari edo herritarrei kalte larriak eraginez gero edo pertsona edo ondasunentzat edo segurtasun publikoarentzat arrisku nabarmena sorraraziz gero.”

Hogeita hemeretzi. 62. artikulua.

“62. artikulua. Zehapenak.

1. Hutsegite arinek zehapen hauek jaso ditzaizkete:

a) Ohartarazpena.

b) Enplegu-soldaten etenaldia, egun batetik lau egunera bitartekoa, antzinasuna galdu gabe, ondorio guztietarako.

2. Hutsegite larriek zehapen hauek jaso ditzaizkete:

a) Beste lanpostu batera derrigorritan aldatzea, herriz aldatu gabe, eta kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik gabe.

b) Enplegu-soldaten etenaldia, bost egunetik hogeita hamarrera bitartekoa, antzintasuna galdu gabe, ondorio guztietarako.

c) Eginkizunen etenaldia, hiru hilabetez gehiezez.

3. Hutsegite oso larriek zehapen hauek jaso ditakete:

a) Eginkizunen etenaldia, hiru hilabetetik hiru urtera bitartekoa.

b) Zerbitzutik kentzea.

Eginkizunak eteteak funtzionario izaerari dagozkion eskubide guztiak galtzea ekarriko dio zehapena jaso duen funtzionarioari, zehaztuko den denborarako.

Zerbitzutik kentzeak funtzionario izaera galtzea ekarriko du berekin.

4. Zehatua gutxien kaltetzen duen moduan beteko dira zehapenak. Ondorio horietarako, enplegu-soldaten etenaldia honako proportzioaren arabera eginen da: benetan lan egindako lau egun eta zerbitzurik gabeko egun bat.

5. Ez dira zehapen gisa joko puntualtasunean atzeratzeagatik edo lanera arazoirik gabe ez etortzeagatik lansariei proportzioan eginiko murrizketak. Murrizketak zuzenean eginen dira eta beti.

6. Diziplina zehapenak espediente pertsonaletan jasoko dira, zer hutsegitek eragin dituzten adierazirik.

7. Zehapenak mailakatzeko kontuan hartuko dira, egite eta ez-egiteez gain, honakoak ere, proportzionaltasunaren printzipioarekin bat:

a) Erantzuleen asmoa eta faltaren izaera.

b) Zerbitzuen funtzionamendu egokian sortutako nahasmendua.

c) Administrazioari edo herritarrei eragindako kalte eta galerak.

d) Hutsegiteetan berrerortzea.

e) Hutsegitean edo ez-betetzean izandako parte-hartzearen maila.

f) Segurtasun publikoari begira izandako garrantzia.

g) Lanbide-historiala, inguruabar aringarri gisa.

8. Hutsegite oso larriengatiko zehapenek hiru urteren buruan preskribatuko dira, hutsegite larriek urtebeteren buruan eta arinek, berriz, hilabeteren buruan”

Berrogei. 65. artikulua.

“65. artikulua. Hutsegite larriak edo oso larriak ezartzeko prozedura.

1. Hutsegite larri edo oso larriengatiko diziplina espediente irekitzeko eskumena duen organoak behin-behineko etenaldia edo behin-behinekoz beste lanpostu batera atxikitzea erabaki dezake berariaz, kautelazko neurri gisa eta prebentzio izaeraz. Behin-behineko neurriak hartzeko ebazpena eman baino lehen, interesdunari entzunaldia emanen zaio, hiru egun baliodunetz. Nolanahi ere, behar bezala arazoitutako ohiz kanpoko presa edo arriskuko kasuetan, buruak edo komisario nagusiak arma eta kredentziala kendu ahalko dizkiote funtzionarioari kautelazko neurri gisa, eta organo horrek hiru egun balioduneko epean, gehiezez ere, berretsi beharko du erabaki hori.

2. Behin-behineko etenaldiak edo beste lanpostu bati behin-behinekoz atxikitzeak espedientaturik edo auzipeturik dagoen funtzionarioak arma, kredentziala eta uniforme behin-behinekoz galtzea ekar dezake, bai eta bere kidegoko instalazioetara baimenik gabe sartzeko debekua ere.

Beste lanpostu batera behin-behinekoz atxikitzeak, nolanahi ere, ez du berarekin ekarriko ez destinoko herria aldatzea, ez inongo lansari-galerarik.

Kautelazko neurri eutsi edo horiek bertan behera uzteari buruzko ebazpena ematerakoan, egindakoen larritasuna baloratuko da, bai eta kasu bakoitzaren inguruabar zehatzak eta espedientaturiko funtzionarioaren espediente pertsonala ere. Kautelazko neurriak ezarri edo luzatzea erabakitzeko duen ebazpena arazoitua izan beharko da.

3. Kautelazko neurri horiek hilabeterako erabaki ahalko dira, eta epe hori beste hilabetez luzatu ahalko da, sei hilabete egin arte gehiezez.

4. Behin-behineko etenaldian dauden funtzionarioek eskubidea izanen dute, soilik, beren mailako hasierako soldatari, graduari, antzintasuneko sariari eta familia laguntzari dagozkien lansariak jasotzeko. Behin-behineko etenaldiaren denbora kontuan hartuko da eginkizunen etenaldiaren zehapena betetzearen ondorioetarako, zehapen hori ezartzen bada. Behin-behineko etenaldia irmo bilakatzen ez bada, funtzionarioari kendu zaizkion eskubide guztiak aitortuko zaizkio.

5. Hutsegite larri edo oso larriengatiko zehapen espediente hasi baino lehen, diziplina espediente irekitzeko eskumena duen organoak, gertaerak argitze aldera, aurretiazko informazioaldi bat irekitzeko agindu ahalko du, kasu zehatzaren zer-nola-koak ikertu eta prozedura abiaraztea komeni

behar den ala ez den erabakitzeke. Zilegi izanen da aurretiazko informazioaldi hori erreserbatua izatea, eta ez du hilabete batetik goiti iraunen, non eta espresuki erabakitzen ez den beste epe jakin baterako edo batzuetarako luzatzea. Idatz-zati honetan aipatzen diren aurretiazko jarduketek zehapen prozedura ez dute irekitzat harraraziko.

6. Diziiplina espedientea irekitzeko eskumena duen organoak hala ebazirik irekiko da prozedura, dela norberaren ekimenez dela menpekoen mozio arrazoituaren ondorioz edo salaketaren ondorioz. Salaketa anonimo hutsa ez da aintzat hartuko, ezta arestian aipatutako aukerako informazio erreserbatua gauzatzeko ere. Diziiplina espedientea hasten duen ebazpenak egintzetarako instrukzio-egilea izendatuko du eta ustezko arau-hausleari jakinaraziko zaio eta, salatzaileak izan bada, hari ere bai. Funtzionario edo kontratudun bat izendatuko da instrukzio-egile, hautapen prozeduran zuzenbideko lizentziatuaren titulua eskatu zaienetako bat hain zuzen. Ustez larriak diren hutsegiteen kasuan, polizia kidegoko kide bat izendatu ahalko da horretarako; pertsona horrek onartu egin beharko du, abstentziorako arrazoirik ez badago.

Bai alde zuzeneko informazioetan, bai diziiplina prozeduran, funtzionarioak legelari baten laguntza eduki ahalko du, eta errekusatzea sustatu ahalko du prozeduraren izapidetzearen edozein unetan. Errekusatzearen gaineko ebazpenen aurka ezin izanen da errekurtsorik aurkeztu; hala ere, prozedura amaitzen duen egintzaren aurkako errekurtsioa aurkeztean, alega daiteke errekusatzea.

Nolanahi ere, eta lehenengo jarduketa gisa, instrukzio-egileak deklarazioa hartuko dio ustezko inkulpatuari, hura nor den finkatuta badago, eta menpekoen mozio arrazoitutik edo espedientea irekitzea eragin duen salaketatik eta deklarazioan alegatutakotik ondorioztatzen diren diligentziak egiten ditu.

7. Instrukzio-egileak karguen plegu bat idatziko du, zehapen proposamena eta guzti, eta ustezko arau-hausleari jakinaraziko zaio. Hark hamar egun balioduneko epea izanen du bere eskubideen alde bidezko iruditzen zaizkion alegazioak egiteko eta datuak, informazioak edo dokumentuak aurkezteko, bai eta kasurako iruditzen zaion froga proposatzeko.

Karguen pleguan beti honako jakingaiak ezarriko dira derrigorrez:

a) Ustezko arau-hausleen identifikazioa.

b) Egotzitako egitateak, arau-hausteak tipifikatzeko eta zehapenak mailakatzeko garrantzia dutenak nabarmendurik.

c) Ustezko arau-haustea, zehazturik zein den edo zein diren hautsitako araua edo arauak.

d) Zehapenik zilegi bada, zein den.

e) Zein organok duen prozedura ebazteko eskumena eta zein arauk ematen dion eskumen hori.

8. Espedientatuak bere borondatez aitortzen badu erantzulea dela, instrukzio-egileak organo eskudunari igorriko dio espedientea, ebazpena eman dezan, ezertan galarazi gabe izapidetzen segitzea, iruzur egitearen edo beste pertsona edo entitate batzuk estaltzearen susmo arrazoizkorik badago, edo prozedura hasteak sortu duen kontua orenen interesekoa bada.

9. Kargu-orriari erantzunda edo erantzun hori emateko epea iraganda, ofizioz edo ustezko arau-hausleak eskatuta, behar adina frogak egin edo onartuko dira, gertatutakoak eta ustezko erantzukizunak finkatzeko. Gertaerekin duten loturagatik azken ebazpena ustezko arau-hauslearen alde aldatu ezin duten frogak soilik ukatu ahalko dira. Froga-aldiaren epea ez da hogeita hamar eguneko baina luzeagoa eta hamabost eguneko baina laburragoa izanen. Hala eta guztiz ere, instrukzio-egileak beharrezkotzat jotzen badu, epe hori luzatu ahalko du, aparteko izaeraz eta arrazoiak emanda. Froga-aldiaren irekitzea prozedura zein funtzionarioaren kontra ari den izapidetzen, hari jakinaraziko zaio.

10. Alegazioak aurkezteko aurreikusitako epea iraganik, frogarik egin behar bada frogak eginik, eta beharrezko irizten zaien eginbideak egin ondoren ere, instrukzio-egileak ebazpen-proposamena emanen du. Bertan egintzak finkatuko dira zehaztasunez, –karguen pleguan jasotakoekin eta eginitako frogekin bat etorriko dira–, frogen balorazio juridikoa egiten da, eginiko hutsegitea zehazte aldera, eta funtzionario arduraduna nor den adieraziko da. Halaber, bidezkotzat jotzen den zehapena adieraziko da, edota espedientea artxibatzea proposatuko da.

Proposamena interesdunei jakinaraziko zaie, hamar eguneko epean beren defentsan egokitzen jotzen dutena alegatu ahal dezaten.

Interesdunari entzun edo epea inongo alegaziorik gabe iragan ondoren, instrukzio-egileak kasuko langile-batzordeari helaraziko dio espedientea, edo, kasua bada, langileen ordezkariari, hamar eguneko epean eman dezaten Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen

Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko 82.5.b) artikuluan aipatzen den txostena.

Behin txostena jasota, edo epea txostenik eman gabe iragaten bada, instrukzio-egileak espedientea igorriko dio prozeduraren hasiera erabaki duen organoari, azken horrek, espedienteaztertuta eta, kasua bada, egokituz jotzen dituen jarduketara osagarriak eginda, dagokion ebazpena eman dezan, horretarako eskumenik baldin badu. Hala ez bada, organo horrek espedienteaztertuta dio ebazteko eskuduna denari.

11. Diziiplina-prozedura amaituko da organo eskudunak kasuko zehapena emateko ebazpena ematen duenean. Ebazpen hori, non espedienteaztertutako gai guztiak erabaki beharko diren, arrazoitua izan behar da, eta hartan ezin izan da onartu ez egitaterik, ez funtsik, kargu-orrirako eta ebazpen-proposamenerako oinarri gisa baliatu direnez bestelakorik, haien balorazio juridikoa desberdina izanda ere.

Halaber, diziiplina-prozedurari amaiera emanen dion ebazpenak erabateko zehaztasunez finkatu beharko du zein hutsegite egintzat hartzen den, zein xedapenetan jasota ageri den adierazita, hutsegite-mota, funtzionario arduraduna eta ezartzen den zehapena. Halaber, adierazpen espresua egiten da prozedura izapidetu bitartean hartu ahal izan diren behin-behineko neurriei buruz.

Ebazpenean erabakitzen bada ez dagoela diziiplina-hutsegiterik edo erantzukizunik errua egotzi zaion funtzionarioarentzat, egokia den adierazpena egiten da behin-behineko neurriei dagokienez.

12. Diziiplina prozedura ebazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izan da, espedienteaztertutako ebazpena eman zen egunetik hasita. Epe hori beste sei hilabetez luzatu ahal da, gehieneko epea.

Epe horiek igarotzen badira prozedura amaituko duen ebazpenik eman gabe, prozedura iraungi egiten da. Prozedura ez da iraungiko espedienteaztertutako erantzuleari egotz dakiokeen zergatik batengatik geldirik badago.

Berrogeita bat. 66. artikulua.

“66. artikulua. Hutsegite arinak.

1. Diziiplina espedienteaztertutako ireki eta hutsegite arinak ezartzeko eskumena honako hauena izan da:

a) Nafarroako Foruzaingoan, Foruzaingoko buruarena.

b) Udaltzaingoetan, udaltzaingoko buruarena.

2. Hutsegite arinengatik zehapenak ezartzeko prozedura laburtua hauxe izan da:

Funtzionario batek egintzaren bat hutsegite arina izan ahal balitz organo eskudunaren ustetan, horrek espedienteaztertutako irekiko du izan litezkeen diziiplina-erantzukizunak zehazte aldera.

Ustezko egintzaren berri salaketa bidez izan balitz, hierarkian gora dagoen nagusiak, espedienteaztertutako ireki aurretik, salaketa argitzeko datu osagarriak bilduko ditu, hiru eguneko epean, eta beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapenak egiten ditu eta, kasua bada, espedienteaztertutako irekitzeko.

Espedienteaztertutako ireki duen organo eskudunak berehala prestatuko du karguen plegua, zeinean jaso beharko baitira egotzitako gertaerak, ustez egiten den hutsegitea, errua egotzitako funtzionarioaren erantzukizuna eta foru lege honetan kasuko hutsegiterako aurrekusten den zehapena.

Karguen plegua inkulpatuari igorriko zaio, bost eguneko epean bere defentsarako bidezkotzat jotzen dituen alegazioak aurkez ditzan eta baliatu nahi dituen frogak proposa ditzan.

Espedienteaztertutako ireki duen organo eskudunak egokituz jotzen dituen froga-diligentziak bost eguneko epean egiten dira. Organo horrek, hala ere, beharrezkotzat jotzen badu, luzatu egin ahal du epe hori.

Frogarik proposatuko ez bada, edo proposatutakoa egin ondoren, organo eskudunak, zehapena ezartzeko eskumena izanez gero, ebazpena eman du hiru eguneko epean, eta, bestela, hurrengo egun baliodunean espedienteaztertutako irekiko dio horretarako eskumena duen organoari, zeinak dagokion ebazpena eman beharko baitu adierazitako epean.

Kapitulu honetan espresuki aurrekusten ez den orotan, hutsegite larri edo oso larrietarako prozeduran jasotako xedapenak aplikatuko dira modu osagarrian.

Berrogeita bi. Bosgarren xedapen gehigarria kentzen da.

Berrogeita hiru. Seigarren xedapen gehigarriari beste lerrokada bat gehitzen zaio.

“Halaber, udal agenteei aplikatzekoa izan daie foru lege honen 4, 29, 30, 39, 41 eta 41. artikuluetan ezarritakoa, bai eta IV. tituluko III. kapituluaren 7. eta 11. ataletan ezarritakoa ere.”

Berrogeita lau. Zazpigarren xedapen gehigarria.

“Zazpigarren xedapen gehigarria. Proba fisikoak.

Nafarroako polizia esleitutako eginkizunen izaerak eta haiek modu egokian betetzeak eskatzen du kidego horietako kideak sasoi onean egotea, eta horretarako beharrezkoa den prestakuntza lan-denboraren kontura egin behar da.

Prestakuntza horrek eskatzen duen ahalegin pertsonala saritze aldera, kasuko proba fisikoak gainditzeko dituzten Nafarroako foruzain guztiei aplikatuko zaie urteko 126 orduko konpentsazioa. Horretarako, urte bakoitzeko azken hiruhilekoan eginen da aipatu proba fisikoetarako deialdia, foru lege honen eranskinetan ezarritakoari jarraikiz. Halaber, deialdi nagusia egiten den urtearen hurrengoaren martxoan “gertakari proba” bat egiten da, salbuespenezko eta justifikatutako arrazoiak direla-eta hasiera batean ezarritako egunetan probak egiterik izan ez zuten pertsonentzat. Nafarroako Foruzaingo kideek proba fisikoak egiten ematen duten denbora benetan lan egindakotzat hartuko da.

Laneko istripua, gaixotasun profesionala, haurdunaldia edo amatasuna dela-eta proba fisikoak egiterik izan ez dutenek dagozkien orduak baliatzeko eskubidea sortuko dute, baldin eta proba fisikoak gainditu bazituzten lan istripua izan baino lehen edo lan gaixotasunagatiko, haurdunaldiagatiko edo amatasunagatiko baja hasi baino lehen parte hartu ahal izan zuten azken deialdian.

Ordu-kompentsazioa duten Nafarroako Foruzaingo kideek aukeratu ahalko dute, urte bakoitzeko irailaren 1a baino lehen, foru lege honen 51. artikuluan aurreikusitako sari ekonomikoa.

Proba fisikoak gainditzeagatiko sari ekonomikoa zein modutan eginen den erregelamendu bidez arautuko da, ezartzen diren baldintza eta prozeduraren bitartez. Bitartean, Nafarroako Foruzaingo kideen lanaldien, ordutegien eta ordainsarien Erregelamendua onesten duen urtarrilaren 10eko 1/2005 Foru Dekretuko 19.3 artikuluan ezarritako moduan ordainduko dira.

Proba fisikoak gainditzeagatiko konpentsaziorik ez duten Nafarroako polizia kidegoek, dagokien esparruan negoziatu ahalko dute konpentsazio horren aplikazioa, xedapen gehigarri honetan azaltzen den moduan, eta foru lege honen eranskinetan ezartzen diren baremoei jarraikiz.

Proba fisikoak gainditzeagatiko konpentsazioa duten Nafarroako gainerako polizia kidegoek,

probak mantenduko dituzte, foru lege honek indarra hartu arte zituzten baldintzetan.”

Berrogeita bost. Bederatzigarren xedapen gehigarria.

“Bederatzigarren xedapen gehigarria. Ordainsariak.

Nafarroako gainerako polizia kidegoak xedapen gehigarri honetan ezartzen duen arautuko ditu.

Nafarroako polizia kidego bakoitzean, gaur egun kidego horretarako kategoria desberdinetarako dauden osagarrien zenbateko osoa banatu egin behar da, foru lege honetan onetsitako ordainsari-sistemari jarraikiz, administrazio bakoitzaren aurrekontuei ordainsarien kontu-sailaren igoerarik ekarri gabe, eta foru lege honen 51.2 artikuluan Foruzaingoarentzat ezartzen diren jaso beharreko gutxieneko lanpostuko osagarriak helburutzat hartuz, kategoria bakoitzean.

Nafarroako polizia kidegoetan banaketa hori aplikatuz sortzen den lanpostuko osagarriari gehienez ere % 4ko jaitsiera aplikatu ahalko zaio, Nafarroako polizia kidego guztientzat osagarri berariazkoa oraingo % 41etik % 45era igotzearen ondorioz.

51.2 artikuluan aipatzen den gehieneko aldea, % 7koa, sindikatu eta ordezkariekin negoziatuko da, eta lanpostu bakoitzari eta haren berezitasunei buruzko azterlan bat egin ondoren ezarriko da, lanpostu horretara egokituta. Egun, ezin izanen dute ekarri zenbateko osoaren handitzea.”

Lehenengo xedapen gehigarria. Poliziako laguntzaileak tokiko polizia kidegoetan sartzea.

Poliziako laguntzaileak, lanpostu horretan gutxienez hiru urteko esperientzia badute, eta foru lege hau indarrean sartzen den unean kasuko udalaren zerbitzuan lanean ari badira, edota aurrerantzean egiten diren kontratazioengatik eta aipatutako esperientzia lortzen dutenean, sartuko dira jada sorturik dagoen tokiko poliziako kidegoan, albienteenean edo udal agenteenean, edota sortzen den kidegoan, foru lege hau indarrean sartu eta bi urteko epean. Horretarako, alde aurretik, oposizio-lehiaketa bat gainditu behar dute, eta deialdiak gehienez ere bi izanen dira.

Bigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legearen aldaketa.

Xedapen gehigarri bakarra eransten zaio, honako testuarekin:

“Xedapen gehigarri bakarra. Honakoak dira kirolaren arloko indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren esparruetan zehapenak ezartzeko eskumena duten Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio agintariak.

1. Kirolaren arloko indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legearen zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat, honakoak dira eskudunak:

Nafarroako Gobernuak, 360.000,01 eta 650.000 euro bitarteko isunak jartzeko.

Segurtasunaren arloko eskumenen titularra den departamentuko kontseilaria, 180.000,01 eta 360.000 euro bitarteko isunak jartzeko.

Segurtasunaren arloko eskumenen titularra den zuzendari nagusia, 150 eta 180.000 euro bitarteko isunak jartzeko.

2. Kirol ikuskizunak antolatzeke aldi baterako inhabilitazio zehapenak ezartzeko eskumena eta kirol barrutiak aldi baterako ixtekoa, segurtasunaren arloko eskumena esleituta daukan zuzendari nagusiari dagokio, baldin eta etete epea urtebetekoa edo laburragoa bada, eta, aldiz, segurtasunaren arloko eskumenen titularra den departamentuko kontseilariari, epe hori urtebetekoa baino luzeagoa baldin bada.

3. Kirolaren arloko indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako zehapen osagarriak ezartzeko eskumena kasuan kasuko zehapen organo eskudunari dagokio, ezertan ere kendu gabe aurreko idatz-zatian xedatutakoa, eta arau-hauste oso larriak ordeztzeko bada, Kirolaren arloko indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legearen 24. artikuluko 4. idatz-zatian xedatuaren arabera, segurtasunaren esparruko eskumena esleituta daukan zuzendari nagusiarena izanen da eskumena.”

Hirugarren xedapen gehigarria. Uniformeak eta ibilgailuak egokitzea.

Uniformeak eta ibilgailuak foru lege honetako 11. eta 24. artikuluetan ezarritakoari egokitzea modu progresibo eta etengabe egingen da, harik eta erabat egokitu arte; halatan, aurrekontuetan elementu horien mantentze, kontserbazio eta birjartze normalerako esleitzen diren baliabideak aplikatuko dira horretarako.

Laugarren xedapen gehigarria. Bideo- eta audio-sistemen instalazioa.

Foru lege hau indarrean sartzen denetik urtebeteko epean, beharrezkoak diren neurriak hartuko dira 4. artikuluko r) letran aurreikusitakoa betetzeko.

Xedapen iragankor bakarra. Lanpostuaren osagarria izoztea.

Etorkizuneko soldata igoeretan, eta foru lege honetako 51.2 artikuluan Nafarroako polizia kidegoetako kategoria desberdinen arteko proportzionaltasun indizeari buruz aurreikusitakoa gauzatu ahal izateko, polizia kategoria desberdinen artean lanpostu osagarria ezartzean, errespetatu egingen da abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 41. artikuluko Nafarroako administrazio publikoetako A, B eta C mailetako hasierako ordainsarietarako ezarritako proportzionaltasun indize bera.

Maila berean kategoria bat baino gehiago dagoenean, haien arteko proportzionaltasun bat ezarriko da, eta kontuan hartuko dira goragoko eta behegoko kategorien proportzionaltasun indizeak.

Nafarroako Foruzaingoaren kidegoan, gaur egun kidego horretarako kategoria desberdinetarako dauden osagarrietatik eratorritako zenbateko osoa, aipatu gutxieneko portzentajeak aplikatu ondoren, banatu egin beharko da, foru lege honetan onetsitako ordainsari-sistemari jarraikiz.

Lanpostu osagarriaren zenbatekoa, etorkizuneko soldata igoeretan, beharrezkoa den kategoria guztietan izoztuko da, arestian adierazitako proportzionaltasun indizea iritsi arte.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arau-indargabetzea.

Indarrak gabe gelditzen dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetan lehenengoa. Nafarroako tokiko polizia.

Foru lege honek indarra hartu eta bi urteko epean Nafarroako Gobernuak, aldez aurretik toki entitateei epea emanda kontsultetarako eta parte hartzeko, Nafarroako tokiko polizia buruzko foru lege proiektu bat ekarriko du Nafarroako Parlamentura.

Azken xedapenetako bigarrena. Ordainsariak eta lanaldien araubidea.

Nafarroako Gobernuak foru lege honetako artikuluetan jasotako irizpideetara egokituko ditu

Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioen ordainsariak eta lanaldien araubidea 2016ko urtarilaren 1eko datarekin.

Azken xedapenetako hirugarrena. Plantilla organikoa egokitzea.

Nafarroako Gobernuak, negoziazio kolektiboa gauzatu ostean, bere plantilla organikoak aldatu beharko ditu, bere polizia kidegoetako ordainsariak foru lege honetan jasotako araubidera egokitze aldera.

Azken xedapenetan laugarrena. Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuak, foru lege hau indarrean sartzen denetik urtebeteko epean, 4. artikuluko s) letran aurreikusitako erregelamendua onetsiko du.

Azken xedapenetan bosgarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

I. ERANSKINA

Proba fisikoak

Foruzaingoaren eginkizunak betetzeari begira egoera fisikoak duen garrantzia dela-eta, urteko 18 konpentsazio laneguneko saria ezarri da, agenteak bere prestakuntza fisikorako baliatzen duen denboraren zati bat itzultze aldera.

Proba horien helburua da poliziaren egoera fisiko orokorra baloratzea eta, hortik aurrera, egoera hori mantentzea edo hobetzea, beharrezkoa bada. Horretarako, lau taula prestatu dira, adinaren eta puntuazioaren arabera bereizten direnak eta ondoren zehazten diren kirol probekin lotura dutenak.

Gorputzaren beheko aldearen potentzia (jauzi bertikala)

Gorputzaren goiko aldearen potentzia (besoflexioak)

Erresistentzia aerobikoa (3.000 metro lauak edo (Ruffier-en testa)

Erresistentzia anaerobikoa (50 metro bultzadarekin)

Proba fisiko horiek gainditzeko, beharrezkoa izanen da lor daitezkeen 100 puntuetatik 42 eskuratzea, guztira. Ez da beharrezkoa izanen proba bakoitzean gutxienezko puntuazio bat lortzea. Azken puntuazioa emaitzen baturatik aterako da.

Tauletan ez denez ezartzen gizonezkoen eta emakumezkoen arteko bereizketarik, emakumeak kokatu beharko dira justu goragoko hirugarren adin-taldean. Adibidez, emakumezko izangai batek 20 urte baditu, 28 urtetik 30erako adin-taldean puntuatuko da.

JAUZI BERTIKALA

Hasierako posizioa: zutik, oinak elkarrekin arbel-aparatuaren aurrean, bi besoak gorantz luzatuta erabat (sorbalden lerroa plano horizontal berean), altuera markatuko da arbel-aparatuak gertuen dagoen besoko hatz-puntekin (klarionez blaituak egonen dira).

Exekuzioa: zangoak tolestuta, jauzi bertikala egingen da, eta lortutako altuera berria adieraziko da. Proba honetan lortutako marka izanen da jauziaren bidez lortutako altueraren eta hasieran hartutakoaren arteko aldea, zentimetrotan. Zilegi izanen da orpoak altzatzea eta zangoak mugitzea, betiere desplazamendurik gabe edota oin batek lurzoruarerako kontaktua erabat galdu gabe. Bi ahalegin jarraituetatik onena hartuko da kontuan.

Balioduna izanen da egokiagozat jotzen den beste edozein antzeko neurri.

BESO-FLEXIOAK

Hasierako posizioa: egileak, lurrean ahuspez e-tzanda, eskuak jarrera erosoenean jarriko ditu eta besoak lurrarekiko perpendikular mantenduko ditu.

Exekuzioa: posizio horretatik abiatuta, egileak ahalik eta beso-flexio eta -luzaketa gehien egingen ditu, denbora mugarik gabe, kontuan hartuta flexio-luzaketa bat egintzat joko dela kokotsarekin lurzorua ukitu eta hasierako posizioa itzultzen denean, denbora guztian sorbaldak, bizkarra eta zangoak luzapen batean mantenduta. Baliozkotzat joko dira aldi berekoak ez diren beso-flexio eta-luzaketa guztiak, kokotsa eta oin- eta hatz-puntak ez diren gorputzaren beste atalik lurzoruan ez bada bermatzen. Gehienez ere bost segundoko atsedena hartu ahalik da hasierako posizioan (besoak luzatuta).

Kokotsak lurzorua ukitzen duen gunea gehienez ere 6 zentimetroko bigungarritz estali ahalik da.

50 METRO BULTZADAREKIN

Egilea helmugatik 60 metrora dagoen lerroaren atzean jarriko da. Irteera-unea eta -abiadura nahierakoak izanen dira.

Kronometratzaileak eskuz jarriko du abian kronometroa, egilea erreferentzia puntura iristen denean (helmugatik 50 metrora egonen da; hau

da, irteeratik 10 metrora). 50 metroko distantzia ahalik eta denbora laburrenean bete behar da. Kronometroa eskuz geraraziko da helmuga gaindizten denean. Proba honen bidez, erresistentzia anaerobikoa neurtu nahi da eta ekidin nahi dira irteera faltsuak eta ihesaldiak, eta halaber, irteera-teknika hobetzea eta abar.

3000 METRO LAUAK

Hasierako posizioa: zutik, irteera-lerroaren atzean.

Exekuzioa: kronometrataleak "prest".. "ja!" aginduko du, eta orduan izangaiek ibilbideari ekinen diote, hiru mila metroak ahalik eta denbora laburrenean bete arte.

RUFFIER-EN TESTA

Hasierako posizioa: egilea, pultsometro bat duela, zutik jarriko da, zangoak sorbaldeen zabale-

raren arabera bereizita. Besoak aurretik gurutzatuta edo aurrerantz luzatuta izanen ditu, edo eskuak aldaken gainean bermatuko ditu.

Exekuzioa: "Ja!" esaten denean, 30 eserialdi-erdi egingen dira (belaunak 90º arte tolestu eta luzatu) 45 segundoan, erritmo etengabea, posizio orekatua mantenduz.

Pultsua hiru aldiz hartuko da.

P₁. Pultsu-hartzea, proba egin aurreko unean.

P₂. Pultsu-hartzea, proba amaitu bezain laster.

P₃. Pultsu-hartzea, proba egin eta minutu batera.

Ondoko formula aplikatuko da.

$$\text{Indizea} = \frac{P_1 + P_2 + P_3 - 200}{10}$$

II. ERANSKINA**JAUZI BERTIKALA. TAULA**

Adina/puntuak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25
18tik 21era	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	41	43	45	47	49	51	53	55	57	60	63	66	69	70	71
22tik 24ra	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	41	43	45	47	49	51	53	55	57	60	63	66	69	70
25etik 27ra	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	41	43	45	47	49	51	53	55	57	60	63	66	69
28tik 30era	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	41	43	45	47	49	51	53	55	57	60	63	66
31tik 33ra	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	41	43	45	47	49	51	53	55	57	60	63
34tik 36ra	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	41	43	45	47	50	52	54	56	58	60
37tik 39ra	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	41	43	45	47	50	52	54	56	58
40tik 42ra	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	41	43	45	47	50	52	54	56
43tik 45era	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	39	41	43	45	47	50	52	54
46tik 48ra	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	39	41	43	45	47	50	52
49tik 51ra	17	18	19	20	21	22	23	24	25	27	29	30	31	32	33	34	35	36	37	39	41	43	45	47	50
52tik 54ra	15	16	17	18	19	20	21	22	23	25	27	29	30	31	32	33	34	35	36	37	39	41	43	45	47
55etik 59ra	13	14	15	16	17	18	19	20	21	23	25	27	29	30	31	32	33	34	35	36	37	39	41	43	45
60tik 64ra	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	23	25	27	28	29	30	31	32	33	34	35	37	39	41	43

TAULAKO BALIOAK ZENTIMETROTAN ADIERAZTEN DIRA

BESO-FLEXIOAK. TAULA

Adina/puntuak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25
18tik 21era	9	10	12	14	16	18	19	20	22	24	26	28	30	32	34	36	38	40	42	44	46	48	50	52	54
22tik 24ra	8	9	10	12	14	15	16	17	19	22	24	26	28	30	32	34	36	38	40	42	44	46	48	50	52
25etik 27ra	7	8	10	11	12	13	14	16	18	20	22	24	26	28	30	32	34	36	38	40	42	44	46	48	50
28tik 30era	7	8	9	10	11	12	13	15	16	18	20	22	24	26	28	30	32	34	36	38	40	42	44	46	48
31tik 33ra	6	7	8	9	10	11	12	14	15	16	17	19	20	22	24	26	28	30	32	34	36	38	40	42	44
34tik 36ra	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	18	20	21	23	24	26	27	29	30	32	33	35	36	38
37tik 39ra	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29
40tik 42ra	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28
43tik 45era	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27
46tik 48ra	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26
49tik 51ra	1	2	3	4		5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24
52tik 54ra	1	2	3		4	5		6		7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22
55etik 59ra	1		2		3		4		5		6		7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19
60tik 64ra	1		2		3		4		5		6		7		8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18

TAULAN ADIERAZTEN DA ZENBAT ALDIZ FLEXIONATU BEHAR DIREN BESOAK

50 METRO BULTZADAREKIN. TAULA

Adina/puntuak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	
18tik 21era	9"3	9"2	9"1	9"	8"8	8"6	8"4	8"2	8"	7"8	7"6	7"5	7"3	7"1	7"	6"9	6"8	6"7	6"6	6"5	6"4	6"3	6"2	6"1	6"	
22tik 24ra	9"4	9"3	9"2	9"1	9"	8"8	8"6	8"4	8"2	8"	7"8	7"6	7"5	7"3	7"1	7"	6"9	6"8	6"7	6"6	6"5	6"4	6"3	6"2	6"1	
25etik 27ra	9"5	9"4	9"3	9"2	9"1	9"	8"8	8"6	8"4	8"2	8"	7"8	7"6	7"5	7"3	7"1	7"	6"9	6"8	6"7	6"6	6"5	6"4	6"3	6"2	
28tik 30era	9"6	9"5	9"4	9"3	9"2	9"1	9"	8"8	8"6	8"4	8"2	8"	7"8	7"6	7"5	7"3	7"1	7"	6"9	6"8	6"7	6"6	6"5	6"4	6"3	
31tik 33ra	9"7	9"6	9"5	9"4	9"3	9"2	9"1	9"	8"8	8"6	8"4	8"2	8"	7"8	7"6	7"5	7"3	7"1	7"	6"9	6"8	6"7	6"6	6"5	6"4	
34tik 36ra	9"8	9"7	9"6	9"5	9"4	9"3	9"2	9"1	9"	8"8	8"6	8"4	8"2	8"	7"8	7"6	7"5	7"3	7"1	7"	6"9	6"8	6"7	6"6	6"5	
37tik 39ra	9"9	9"8	9"7	9"6	9"5	9"4	9"3	9"2	9"1	9"	8"8	8"7	8"6	8"3	8"1	7"9	7"7	7"5	7"3	7"1	7"	6"9	6"8	6"7	6"6	
40tik 42ra	10"1	10"	9"9	9"8	9"7	9"6	9"5	9"4	9"3	9"2	9"1	9"	8"8	8"7	8"5	8"3	8"1	7"9	7"7	7"5	7"3	7"1	7"	6"9	6"8	
43tik 45era	10"4	10"3	10"2	10"1	10"	9"9	9"8	9"7	9"6	9"5	9"4	9"3	9"2	9"1	9"	8"8	8"7	8"5	8"3	8"1	7"9	7"7	7"5	7"3	7"1	
46tik 48ra	10"8	10"7	10"6	10"5	10"4	10"3	10"2	10"1	10"	9"9	9"8	9"7	9"6	9"5	9"4	9"3	9"2	9"1	9"	8"8	8"7	8"5	8"3	8"1	7"9	
49tik 51ra	11"3	11"2	11"1	11"	10"9	10"8	10"7	10"6	10"5	10"4	10"3	10"2	10"1	10"	9"8	9"7	9"6	9"5	9"4	9"3	9"2	9"1	9"	8"8	8"6	8"4
52tik 54ra	11"8	11"7	11"6	11"5	11"4	11"3	11"2	11"1	11"	10"9	10"8	10"7	10"6	10"5	10"4	10"3	10"1	10"	9"9	9"8	9"7	9"5	9"3	9"1	9"	
55etik 59ra	12"5	12"4	12"3	12"2	12"1	12"	11"9	11"8	11"7	11"6	11"5	11"4	11"3	11"2	11"1	11"	10"9	10"7	10"5	10"4	10"3	10"2	10"	9"8	9"7	
60tik 64ra	13"2	13"1	13"	12"9	12"8	12"7	12"6	12"5	12"4	12"3	12"2	12"	11"8	11"7	11"6	11"5	11"4	11"2	11"	10"9	10"8	10"7	10"5	10"3	10"2	

TAULAN SEGUNDOAK ETA HAMARREKOAK ADIERAZTEN DIRA

3000 METRO. TAULA

Adina/puntuak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25
18tik 21era	16:40	16:20	16'	15:40	15:20	15'	14:45	14:30	14:15	14'	13:45	13:30	13:15	13'	12:45	12:30	12:15	12'	11:45	11:30	11:15	11'	10:45	10:30	10:15
22tik 24ra	17'	16:40	16:20	16'	15:40	15:20	15'	14:45	14:30	14:15	14'	13:45	13:30	13:15	13'	12:45	12:30	12:15	12'	11:45	11:30	11:15	11'	10:45	10:30
25etik 27ra	17:30	17:15	17'	16:40	16:20	16'	15:40	15:20	15'	14:45	14:30	14:15	14'	13:45	13:30	13:15	13'	12:45	12:30	12:15	12'	11:45	11:30	11:15	11'
28tik 30era	17:45	17:30	17:15	17'	16:40	16:20	16'	15:40	15:20	15'	14:45	14:30	14:15	14'	13:45	13:30	13:15	13'	12:45	12:30	12:15	12'	11:45	11:30	11:15
31tik 33ra	18'	17:45	17:30	17:15	17'	16:40	16:20	16'	15:40	15:20	15'	14:45	14:30	14:15	14'	13:45	13:30	13:15	13'	12:45	12:30	12:15	12'	11:45	11:30
34tik 36ra	18:10	18'	17:45	17:30	17:15	17'	16:40	16:20	16'	15:40	15:20	15'	14:45	14:30	14:15	14'	13:45	13:30	13:15	13'	12:45	12:30	12:15	12'	11:45
37tik 39ra	18:30	18:20	18:10	18'	17:45	17:30	17:15	17'	16:45	16:30	16:15	16'	15:40	15:20	15'	14:45	14:30	14:15	14'	13:45	13:30	13:15	13'	12:45	12:30
40tik 42ra	18:50	18:40	18:30	18:20	18:10	18'	17:45	17:30	17:15	17'	16:45	16:30	16:15	16'	15:40	15:20	15'	14:45	14:30	14:15	14'	13:45	13:30	13:15	13'
43tik 45era	19:10	19'	18:50	18:40	18:30	18:20	18:10	18'	17:45	17:30	17:15	17'	16:45	16:30	16:15	16'	15:40	15:20	15'	14:45	14:30	14:15	14'	13:45	13:30
46tik 48ra	19:30	19:20	19:10	19'	18:50	18:40	18:30	18:20	18:10	18'	17:45	17:30	17:15	17'	16:45	16:30	16:15	16'	15:45	15:30	15:15	15'	14:45	14:30	14:15
49tik 51ra	20:30	20:20	20:10	20'	19:50	19:40	19:30	19:20	19:10	19'	18:50	18:40	18:30	18:15	18'	17:45	17:30	17:15	17'	16:45	16:30	16:15	16'	15:45	15:30
52tik 54ra	21:30	21:20	21:10	21'	20:50	20:40	20:30	20:20	20:10	20'	19:50	19:40	19:30	19:15	19'	18:45	18:30	18:15	18'	17:45	17:30	17:15	17'	16:45	16:30
55etik 59ra	22:30	22:20	22:10	22'	21:50	21:40	21:30	21:20	21:10	21'	20:50	20:40	20:30	20:15	20'	19:45	19:30	19:15	19'	18:45	18:30	18:15	18'	17:45	17:30
60tik 64ra	23:30	23:20	23:10	23'	22:50	22:40	22:30	22:20	22:10	22'	21:50	21:40	21:30	21:15	21'	20:45	20:30	20:15	20'	19:45	19:30	19:15	19'	18:45	18:30

TAULAN MINUTUAK ETA SEGUNDOAK ADIERAZTEN DIRA

RUFFIER-EN TESTA. TAULA

Adina/puntuak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25
55etik 59ra	24	24	23	22	21	20	18	16	14	12	10	9	8	7	6	5	4	3	2,5	2	1,65	1,2	0,8	0,4	0
60tik 64ra	25	25	24	23	22	21	20	18	16	14	12	10	9	8	7	6	5	4	3	2,5	2	1,5	1	0,5	0

Pultsua hiru aldiz hartuko da.

P₁. Pultsu-hartzea, proba egin aurreko unean.

P₂. Pultsu-hartzea, proba amaitu bezain laster.

P₃. Pultsu-hartzea, proba egin eta minutu batera.

Ondoko formula aplikatuko da.

$$\text{Indizea} = \frac{P_1 + P_2 + P_3 - 200}{10}$$

Foru Legea, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko martxoaren 26an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: “Foru Legea, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2015eko martxoaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa

1. artikulua. Foru legearen helburua.

1. Foru lege honen helburua da baliabide guztiak jartzea eskuin muturreko taldeen edo funtzionario publikoen indarkeriazko jardunak eragindako motibazio politikoko biktimak halakotzat hartuak izan daitezen, eta, beraz, dagozkien errekonozimendurako eta erreparazio integralerako eskubideen onuradun gisa.

2. Nafarroako Foru Komunitateko erakunde guztiak behar diren neurriak hartu behar dituzte honetarako:

a) Ahalik eta gehien argitu daitezen gertakariak, eta dauden kasuak modu egiazko eta koherentean dokumenta daitezen, gertatutakoaren egia finkatzea helburu.

b) Motibazio politikoko biktimei erreparazioa emateko eta haiek oneratzeko.

c) Saihesteko, ahal den neurrian, zigor-zuzenbidearen arloko inpuniate- eta frustrazio-sentimendua.

d) Indarkeriazko gertakariak gauzatu zituzten pertsonak, organizazioek edo erakundeek eragin zituzten kalteen aitorpena sustatzea.

e) Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean bildutako balioak sustatzeko.

f) Biktimen errekonozimendu instituzionala eta soziala sustatzeko.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Foru lege hau bideratuta dago pertsonen bizitzari edo osotasunari eragindako kalte larriei erreparazioa ematera, kalte larri horiek izan heriotza nahiz lesio larri edo iraunkorrak, 1950eko urtarillaren 1etik aurrerako motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan.

2. Foru lege hau aplikatuko zaie Nafarroan kalteak izan dituzten pertsona fisikoei edota, izaera politikoa nafarra izanda, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldetik kanpo, kalteren bat izan duten pertsona fisikoei, betiere Estatuko edo beste autonomia erkidego bateko erakundeek kalte berberengatik ez badiete ordainik eman.

3. Giza eskubideen aurkako eraso, atentatu edo urratze larritzat hartuko dira pertsonaren heriotza ondorio izan dutenak edota lesio larri edo iraunkorrak eragin dituztenak. Lesioen sailkapena gai horri buruzko legediaren arabera aplikatuko da.

4. Tortura eta tratu txar anker edo apalesgarri kontzeptuak interpretatuko dira Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurkako Nazio Batuen Konbentzioaren 1. artikuluaaren arabera eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera.

3. artikulua. Errekonozimendu eta Erreparazioarako Batzordea.

1. Errekonozimendu eta Erreparazioarako Batzordea osatuko dutenak izanen dira pertsona independenteak, prestigio sozial eta moral handikoak, eta Batzordeak zuzeneko eskumena izanen du gertakariak finkatzeko eta ikertzeko, nazioarteko tresna homologatuak oinarri hartuta, Istanbulen Protokoloa esaterako, eta zigor-arloko interferentzia orotik aparte. Egiletzari buruzko epai argigarririk ez badago, modu egiazko eta koherentean zehaztuko da gertatutakoa argituko duen interpretazio koherente bat, halako moduz non zehaztuko baita zer pertsona izanen diren foru lege honetan jasotako eskubideen onuradunak.

2. Batzordeak bederatzi kide izanen ditu; guztiak ere, trebakuntza eta esperientzia profesional askiko pertsona fisikoak. Batzordearen osakeran, gizonen eta emakumeen kopurua orekatua izateko ahalegina egingen da.

3. Batzordeko kideak arlo desberdinetako esparru tekniko, zientifiko eta espezializatuko pertsonak izanen dira, esate baterako zuzenbidearen, kriminologiaren, soziologiaren, psikologiaren edo giza eskubideen arlokoak, espezialitate horiek oinarri egin beharko baitira foru lege honetan aipagai diren egitateen gaineko ikerketak eta eman beharko baitira egitateok argitzeko datuak; pertsona horiek gaitasun frogatua badute beren lanbidean edo jardueran.

4. Batzordeko kidea izatea bateraezina izanen da beste edozein kargu politiko edo administratibotan aritzearekin Estatu Administrazio Orokorreran, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioan eta toki entitateetan, bai eta alderdi politiko eta sindikatuetan zuzendaritza-eginkizunak izatearekin ere.

5. Batzordeko kideak bost urterako hautatuko ditu Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak, bi hereneko gehiengoz. Kide horietako bat lehendakari izendatuko da hautatze-prozedura berean.

6. Batzordearen helburuak betetzearekin lotura duten entitate publiko eta pertsona pribatu guztiek eskatzen zaien laguntza eman beharko diote Batzordeari. Horri dagokionez, behar diren denboran eta moduan eman beharko dituzte eskatzen zaizkien datu guztiak nahiz teknikarien laguntza, eta, deituak badira, pertsonalki nahiz baimendutako ordezkari baten bitartez agertuko dira Batzordearen aurrean, informazio-eskakizunei zuzenean erantzuteko. Egokitzat jotzen dituen harremanak eduki ahalko ditu Batzordeak edozein agintarirekin nahiz agintzaritza-agenterekin; Batzordeak, halaber, informazioak trukatu ahalko ditu erakunde eta entitate publiko nahiz pribatuekin, bai eta haien laguntza jaso ere.

7. Urtero, Batzordeak oroitidazki bat prestatu eta argitaratuko du, non aditzera emanen baitu zer emaitza izan dituzten ikerketek, zer ezaugarri dituzten eskuratutako datuek, zer eskabide aurkeztu diren eta bestelako edozein datu, gertatutakoaren ezagutza zehatza eta erreala izaten lagunduko duena. Oroitidazki hori Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko da, dagokion batzordean.

8. Batzordearen erabakiak kideen gehiengoak hartuko ditu, boto partikularren arrazoiak eta zergatiak adierazita.

4. artikulua. Biktima-izaera onartzeko eskararak.

1. Foru lege honen arabera motibazio politikoko ekintzen biktima deklaratzeko egiten diren eskabideak Nafarroako Foru Komunitateko Administra-

zioaren departamentu eskudunari bidaliko zaizkio. Departamentu horrek Batzordeari helaraziko dio eskabidea, azter dezan. Batzordeak urtebeteko epea izanen du, eskabidea jasotzen duenetik, eskabidean planteatutakoari buruzko ebazpena emateko.

2. Eskabidean gertakarien deskribapen ahalik eta zehatzena eginen da, eta, horren frogagarri, agiriak ere aurkezten ahalko dira; hala ere, hori ez da eragozpen izanen Batzordeak egin beharrekoak egin ditzan gertakari horiek ikertzeko eta frogatzeko.

3. Behin gertakariak ikertuta, Batzordeak ebazpen-proposamen lotesle bat helaraziko dio departamentu eskudunari, onetsiz edo ezetsiz biktima-izaera onartzeko eskaera, departamentuak kasuko ebazpena eman dezan.

5. artikulua. Biktima deklaratzearen ondorioak.

1. Foru lege honen xedapenen arabera biktima deklaratuak diren pertsonak kalte-ordain ekonomikoak onartuak izanen dituzte kalte fisiko edo psikologikoengatik, edota kalte materialengatik ondusunetan, ohiko etxebizitzetan edo ibilgailuetan, edo alderdi politiko, erakunde sozial edo komunikabideen egoitzetan.

2. Horretarako, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legean eta lege hori garatzen duten arauetan xedatutakoari jarraituko zaio.

6. artikulua. Txostenak eta konklusioak.

1. Aurreko artikuluetan ezarritakoa gorabehera, Batzordearen agintaldia amaitzean, bost urtekoa izanen baita, Batzordeak bere jarduketari buruzko bi txosten orokor eginen ditu. Lehenbizikoak 1950eko urtarrilaren 2tik 1978ko abenduaren 28ra bitarteko epea hartuko du, eta bigarrenak, berriz, azken egun horretatik gaur egundainokoa. Txosten hauek Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko dira, eztabaidatu eta onesteko.

2. Txosten horrek honakoak jasoko ditu gutxienez:

a) Nafarroan gertatutako edo Nafarroan helbidea duten pertsonak pairatutako atentatu, eraso, tortura edo giza eskubideen beste edozein urraketaren kuantifikazio fidagarri eta egiazkoa.

b) Salaketen sinesgarritasunari buruzko egiaztapen bat, Istanbulleko Protokolo metodoari jarraituz.

c) Konklusioen eta gomendioen oroitidazkia.

7. artikulua. Bakerako eta bizikidetasunerako hezkuntza.

Bakearen eta giza eskubideen aldeko urteroko heziketa programan eta hezkuntzaren arloko departamentu eskudunak garatutako programen esparruan, kontuan hartuko dira foru lege honetan jasotako helburu eta printzipioak.

8. artikulua. Informazioa eta prebentzioa.

1. Nafarroako Gobernuak ziklo, ikastaro, mintegi edo biltzarrak jarriko ditu abian gizarteari, oro har, informazioa eman eta gogoeta egite aldera motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan gertatzen diren giza eskubideen bortxaketen larritasunari eta garrantziari buruz.

Lehenengo xedapen gehigarria.

1. Foru lege honek indarra hartu eta lehenengo urtean, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuarekin eta udalekin lankidetzan, omenaldi-ekitaldi bat egingen die motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan eskuin muturreko erakundeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko biktimei.

2. Omenaldi horretan erreparazio-adierazpen bat irakurriko da, zeinak biktimaren eta harekin hertsiki lotutako pertsonen duintasuna, ospea eta eskubideak berrezarriko dituen; halaber, barkamen-eske publiko bat egingen da, gertakarien aitopen bat jasoko duena.

Bigarren xedapen gehigarria.

1. Nafarroako Gobernuak behar diren xedapenak emanen ditu foru lege honetan xedatua garatu eta aplikatzeko eta, bereziki, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legean ezarritako kalte-ordain eta laguntzak haren helburuetara egokitzeko, behar diren modulazioak ezarrita.

2. Nafarroako Gobernuak bere eskumenen esparruan ezarriko du behar adina kreditu gaitzea foru lege honetan ezarritako laguntzei aurre egin ahal izateko.

Hirugarren xedapen gehigarria. Argitalpenak.

Nafarroako Gobernuak Errekonozimendu eta Erreparazioarako Batzordeak eginiko txostenak argitaratu eta herritarren artean zabalduko ditu.

Laugarren xedapen gehigarria.

1. Nafarroako Gobernuak biktimen Errekonozimendu eta Erreparazioarako Batzordearen funtzionamendua finantzatuko du, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan urtero berariazko kontusail bat ezarri.

2. Nafarroako Gobernuak espazio fisiko bat eta bitarteko materialak utziko ditu Errekonozimendu eta Erreparazioarako Batzordeak dokumentazio-, ikerketa- eta koordinazio-zereginak eta gainerako lanak egin ahal ditzan.

Xedapen iragankor bakarra.

1. Errekonozimendu eta Erreparazioarako Batzordea 2015eko abenduaren 31 baino lehenago eratuko da. Horretarako, Nafarroako Parlamentuak eta Nafarroako Gobernuak bidezko diren neurriak hartuko dituzte.

2. Batzordearen agintaldia amaitzean, bost urtekoa izanen baita, eta urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuarekin lankidetzan, omenaldi-ekitaldi bat egingen die motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan eskuin muturreko erakundeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko biktimei.

3. Omenaldi horretan ordainezko adierazpen bat irakurriko da, zeinak biktimaren eta harekin hertsiki lotutako pertsonen duintasuna, ospea eta eskubideak berrezarriko dituen; halaber, barkamen-eske publiko bat egingen da, gertakarien aitopen bat jasoko duena.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera Ofizialari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko martxoaren 26an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: “Foru Legea, Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera Ofizialari buruzkoa”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2015eko martxoaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera Ofizialari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.24 artikuluan ezarritakoaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateak eskumen osoa du Merkataritza eta Industria Ganberaren arloari dagokionez; betiere, legedi orokorraren oinarritzko printzipioekin bat eta Estatuak kanpo merkataritzaren arloan dituen eskumenak deuseztan ukatu gabe.

Eskumen horren gerizpean hasieran eman zen foru legedia mugatu zen Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren finantzaketa soilik arautzera.

Horrela, bada, arlo horretan eman zen lehenbiziko foru legeak, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren finantzaketari buruzko abenduaren 31ko 45/1983 Foru Legeak –gerago eman ziren 1987 eta 1989ko ekitaldietako Nafarroako aurrekontu orokorre buruzko foru legeen bidez aldarazi baitzen–; “ganbera-baliabide iraunkorra” deritzona ezarri zuen Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren alde; delako baliabide hori portzentaje bat da, sozietateen gaineko zergaren eta lizentzia fiskalaren kuotena eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren enpresa- eta lanbide-jardueren etekinena.

Arloan eman zen bigarren testua apirilaren 4ko 6/1995 Foru Legea izan zen; lege horrek Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialari dagokion ganbera-baliabidea arautu zuen eta xedetzat zera izan zuen, ganbera-baliabide iraun-

korren munta berriak ezartzea, Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganbera Ofizialei buruzko martxoaren 22ko 3/1993 Oinarritzko Legeak ezarri zituenei egokituz –lizentzia fiskalari zegokiona salbu–; kasu honetan helburua zen nafar zergadunen araubide amankomuneko zergadunekiko bereizkeria saihestea eta, aldi berean, aplikatzekoa zen araubide juridikoa araupetzea.

Hori guztia gorabehera, arestian aipatu den Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganbera Ofizialei buruzko martxoaren 22ko 3/1993 Oinarritzko Legeak osorik ezarri zuen zuzenbide publiko korporazio horiek bete behar duten araubide juridikoa eta, halaber, Estatuan arlo hori buruz dagoen legedia orokorraren oinarritzko printzipioak ezarri zituen.

Beraz, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren jarduna arautzen zuen esparru juridikoa arautegi bakarrean ezartzeko asmoz, betiere Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko eskumenen banaketarekiko errespetua abiaburu hartuta, azaroaren 19ko 17/1998 Foru Legea onetsi zen, zeinak, aldaketa batzuekin, urte hauetan zehar Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren izaera, osarea eta eginkizunak arautu dituen.

Aurrekoa gorabehera, Estatuak merkataritza ganberari buruzko oinarritzko lege berri bat onestek –apirilaren 1eko 4/2014 Oinarritzko Legea, Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialena–, zeinak bere helburuen artean baitu korporazio horiek birdefinitzea, gure herrialdearen bizitza ekonomikorako funtsezko erakunde gisa, eta haien eginkizuna indartzea, enpresa txiki eta ertainei nazioartratzearen eta lehiakortasuna areagotzearen esparruan laguntza emateari dagokionez, exijitzen du gaur egun dagoen foru araudia egokitzea, eta hain zuzen ere gaurkotze hori egiten da Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera Ofizialari –aurrerantzean, “Ganbera” deituari– buruzko foru lege honen bitartez.

Foru legeak bost titulu ditu.

I. titulua idazpurua “Xedapen orokorrak” da, eta horretan Ganbera itxuratzen duten funtsezko ardatzak ezartzen dira. Horrela, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean ganbera bakarra ezartzen du eredu, eskualdeko edo udal mailako ordezkariak sortzea gorabehera; testuan azaltzen den definizioaren arabera zuzenbide publiko-

ko korporazioa da, berariazko nortasun juridikoa eta bere helburuak betetzeko jardute-gaitasun osoak dituena. Halaber, administrazio publikoentzako kontsulta lankidetzarako organoa ere bada, eta helburu horietarako eginkizun publiko-administratibo batzuk ere esleitzen dizkio. Horiek betetzeko, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren tutoretzapean egonen da eta, hala denean, Estatuko Administrazioarenean, eta hori guztia helburutzat dituen interes pribatuak bazter utzi gabe. Aldi berean, aitortzen da jarduera pribatu batzuk egitea lehia askeko araubidean, betiere ganberak entitate zerbitzu-emaile gisa indartzearen esparruan.

II. tituluak Ganberaren osaera, antolakuntza eta funtzionamendua garatu dira, eta gobernu-organoen –hau da: Osoko Bilkura, Batzorde Exekutiboa eta ganberaburua– osaera, hautespena eta horien eskudantziak ezartzen ditu. Hori guztia, Estatuko oinarrizko legediak ezartzen duen funtzionamendu demokratikoaren printzipioaren arabera; halaber, Ganberako langileei buruzko beste alderdi batzuk lantzen ditu.

III. tituluak Ganberaren hauteskunde-araubidea arautzen du, eta erroldaren eta hauteskunde-prozesuari buruzko arauak ematen ditu.

IV. tituluak araubide ekonomiko eta aurrekontuei buruzkoa da; Ganberak bere jarduerak finantzatzeko izanen dituen bitarteko ekonomikoak adierazten ditu, haren aurrekontu eta kontuen kontrol sistemak eratzen ditu, eta esaten du horien onespina Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioari dagokiola.

Azkenik, V. tituluak, Ganberaren araubide juridikoa araupetzen du eta haren jarduna betetzea Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren tutoretzapean jartzen du eta, hala denean, Estatuko Administrazioarenean. Halaber, jasotzen du Kontuen Ganberak kanpotik kontrolatuko duela; Ganberak dituen eskumen publiko-administratibokak betearaziz eman dituen ebazpenen aurkako errekurtsoen araubidea ezartzen du; ezartzen du, halaber, Ganberak bere gobernu-organoei hartzen dituzten erabakiei buruzko informazioa eman behar diola Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari; eta bere jarduera eteteko aukera aurreikusten du eta, baldintza zehatz batzuk gertatuz gero, baita haiek desegitea ere.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.

1. Foru lege honen xedea da Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera Ofi-

ziazaren –aurrerantzean, “Ganbera” deituaren– araubidea ezartzea. Nafarroako Foru Komunitatean egonen den bakarra izanen da.

2. Ganberak ordezkariak ezar ditzake Nafarroako eskualde eta udalerrietan baldin eta bertako jarduera ekonomikoak horrela jokatzea aholkatzen badu.

2. artikulua. Izaera eta araubide juridikoa.

1. Ganbera da zuzenbide publikoko korporazio bat, nortasun juridikoa du eta bere helburuak betetzeko jardute-gaitasun osoa; administrazio publikoan aholkularitza eta lankidetzarako organo bezala taxutu da, baina dituen interes pribatuak kaltetu gabe. Ganberaren egitura eta funtzionamendua demokratikoak izanen dira.

2. Ganberak foru lege honetan eta legea garatzeko onesten den foru araudian ezarri dena izanen du arau. Hori, halere, ez da eragozpena izanen merkataritza, industria, zerbitzu eta nabigazioko ganbera ofizialei buruzko estatu-mailako legedia aplikatzeko. Ordezko izaeraz, aplikatzekoa izanen da administrazio publikoaren egitura eta funtzionamenduari buruzko legedia, Ganberaren izaera eta helburuekin bateragarria den heinean. Kontratazioak eta ondare-araubideak zuzenbide pribatuaren arauak beteko dituzte. Ganberaren Erregelamenduak prozedura bat ezarriko du publikizitatea, gardentasuna eta bazterkeriarik eza bermatzeko.

3. artikulua. Helburua.

Ganberaren helburua da merkataritzaren, industriaren eta zerbitzuen interes orokorrak ordezkatzeko, sustatzea eta defendatzea, baita adierazitako jardueretan aritzen diren enpresei zerbitzuak ematea ere. Era berean, foru lege honek esleitzen dizkion izaera publikoko eskumekak beteko ditu, baita administrazio publikoek antolamendu juridikoan aurreikusitako tresnen bidez esleitzen dizkietenak ere.

Ganberak, bere helburuak lortzeko jarduerak garatzean, ez die kalterik eginen sindikatu-askatasunari, enpresarien elkartzeko eskubideari, horrelako elkarteek enpresarien interesak ordezkatzeko hartzen duten ahalmenari, ez eta legez osatzen diren bestelako erakunde sozialen jarduketari ere.

4. artikulua. Izenaren erreserba.

Ezein pertsona fisiko edo juridikok edo erakundek ezin ezinen ditu erabili ondorengo termino hauek: Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera Ofiziala; Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera; edo Merkataritza Ganbera. Aurreko terminoak ezin izanen dira

erabili, ezta ere, aurreko terminoak pertsona edo entitate bat eratu deneko edo eginkizun nahiz eragiketarako garatzen ditueneko izendapenaren osagai gisa, baldin eta izendapen horrek antzeko terminoak badauzka, nahasmena eragiteko modukoak direnean. Nolanahi ere, hori ez da eragozpena izanen Ganberak bere borondatez eta bere helburuak betetze aldera eratu edo sustatutako izendapenentarako, ez eta atzerriko herrialdeek Espainian dituzten ganbera ofizialeentarako ere.

5. artikulua. Eginkizunak.

1. Ganberak izaera publiko-administratiboko honako eginkizunak izanen ditu:

a) Jatorri-ziurtagiriak eta nazioko zein nazioarteko merkataritza-zirkulazioarekin zerikusia duten gainerako ziurtagiriak jaulkitzea, indarreko araudian aurreikusitako kasuetan.

b) Nafarroako merkataritzako ohitura eta usadioak biltzea –eta, orobat, negozioen arloko eginera eta usadioak–, biltzea, eta haien existentziari buruzko ziurtagiriak ematea, haiek argitaratzea eta haien berri ematea.

c) Herri-administrazioen aholkularitza-organo izatea, administrazio horiek ezartzen edo eskatzen dituzten baldintzetan, merkataritzaren, industriaren eta zerbitzuen garapenerako.

d) Kanpo merkataritza sustatzeko, laguntzeko eta pizteko jarduerak egitea, bereziki esportazioa eta Nafarroako produktu eta zerbitzuen presentzia bultzatuz, eta horretarako, Ganberaren nazioarteratze-plana egin eta gauzatzea, Estatuko eta Nafarroako Foru Komunitateko legedian ezarri dena betez.

e) Administrazio eskudunek hala eskatzen dutenean, laguntza ematea Lanbide Heziketako ikasketen parte den lantoki-prestakuntza praktikoren antolaketan eta Lanbide Heziketa Dualeko ekintzetan eta prestakuntza-ekimenetan; batez ere, lantoki eta enpresak hautatzeko eta balioztatze orduan, ikasleen tutoreen izendapen eta prestakuntzan eta programazioa betetzearen gaineko kontrol- eta ebaluatze-eginkizunean, ezertan eragotzi gabe enpresaburu-erakundeei arlo horretan esleia dakizkiekeen eginkizunak.

f) Estatuko Administrazio Orokorrek hala eskatzen dionean, enpresei laguntzeko programa publikoak izapidetzea, kasu bakoitzean ezartzen diren baldintzetan, eta horiekin zerikusia duten zerbitzu publikoak kudeatzea, Estatuko Administrazioari dagokionean kudeatzea.

g) Enpresa guztien errolda publiko bat kudeatzea, foru lege honetako 11. artikuluan ezarritako

baldintzetan, bai eta bere mugapean enpresa horiek dituzten establezimendu, ordezkartza eta agentziena ere.

h) Enpresa-leihatila bakar gisa jardutea, administrazio publiko eskudunek hala eskatzen diotenean.

i) Administrazio publikoekin elkarlanean aritzea ekonomia- eta enpresa-jarduerak hasteko eta garatzeko prozeduren sinplifikazio administratibotan, baita araubide ekonomikoa eta enpresa-araubidea hobetzen ere.

j) Enpresa txikien eta ertainen lehiakortasuna areagotzera bideratutako jarduketak sustatzea, eta berrikuntza eta enpresentarako teknologia-transferentzia bultzatzea.

k) Enpresen ekonomia digitala ezartzeko prozesua bultzatzea eta arlo horretan administrazio publikoekin elkarlanean aritzea.

l) Nafarroako Gobernuak eskatzen duenean eta Europar Batasuneko funtsak kudeatzeko agintariekin bidezko zatitza jotzen dutenean, Ganberak enpresen lehiakortasuna hobetzera zuzendutako Europar Batasuneko funtsak kudeatzen parte hartu ahal izanen du.

2. Halaber, Ganberaren egitekoa izanen da ondoren aipatzen diren eginkizun publiko-administratiboak garatzea:

a) Nafarroako merkataritzari, industriari eta zerbitzuei buruzko estatistikak taxutzea, ebaluazio inkestak egitea, merkataritzako, industriako eta zerbitzuetako sektore ezberdinen azterlanak egitea, eta, kasua bada, haien zabalkundea egitea, Nafarroako Foru Komunitatean arlo horretan ezarritako antolamendu juridikoa betez.

b) Merkataritza, industria eta zerbitzuak sustatzeko beharrezkotzat edo komenigarritzat jotzen dituzten erreforma edo neurri guztiak proposatzea Nafarroako administrazio publikoei.

c) Elkarlanean aritzea merkataritzaren, industriaren eta zerbitzuen lehiakortasuna areagotzeko diseinatzen diren planak prestatzen, garatzen, gauzatzen eta horien jarraipena egiten.

d) Nafarroako administrazio publikoekin elkarlanean aritzea, enpresak sortzeko laguntza- eta aholkularitza-organo gisa.

e) Administrazio publikoekin elkarlanean aritzea eta haiei laguntzea, jarduketara materialak gauzatuz, lege-betekizunak betetzen direla egiaztatzea eta konprobatzeko, eta egiaztatze eza merkataritza-, industria- eta zerbitzu-establezimenduek bete egiten dutela indarrean

dagoen araudi orokorrean eta sektorialean ezarrita dagoena.

f) Azoka eta erakusketen antolakuntza sustatzea eta horietan laguntza ematea.

g) Irakaskuntza-zentro publikoek edo pribatuek, eta, halakorik bada, administrazio publiko eskudunek ezarritako prestakuntza-programetan elkarlanean aritzea.

h) Informatzea Nafarroako Foru Komunitateak emandako arau-proiektuetatik merkataritzaren, industriaren eta zerbitzuen interes orokorrei zuzenean eragiten dietenak, berariazko xede gisa tamaina handiko industria-, merkataritza- edo zerbitzu-jardueren ezarpena duten lurralde-antolamendurako tresnak eta merkataritza-establezimendu handiak ezartzeko espedienteak.

i) Enpresei laguntzeko programa publikoak izapidetzea kasu bakoitzerako ezarriko diren baldintzetan, eta horiekin zerikusia duten zerbitzu publikoen kudeaketa egitea, baldin eta kudeatze-lan hori Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari badagokio.

j) Administrazio eskudunarekin lankidetzan aritzea, merkataritza, industria, zerbitzuak eta nabigazioa sustatzearen egiten diren azterlanak, lanak eta ekintzak informatuz.

k) Turismoa sustatzen laguntzea administrazio publiko eskudunekiko kooperazioaren eta lankidetzaren esparrutik.

l) Administrazio eskudunekin lankidetzan aritzea, informazioa eta orientazioa emanez laneko esperientziaren bidez eskuratutako lanbide-gaitasunak aitortzeko helburua duen ebaluazio-, ziurtatze- eta egiaztatze-prozedurari dagokionez, bai eta prozedura horretako fase batzuk gauzatu ahal izateko instalazio zein zerbitzuak utziz.

m) Halaber, Ganberak beste edozein eginkizun bete ahalko du, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bere eskumenen esparruan beharrezko jotzen duena.

3. Ganberak beste jarduera batzuk ere egin ahal izanen ditu, izaera pribatukoak eta lehia askearen araubidean, baldin eta mesedegarriak badira merkataritza, industria eta zerbitzuak defendatzeko, babesteko edo sustatzeko, edota erabilgarriak badira adierazitako helburuak erdies- teko; bereziki, enpresei informazioa eta aholkularitza emateko zerbitzuak ezarri ahalko ditu. Era berean, eginkizun hauek ere bete ahal izanen ditu: enpresaren antolamenduari eta kudeaketari buruzko prestakuntza zabaldu eta ematea; enpresak ziurtatzeko eta homologatzeko zerbitzuak eskain-

tzea; eta frankiziako, azpiproduktuetako, azpikon- tratazioetako eta hondakinetako poltsak sortzea, kudeatzea eta administrazioa, baita kontratazio- lonjak ere. Guztia ere, indarreko araudi sektorialak jarduera horien gauzatzerako eskatzen dituen betekizunak betez.

Bitartekaritza-jarduerak ere egin ahal izanen ditu, baita nazioko nahiz nazioarteko merkataritza- arbitrajekoak ere, indarreko legedian zehaztutako- arekin bat.

4. Ganberak, bere eginkizunak behar bezala betetzeko, eta tutoretza duen administrazioaren baimena aurretiaz jasota betiere, era guztietako elkarte, fundazio eta sozietateak sustatu ahal izanen ditu, zibilak edo merkataritzakoak, bai eta horietan parte hartu ere; halaber, egoki diren lankidetzak-hitzarmenak egin ahal izanen ditu nazioko nahiz atzerriko merkataritza-ganberekin. Bereziki, bere helburuak hobeki garatzeko, auto- nomia erkidego mugakideetako eta Akitaniako merkataritza-ganberetik lankidetzak hitzarmenak sustatuko ditu. Tutoretza duen administrazioak zehaztuko du zein diren kasuko jarraipen-mekani- moak.

5. Aurreko paragrafoan aipaturiko baimenak ez du ezein kasutan esan nahi Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak inolako eran- tzukizun nagusirik edo subsidiariorik bereganatuko duenik, Ganberak bere jarduera pribatuen espa- rruan izandako jardunetik eratorritako eskubide eta betebeharrei dagokienez.

6. Bere eginkizunak behar bezala gauzatu ahal izateko, Ganberak eta administrazio publikoek hitzarmenak egin ahalko dituzte, Nafarroako Kontra- tu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 29. artikuluko 2. idatz-zatian eta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bategineko 4.1 artikuluko c) eta d) letretan jasotakoak, horretarako behar diren baldintzak betetzen direnean; eta kontratuak egin ahal izanen dituzte, zeinetan administrazio publi- koak kontratazio publikoaren arloko legedi indar- dunean ezarritakoari egokitu beharko zaizkion. Antolamendu juridiko indardunean baimendutako gainerako tresnez ere baliatu ahalko dira. Eginki- zun publiko-administratiboak betetzean adminis- trazio publikoekin behar bezalako koordinazioa dagoela bermatuko da, horretarako egoki diren lankidetzak-tresnak sinatuz eta arloan eskudun diren administrazioek kasua bada prestatzen dituzten jarduketak-planen bitartez. Halaber, Gan- berak hitzarmenak edo bestelako lankidetzak- tresnak izenpetu ahalko ditu, bermatze aldera bere

jarduketak enpresa-erakundeek aurrera eraman-dakoekin egoki koordinatzen direla.

7. Eginkizun publiko-administratiboak garrantzean, Ganberak bere inpartzialtasuna eta gardentasuna bermatuko ditu.

8. Jarduera guztien garapenean, Ganberak desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasun baldintzak errespetatuko ditu, aplikatzekoa den araudiak ezartzen duen moduan.

Emandako informazioa, edozein formatutan, eta orokorrean hartzailearentzako arreta-zerbitzuak eta instalazioak nolakoak eta desgaitasuna duten pertsonak horietara iristeko modukoak izan beharko dira. Horretarako, kontuan izan behar dira desgaitasun mota bakoitzeko beharrak, eskura jarriko dira baliabideak eta laguntzak, eta beharrezkoak diren zentzuzko egokitzapenak egiten dira.

6. artikulua. Eginkizunak eskuordetzea.

1. Nafarroako Parlamentuari jakitera eman ondoren, Nafarroako Gobernuak bere eskumeneko eginkizunen betetzea edo jardueren kudeatzea eskuordetu ahalko dizkio Ganberari.

2. Eskuordetze horrek, inguruabar teknikoak, ekonomikoak, gizartekoak, juridikoak edo lurraldearen arlokoak badaudela egiaztatzen duen administrazio-espeditente egokia izapidetu ondoren, Ganberaren berariazko onespina izan beharko du, aurretiazkoa.

3. Eskuordetzeak honako hauek beharko ditu zedarritu: xede dituen eskumenak edo eginkizunak, eskuordetu diren ahalmen zehatzak, horiek baliatzeko baldintza zehatzak eta eskuordetzea egiten duen organoak beretzat gorde dituen kontrol neurriak.

4. Ganberak eskuordetzearen bidez ematen dituen ebazpenek berariaz agertuko dute inguruabar hori, eta Nafarroako Gobernuak emandako ebazpentzat joko dira.

5. Nafarroako Gobernuak edozein unetan ezeztatzeko eskuordetze hori.

6. Eskuordetzea, baita horren ezeztapena ere, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

7. artikulua. Kudeatzeko agindua.

1. Nafarroako Parlamentuari jakitera eman ondoren, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bere eskumeneko jarduera materialak, teknikoak edo zerbitzuen arlokoak agin diezazkioke Ganberari, baldin eta eraginkortasun-arrazoiekin edo bitarteko tekniko egokirik ez edukitzeak horrela egitea aholkatzen badute.

2. Kudeaketa agintzeak ez du esan nahi lagatzen denik eskumenaren edo horren erabileraren funtsezko elementuen titulartasuna; Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren erantzukizuna da agindu horrek xedetzat duen jarduera material zehatzari oinarri emateko edo jarduera hori txertatzen deneko egintza edo ebazpen juridiko guztiak ematea.

3. Kudeaketa agintzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Ganberaren arteko hitzarmen baten bidez gauzatuko da, zeina Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko baita. Honako hauek agertuko dira hitzarmen horretan: agindu den edo diren jarduerak, aginduaren indaraldia, agindu den kudeaketa horren izaera eta norainokoa eta, hala denean, bi alderdiek jarri dituzten bitarteko ekonomikoak.

8. artikulua. Nazioarteratzea eta lehiakortasuna sustatzeko planak.

1. Ganberak parte hartuko du Ganberaren nazioarteratze-planaren eta Ganberaren lehiakortasun planaren taxuketan eta betetzean, arloari buruzko Estatuko legediak ezarritako moduan.

2. Parte-hartze hori aurretik koordinatu beharko da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren plangintza eta proiektuekin.

II. TITULUA

Lurralde-esparrua, osaera, antolaketa eta funtzionamendua

I. KAPITULUA

Lurralde-esparrua eta osaera

9. artikulua. Lurralde-esparrua.

Ganberak Nafarroako Foru Komunitatea izanen du lurralde-esparru.

10. artikulua. Ganberari atxikitzea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean merkataritza, industria, zerbitzu edo nabigazioko jardueretan aritzen diren pertsona fisiko edo juridiko nazional edo atzerritarrak Ganberako kide izanen dira, lurralde horretan establezimenduak, ordezkariak edo agentziak badituzte. Nolanahi ere, horrek ez die inolako betebeharrak ekonomikorik sortuko, ez eta ezein motatako administraziozamarik ere. Pertsona horien atxikipena ofizioz egiten da.

2. Pertsona fisiko edo juridiko bat merkataritza, industria, zerbitzu edo nabigazioko jarduera batean aritzen dela joko da jarduera horren ondorioz ekonomia-jardueren gaineko zergari edo Nafarroa-

ko Foru Komunitatean hura ordeztzen duen zergari atxikita gelditzen denean.

3. Oro har, artikulua honen 1. paragrafoan bildutako jardueratzat joko dira merkataritza-zirkulazioarekin zerikusia duten guztiak, lege honek edo sektoreko legedi berariazkoak espresuki kanpoan uzten dituenak izan ezik.

Beti ere, kanpoan egonen dira pertsona fisikoek eskaintzen dituzten aseguru nahiz berraseguru pribatuetako bitartekaritza-zerbitzuak eta izaera primarioko nekazaritza-, abeltzaintza- eta arrantza-jarduerak; halaber, lanbide liberalei dagozkienak.

11. artikulua. Errolda publikoa.

Ganberak errolda publiko bat egiten du, Ganberari atxikita dauden eta Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean industriako eta zerbitzuetako jarduerak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiek, naziokoek nahiz atzerritarrek, parte hartzen duten enpresena. Errolda hori egiteko, eskumena duen tributu administrazioaren lankidetzat izanen du, baita beharrezkoa den informazioa ematen duten beste administrazio batzuen ere. Kasu guztietan bermatuko du erabileraren konfidentziaztasuna eta informazio horren erabilera eskusiboa.

Enpresen errolda publikoa egiteko, tributu-administrazioek Ganberari enpresen ekonomia-jardueren gaineko zergari eta erroldari buruzko beharrezko datuak emanen dizkiote. Osoko Bilkurak erabakitako enplegatuek soilik izanen dute tributu-administrazioak emandako informazio horretarako sarbidea.

Informazio hori baliatuko da enpresen errolda publikoa egiteko, foru lege honek Ganberari esleitzen dizkion eginkizun publiko-administratiboak betetzeko eta foru lege honetako 33. artikuluan aipatzen den hauteskunde-errolda egiteko.

Adierazitako datuei dagokienez, langile horiek izanen dute Zerga Administrazioako funtzionarioek duten isilpekotasun-betebehar berbera. Betebehar hori ez betetzea haien diziplina-araubideko arau-hauste oso larria izanen da, betiere.

II. KAPITULUA

Antolaketa

12. artikulua. Gobernu-organok.

1. Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera Ofizialaren gobernu-organok Osoko Bilkura, Batzorde Exekutiboa eta ganberaburua dira.

2. Horiez gain, idazkari nagusi bat, zuzendaritza-zako langileak eta eginkizunak behar bezala betetzeko beharrezkoak diren lan-kontratadun langileak izanen dira Ganberan.

3. Enplegu edo kargu publikoa izateko desgaituta daudenak ezin izanen dira gobernu-organotako kide izan, ez eta idazkari nagusi izendatuak izan ere, eta ezin izanen dute artikulua honetan adierazitako zuzendaritza-posturik bete.

1. atala

Osoko Bilkura

13. artikulua. Osaera eta hautapena.

1. Osoko Bilkura Ganberaren gobernu- eta ordezkari-organoren goren da. 46 kide izanen ditu, eta lau urteko agintaldia izanen dute.

2. Osoko Bilkura osatzen duten kideak honako talde hauetakoak izanen dira:

a) Osoko Bilkurako 40 kide Ganberako kide diren enpresa guztien ordezkariak izanen dira; horretarako, sektore ekonomikoen ordezkagarritasuna hartuko da kontuan, zeina zehaztuko baita Ganberaren barne-araubideari buruzko erregelamenduan ezarritako irizpideen arabera, kontuan hartuta BPGri egiten zaion ekarpena, enpresa kopurua eta enplegua. Kide horiek Ganberaren lurralde-esparruan merkataritza, industria, zerbitzu eta nabigazioko jardura batean aritzen diren pertsona fisiko eta juridiko guztien artean hautatuko dira, sufragio aske, berdinean, zuzen eta isilpekoaren bidez.

b) Ganberari borondatezko ekarpenik handiena egiten dioten enpresen 6 ordezkari, barne-araubideari buruzko erregelamenduak zehaztutako moduan hautatuak.

3. Artikulu honetako 2. idatz-zatiko letretan aipatutako Osoko Bilkurako kideek ganberaburua hautatuko dute.

4. Idazkari nagusia eta zuzendari kudeatzailea, halakorik bada, Osoko Bilkuraren bileretara joanen dira, eta hitza izanen dute baina botorik ez.

14. artikulua. Eskudantziak.

Ganberaren goreneko organoa den aldetik, Osoko Bilkurari ondoko eskudantzia hauek dagozkio:

a) Ganberaburua hautatzea eta kargutik kentzea.

b) Ganberaren gainerako gobernu-organok kontrolatzea eta fiskalizatzea.

c) Barne-araubideari buruzko erregelamendua eta horri eginiko aldaketak behin-behinekoz onestea, eta araudi hori Nafarroako Gobernuari igortzea, behin betiko onets dezan.

d) Administrazio publikoekin eta gainerako edozein entitaterekin lankidetzan eta elkarkidetzan aritzeko hitzarmenak onestea.

e) Ganberak beste elkarte, fundazio eta sozietate zibil edo merkataritzakoak sortzeari edo horietan parte hartzeari buruzko erabakiak hartzea; baita horiek desegiteko edo parte-hartze hori bukatzeko erabakiak ere.

f) Ganberaren plantilla organikoa onestea.

g) Ganberaren aurrekontuari eta urteko kontuei hasierako onespena ematea eta horiek aurkeztea tutoretza duen administrazioari, horrek behin betiko onets ditzan.

h) Batzorde Exekutiboan sartuko diren Osoko Bilkurako kideak izendatzea eta kargutik kentzea.

i) Idazkari nagusiaren lanpostua betetzeko deialdiaren oinarriei hasierako onespena ematea.

j) Idazkari nagusia izendatzea eta kargutik kentzea.

k) Ganberaren zerbitzuko goi zuzendaritzako langileak izendatzea eta kargutik kentzea.

l) Ondarea besterenganatzea, bere eskumenerako arloan gastuak erabakitzea eta kreditu eragiketarik hitzartzea.

m) Ganberaren urteko jarduketa- eta kudeaketa-plan estrategikoak onestea.

n) Kasua bada, aholkuak emateko eta txostenak egiteko batzordeak eratzea.

o) Ganberak beste erakunde batzuetan izanen dituen ordezkariak izendatzea.

p) Berariaz legeek eratzikiko dizkien gainerako eskudantzia guztiak.

15. artikulua. Eskudantziak eskuordetzea.

1. Ganberaren Osoko Bilkurak Batzorde Exekutiboari eskuordetu diezaioke bere eskudantzien baliatzea, salbu eta 14. artikuluko a), b), c), f), g), h), i), j), l) eta m) letretan adierazi direnena.

2. Osoko Bilkurak eskuordetzea egiteko harturiko erabakiak zera egin beharko du, eskuordetu diren eskumenak edo eginkizunak zedarritu, erakunde eskuordetua seinatu, eskuordetu diren ahalmenak eta horiek baliatzeko baldintza berariazkoak zehaztu eta, kasua bada, eskuordetzearen epea eta Osoko Bilkurak beretzat gorde dituen kontrol neurriak adierazi.

3. Ganberaburuak edo Batzorde Exekutiboak eskuordetzearen bidez hartuko dituzten erabakietan berariaz adieraziko da inguruabar hori, eta Osoko Bilkurak hartutakotzat joko dira erabakiak.

4. Eskuordetzeari buruzko erabakia, bai eta horren ezeztapenari buruzkoa ere, hartu eta biharramunean sartuko dira indarrean, nahitaez Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzearen kalterik gabe.

5. Osoko Bilkurak eskuordetzea edozein unetan deusez dezake.

6. Aurreko ataletan ezarri denarekin bat, Osoko Bilkurak finantza kudeaketaren arloan eginen dituen eskuordetzak eman egiten ahal dira, nola eta Aurrekontuaren betearazpenerako oinarrien bidez; eskuordetza berez desagertuko da hurrengo Aurrekontua onesten den unean.

7. Adierazi dena gorabehera, Osoko Bilkurak eginen dituen eskuordetzek ezin dute haren agintaldia gainditu, eta berez indargabetuko dira Ganberaren Osoko Bilkura berritzen den unean.

2. atala

Batzorde exekutiboa

16. artikulua. Osaera.

Batzorde exekutiboa Ganberaren kudeaketa-, administrazio- eta proposamen-organo iraunkorra da. Honakoek osatuko dute: batzordeburuak, 2 batzordeburuordek, diruzainak eta 8 batzordekidek. Osoko Bilkurako kideen artean hautatuko dira, Ganberaren barne-araubidearen erregelamendua ezarritako moduan. Administrazio babesleak ordezkari bat izendatu ahal izanen du, eta ordezkari horri nahitaez egin beharko zaio aipatutako gobernu-organoaren bileretarako deia. Halaber, idazkari nagusia eta zuzendari kudeatzailea, halakorik bada, Osoko Bilkuraren bileretara joanen dira, eta hitza izanen dute baina botorik ez.

17. artikulua. Eskudantziak.

Batzorde Exekutiboa Ganberaren kudeaketa-, administrazio- eta proposamen-organo iraunkorra da, eta ondoko eskudantzia hauek dagozkio:

a) Ganberaren helburuekin zerikusia duten txostenak eta azterlanak egitea edo egiteko agintzea.

b) Ganberaren jarduera eta kudeaketa plan urterokoak proposatzea Osoko Bilkurari, onetsita daudenak gauzatzea eta haien zuzendaritzaz arduratzea, eta haiek betetzearen berri Osoko Bilkurari ematea.

c) Aurrekontuen proiektuak lantzea eta Osoko Bilkurari aurkeztea, hark onets ditzan.

d) Urteko kontuak egitea eta Osoko Bilkurari aurkeztea, hark onets ditzan.

e) Langileen kontratazioak agintzea, goi zuzendaritzakoena izan ezik.

f) Hautesle-errola onestea eta horri aurkeztu zaizkion inpugnazioak ebaztea.

g) Administrazio publikoei igorri behar zaizkien txostenak onestea.

h) Edozein jurisdikziotan ekintzak burutzeko eta errekurtsioak jartzeko erabakiak hartzea.

i) Premiazko kasuak daudenean, Osoko Bilkuraren eskumeneko diren gaiak buruzko erabakiak hartzea, eta horien berri Osoko Bilkurari ematea, berrets ditzan.

j) Ganberako zerbitzuen ohiko jarduna begiratzeari.

k) Osoko Bilkurak eskuordetuko edo aginduko dizkion eskumenak baliatzea.

l) Beste organo bati espresuki esleitu ez zaizkion Ganberaren eskumenak baliatzea.

3. atala Ganberaburua

18. artikulua. Hautatzea eta kargu-uztea.

1. Ganberaburua Ganberaren ordezkaria izanen da, eta bertako kide anitzeko organo guztien burutza izanen du; berak izanen du, halaber, Ganberaren erabakiak betearaztearen ardura. Osoko Bilkurak hautatuko du ganberaburua, barne-araubideari buruzko erregelamenduak zehazten duen moduan.

Hautatua izateko, hautagaiak Osoko Bilkurako kideen gehiengo osoak emandako aldeko botoa beharko du eskuratu. Baldin eta ez bada gehiengo hori eskuratu, bigarren botazio bat egingen da, eta botoen gehiengo eskuratuko duen kidea izanen da hautatua.

2. Ganberaburuak kargua utziko du honako arrazoiak direla eta:

a) Osoko Bilkura berritzeko hauteskundeak egitea.

b) Osoko Bilkuraren gehiengo osoak zentsura mozioa onestea.

Mozio hori gutxienez Osoko Bilkurako kideen bostenak proposatu beharko du, eta horretarako egingen den bileran eztabaidatuko da. Mozioak

nahitaez jaso beharko du ganberaburu izateko hautagai baten proposamena.

c) Dimisioa.

d) Kargurako ezgaikuntza dakarren epai irmoa.

e) Heriotza.

Baldin eta b) letratik e) letrara aurreikusitako kasuetariko bat gertatzen bada, ganberaburuaren ordezkari ganberaburuordeak jarriko dira, hurrenkera araber, harik eta ganberaburu berria hautatu arte, barne-araubideari buruzko erregelamenduan ezarritakoari jarraituz.

19. artikulua. Eskudantziak.

1. Ganberaren ordezkari eta Ganberaren organo kolegiatu guztien buruzagitza duen gobernu-organoa da ganberaburua. Osoko Bilkuraren eta Batzorde Exekutiboaren erabakiak betetzeaz arduratuko da. Eskudantzia hauek dagozkie:

a) Osoko Bilkuraren, Batzorde Exekutiboaren eta Ganberaren gainerako edozein organoren bilerarako deiak egitea, bileren buru izatea eta bileren zuzendari jardutea, eta gertatzen ahal diren berdinketak bere botoaren bidez ebaztea.

b) Ganberaren organo kolegiatuen erabakiak betearaztea.

c) Gastuak erabakitzea eta ordainketa guztiak agintzea, horien berri Osoko Bilkurari emanez.

d) Legeak eta barne-araubideari buruzko erregelamenduak eratzikitzen dizkieten gainerako eginkizunak, bai eta Ganberaren Osoko Bilkurak eskuordetuko dizkionak ere.

20. artikulua. Eskudantziak eskuordetzea.

1. Ganberaburuak ganberaburuordeei eskuordetzen ahal die bere eskudantzien baliatzea, salbu eta Osoko Bilkurako eta Batzorde Exekutiboko buru izateari dagokiona, eta hori foru lege honen 18.2 eta 21.2. artikuluetan ezarri diren ordezen kasuen kalterik gabe.

Formari dagokionez, eskuordetze horien araubidea 15. artikuluko 2, 3 eta 4. ataletan ezarri denari egokitu zaio, eta epeari dagokionez, eskuordetze indarririk gabe geratuko da ganberaburuak erabakitzen duenean edo haren agintaldia amaitzen denean.

2. Halaber, ganberaburuak edozein unetan eskuordetza bereziak xeda ditzake Osoko Bilkuraren edozein kiderentzat, gai jakinen zuzendaritza eta kudeaketarako; betiere, Barne Araubideari buruzko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat.

4. atala Ganberaburuordeak

21. artikulua. Izendatzea, kargu-uztea eta eginkizunak.

1. Ganberaren Osoko Bilkurak hautatuko ditu ganberaburuordeak, bere kideen artetik, baita kargutik kendu ere, barne-araubideari buruzko erregelamenduan ezarri denarekin bat.

2. Ganberaburuordeek, ordenaren arabera, ganberaburua ordeztuko dute, baldin eta ez bada-go edo gaixorik badago.

3. Ganberaburuordeek, halaber, ganberaburuak eskuordetuko dizkien eginkizunak burutuko dituzte, kasu honetan foru legearen 20.1. artikuluan ezarri dena betez.

5. atala Diruzaina

22. artikulua. Izendapena eta eginkizunak.

Ganberaren Osoko Bilkurak hautatuko du, bere kideen artetik, diruzaina. Diruzaina kargutik kentzeko erabakia ere Osoko Bilkurari dagokio. Barne-araubideari buruzko erregelamenduan ezarritakoarekin bat egingen dira izendapena eta kargutik kentzea. Diruzainari dagozkio entitatearen honako zerbitzuen goi zuzendaritza: kudeaketa ekonomiko-finantzarioa, aurrekontukoa eta kontabilitatekoa. Halaber, erakundearen funtsak eta baloreak zaintzea dagokio. Horiez gain, barne-araubideari buruzko erregelamenduan eratziki zaizkion gainerako eskudantziak baliatuko ditu.

23. artikulua. Idazkari nagusia

1. Ganberak idazkari nagusi bat izanen du; idazkari nagusi horrek lizentziaduna edo goi-mailako tituluduna izan beharko du. Lanpostu hori lan-kontratazioko erregimenaren mende egonen da.

2. Osoko Bilkurak izendatuko eta kargugabetuko du idazkari nagusia, kideen erdiak gehi batek hartutako erabaki arrazoituaren bidez. Izendapena egin baino lehen, lanpostuaren deialdi publikoa egin beharko da.

3. Barne-araubideari buruzko erregelamendua zehaztuko ditu idazkari nagusia ordeztzeko modua eta kasuak, aldi baterako kanpoaldia, postu hutsa, gaixotasuna edo aldi baterako beste edozein ezintasun gertatuz gero.

4. Idazkari nagusiak ondoko eginkizun hauek izanen ditu, besteak beste: Osoko Bilkuraren eta Batzorde Exekutiboaren bileretara joatea (hitza izanen du, baina botorik ez), eta gobernu-organok hartutako akordioen legezkotasuna zaintzea.

24. artikulua. Zuzendari kudeatzailea.

1. Ganberak zuzendari kudeatzaile bat izendatu ahal izanen du, Osoko Bilkuraren erabakiz esleitzen zaizkion eginkizun exekutiboak eta zuzendaritzaokoak betetzeko. Zuzendari kudeatzaile horrek lizentziaduna edo goi-mailako tituluduna izan beharko du. Lanpostu hori lan-kontratazioko erregimenaren mende egonen da.

2. Osoko Bilkurak izendatuko eta kargugabetuko du zuzendari kudeatzailea, ganberaburuaren proposamenari jarraiki, eta kideen erdiak gehi batek hartutako erabaki arrazoituaren bidez, zuzendari kudeatzaileak bere eginkizunak ondo beteko dituela bermatzeko.

3. Zuzendari kudeatzaileak ez dagoen kasuetan, idazkari nagusiak beteko ditu hari dagozkion eginkizunak.

25. artikulua. Langileak.

1. Ganberaren zerbitzura ari diren langile guztiak indarrean dagoen lan-araudiaren mende egonen dira.

2. Barne-araubideari buruzko erregelamendua ezarriko du langileak kontratatzeko prozedura; lanpostuak betetzean, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioak bermatuko dira betiere.

III. KAPITULUA Funtzionamendua

26. artikulua. Bilera motak.

Ganberaren organo kolegiatuek bilera arruntak izanen dituzte, aurretiaz finkatutako aldizkakotasunez, eta aparteko bilerak, zeinak urteak izaten ahal baitira.

27. artikulua. Bilera arruntak.

1. Ganberaren Osoko Bilkurak urtean sei bilkura arrunt egingen ditu, gutxienez ere.

2. Batzorde exekutiboak urtean hamar bilkura arrunt egingen ditu, gutxienez ere.

3. Barne-araubideari buruzko erregelamenduan bilera arruntan aldizkakotasuna ezar daiteke, betiere aurreko idatz-zatietan ezarri diren gutxiengoak betez.

28. artikulua. Bilkura bereziak.

1. Ganberaburuak, bere kabuz, Osoko Bilkuraren edo Batzorde Exekutiboaren aparteko bilerarako deia egin dezake, baldin eta inguruabarren ondorioz komenigarria bada.

2. Gutxienez kideen legezko kopuruaren bostena hala eskatzen badiu, ganberaburuak Osoko

Bilkuraren edo Batzorde Exekutiboaren aparteko bilerarako deia eginen du, gehienez ere hilabeteko epean, Osoko Bilkuraren kasuan, eta hamabost egun naturaleko epean, Batzorde Exekutiboarenean.

Eskabide horretan adieraziko da eztabaidatuko diren gaien zerrenda.

3. Aparteko bilerak urgenteak izanen dira ganberaburuak eginiko deiaren eta bileraren artean berrogeita zortzi ordu baino gutxiago badago. Bilerari baliogarria izan dadin nahitaezkoa izanen da kideei jakinaraztea eta botazioaren bidez horren presazkotasuna berrestea.

29. artikulua. Deialdia.

Ganberaren organo kolegiatuen bileretarako deia ganberaburuak eginen du. Deialdian, aztergaien zerrenda eta aztertuko diren gaiak buruzko beharrezko informazioa agertuko da, eta gutxienez berrogeita zortzi ordu aurretik eginen da. Epe hori ez da aplikatuko aparteko bileren eta bilera urgenteen deialdietan.

30. artikulua. Bertaratze-quoruma. Erabakiak hartzeko quoruma.

1. Ganberaren Osoko Bilkuraren bilerak baliozkoak izan daitezen, lehen deialdian gutxienez kide guztien erdiak eta bat gehiagok egon beharko dute, eta erabakiak gehiengo soilaren bidez hartuko dira.

2. Aurreko atalean seinalaturiko kide kopurua ez bada lortu deialdian, Osoko Bilkura bigarren deialdian era daiteke, bilkura egiteko aurreikusitako ordua baino ordu erdi geroago; eta modu baliadunetan eratuta geratuko da edozein dela ere bertaraten diren kideen kopurua, baldin eta ganberaburuak, edo legez hura ordeztzen duena, eta idazkaria baldin badaude. Kasu horretan, hartutako erabakiak baliozkoak izan daitezen, bertaratuakoen bi herenek aldeko botoa eman beharko du.

3. Ganberako gainerako organo kolegiatuen eraketa baliogarria izan dadin, bilerak eta eztabaidak egitearen eta erabakiak hartzearen ondoretarako, nahitaezkoa izanen da lehenengo deialdian organo hori osatzen duten kideen legezko kopuruaren erdia eta bat gehiago bertaratzea. Ordu erdi beranduago eginen den bigarren deialdian, organoa era baliozkoan eratuko da, bertaratu diren kopurua gorabehera, baldin eta bertaratu diren artean ganberaburuak, edo legez hura ordeztzen duena, eta idazkaria badaude. Aipatu organoen erabakiak botoen gehiengo soilaren bidez hartuko dira, eta gehiengo soilak eskuratu dela ulertuko da aldeko botoak aurkako botoak baino gehiago badira.

4. Ganberaburuak edo legez hura ordeztzen duenak ebatziko ditu Ganberako organo kolegiatuen baitako boto-berdinketak.

31. artikulua. Aktak.

Idazkariak prestatuko ditu Ganberaren organo kolegiatuek egiten dituzten bileren aktak; akta horietan, eztabaidatu diren gaiak eta hartu diren erabakiak jasoko dira, Barne Araubideari buruzko Erregelamenduak ezartzen dituen baldintza eta formalitateak beterik.

IV. KAPITULUA

Barne-araubideari buruzko erregelamendua eta jardunbide egokien kodea

32. artikulua. Onespina eta funtzionamendua.

1. Ganberak bere barne-araubideari buruzko erregelamendua izanen du; Osoko Bilkuraren erabakiz proposatuko da, eta Nafarroako Gobernuak onetsi beharko du. Nafarroako Gobernuak haren aldaketa ere susta dezake. Erregelamendu hori, behin Nafarroako Gobernuak onetsita, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

2. Barne-araubideari buruzko erregelamenduak erabat beteko du foru lege honetan ezarritakoa, eta Ganberaren eskumeneko edozein gai arautu ahalko du. Erregelamenduan ondoko alderdi hauek zehaztuko dira, besteak beste: Osoko Bilkuraren egitura, eginkizunak eta kopurua; batzorde exekutiboko kideak hautatzeko modua eta gobernu-organoen funtzionamendu-arauak.

3. Halaber, Ganberak jardunbide egokien kodea taxutu beharko du, bere eginkizun publiko-administratiboak betetzean inpartzialtasuna eta gardentasuna bermatzeko.

III TITULUA

Hauteskunde-araubidea

33. artikulua. Hautesle-errola.

Ganberaren hautesle-errola oinarria izanen da foru lege honetako 13. artikuluko 2. idatz-zatiko a) letran araututako Osoko Bilkurako kideak hautatzeko, eta foru legeko 11. artikuluan araututako errola publiko osoa hartuko du. Hautesle-errola enpresa-taldean arabera sailkatuta egonen da. Talde horiek Ganberaren barne-araubideko erregelamenduak ezarriko ditu.

Hautesle-errola urtero eratu eta berrikusiko da, eta lan hori Batzorde Exekutiboak eginen du, erreferentziazat urte bakoitzeko urtarrilaren 1a harturik; eragiketa horietan gertatu diren altak eta bajak azalduko dira, eta agiri horren kopia eguneratua Nafarroako Gobernuari igorriko zaio.

34. artikulua. Hauteskunde-prozesua.

1. Nafarroako Gobernuak, legedi orokorrean ezarri denari jarraituz hauteskunde-prozesua irekiztat jo ondoren, Ganberaren hauteskundeetarako deialdia eginen du.

2. Hauteskundeen objektibotasuna eta gardenetasuna bermatzeko, hauteskunde-batzarrak osatuko dira; Ganberaren barne-araubideari buruzko erregelamenduak zehaztuko ditu batzar horien osaera eta eginkizunak, independentziaz eta eraginkortasunez jardunen dutela bermatzeko.

3. Hautesle-eroldari buruz egindako erreklamazioak direla-eta Ganbarak hartutako erabakien kontra eta hauteskunde-batzarren erabakien kontra errekurtoa aurkeztu ahal izanen zaio Nafarroako Gobernuari.

35. artikulua. Sufragio aktiborako eskubidea.

Foru lege honen 13. artikuluko 2. idatz-zatiko a) letran jasotako kideak izendatzeko hauteskunde-eskubide aktiboa izanen dute Ganberak onetsitako azken eroldan izena emanda dauden pertsona natural edo juridikoek, baina ezin izanen dute desgaituta egon hauteskunde legedi orokorraren arabera desgaitasuna dakarten arrazoietakoa baten ondorioz, eta barne-araubideari buruzko erregelamenduan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

Aipatutako 13. artikuluko 2. idatz-zatiko b) eta c) letretan jasotako Osoko Bilkurako kideei dagokienez, tutoretza duen administrazioak emandako arauak eta/eta Ganberaren barne-araubideari buruzko erregelamenduari begiratuko zaie.

36. artikulua. Sufragio pasiborako eskubidea.

Ganberako gobernu-organoetako kide izateko hautagaiak bete egin beharko dituzte barne-araubideari buruzko erregelamenduak foru lege honetako 13. artikuluan ezarritako enpresa-taldeetako bakoitzarentzat ezarritako baldintzak. Nolanahi ere, izangaiek gutxienez ere bi urte izan beharko dute emanak Nafarroan enpresa-jardueran, eta zerga-betebeharren eta Gizarte-segurantzarekiko betebeharren ordainketan egunean egon beharko dute.

IV. TITULUA**Araubide ekonomikoa eta aurrekontuena****37. artikulua.** Finantzaketa.

1. Ganberak honako diru-sarrerak izanen ditu:

a) Ematen dituen zerbitzuengatik eskuratzen dituen ohiko eta aparteko diru-sarrerak eta, oroko-

rrean, bere jarduerak egiteagatik eskuratzen dituenak.

b) Bere ondarearen ekoizkinak, errentak eta gehikuntzak.

c) Enpresek edo merkataritza-erakundeek borondatez egindako ekarpenak.

d) Jaso litzakeen legatu eta dohaintzak.

e) Egiten dituen kreditu-eragiketetatik datozen diru-sarrerak.

f) Legez eslehi dakiokkeen beste edozein diru-sarrera, hitzarmen baten bidez edo ordenamendu juridikoarekin bat datorren beste edozein prozeduraren bidez.

2. Ondare-ondasunak xedatzeko, tutoretza duen administrazioaren baimena beharko du, ondasun higiezin kasuan. Bestelako ondasunei dagokienez, aipatutako administrazioak zehaztuko du zein kasutan izanen den beharrezko bere baimena, zenbateko ekonomikoaren arabera.

38. artikulua. Aurrekontuak eta gardentasuna.

1. Ganberak bere gastu eta diru-sarreraren aurrekontu arruntak nahiz bereziak taxutu eta tutoretza duen administrazioari aurkeztuko dizkio, onetsi ditzan; administrazio horrek Ganberaren urteko kontuak eta likidazioak fiskalizatuko ditu, eta behar diren jarraibideak ezarri ahalko ditu aurrekontuak eta eredu-likidazioak egiteko.

Nolanahi ere, urteko kontuekin eta aurrekontuen likidazioarekin batera, kontuen auditoria-txosten bat aurkeztu beharko da.

Urteko kontuak, auditoria-txostenarekin batera, eta gobernu korporatiboari buruzko urteko txostena, Nafarroako Merkataritza Erregistroan aurkeztuko dira eta Ganberak publiko eginen ditu.

2. Ganberaren ondasun eta eskubideak kudeatzen dituzten pertsonak kalte-ordainak ordaindu beharko dituzte dolo, kulpa edo arduragabekeria larriagatik egindako ekintzen edo ez-egiteen ondorioz eta indarreko araudia urratuz sortutako kalte eta galerengatik; horrez gain, zigor-erantzukizuna edo egoki den bestelako edozein erantzukizun ere egotzi ahal izanen zaie.

3. Ganberak publiko eginen ditu jasotzen dituzten diru-laguntzak, baita beren eginkizunak gartzeko jasotzen duten bestelako edozein baliabide publiko ere. Publiko eginen ditu, halaber, goi-kargudunek eta kasuko arduradun gorenak urtean jasotako ordainsariak, baita edozer arrazoiengatik kargua utzi dutenean jasotako kalte-ordainak ere, halakorik gertatu bada.

4. Foru lege honen 5. artikuluan zehaztutako baldintzetan gauza ditzaketen jarduera publiko eta pribatuak behar bezala bereizteko, Ganberak bere jarduera publiko eta pribatuen kontabilitate bereizia eginen du, ezertan eragotzi gabe urteko kontuen batasuna.

V. TITULUA

Araubide juridikoa

39. artikulua. Tutoretza.

1. Ganbera, bere jardueran diharduela, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren tutoretzapean dago. Tutoretza hori Nafarroako Gobernuak hautatutako departamentuak beteko du.

Tutoretza-lan horren barruan dago foru lege honetan biltzen diren administrazio-ahalak baliatzea: onespren, fiskalizazio, errekurso-ebazte, etete eta desegitekoak.

Foru lege honek bestelako eperik jartzen ez badu, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak hilabeteko epea izanen du, Ganberak eskabide formala egin duenetik zenbatuta, Ganberari bidezko baimena emateko; delako baimen hori ukatu egin dela ulertuko da baldin eta epe horren barruan horri buruzko berariazko adierazpenik egin ez bada.

2. Nolanahi ere, Estatuko Administrazio Orokorrek tutoretza-lana eginen du Ganberak egindako interes orokorreko jardueren gainean, kanpoko merkataritzari dagokionez, ezertan kendu gabe Nafarroako Foru Komunitateari gai horretan dagozkion eskumenak.

Aurreko lerrokan aipatutako baldintzetan, Estatuko Administrazio Orokorrek egindako tutoretza-lan horrek barnean hartuko du administrazio-ahal hauek baliatzea Ganberak kanpo merkataritzaren arloan eginiko interes orokorreko jardueren gainean: onetsi, kontrolatu, koordinatu, errekursoak ebatzi eta aipaturiko jarduerak etetea.

40. artikulua. Kanpo kontrola.

Kontuen Ganberari dagokio, bere araudiaren arabera, Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera Ofizialak jasotzen dituen funts publikoak fiskalizatzea; hori, halere, ez da eragozpena izanen Kontuen Epaitegiari dagozkion kontrol ahalmen orokorretarako.

41. artikulua. Errekurtoak.

1. Ganberak bere dituen eginkizun publiko-administratiboak betez emanen dituen ebazpenen aurka, bai eta haren hauteskunde araubidea ukitzen dutenen aurka ere, errekurtsioa jar daiteke

administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, Nafarroako Gobernuari administrazio-errekurtsioa aurkeztu ondoren.

2. Ganberak beste esparru batzuetan egindako jarduerak eta, bereziki, merkataritzako izaera, izaera zibila eta laneko izaera dutenak, eskumena duten epaitegi eta auzitegietan ebatziko dira.

42. artikulua. Informazioa eman beharra.

1. Ganberak tutoretza duen administrazioari igorri beharko dio barne-araubideari buruzko erregelamendua, bai eta bere gobernu-organoei hartzen dituzten erabakien kopia edo laburpena ere.

2. Informazioa emateko betebeharraren gainean erantzukizuna ganberaburuak eta, hala denean, idazkari nagusiak izanen dute.

3. Administrazio babesleak artikulua honetan aipatu den informazioa zabaltzea edo argitzea eska dezake.

43. artikulua. Etetea eta desegitea.

1. Nafarroako Gobernuak eten egin ahal izanen du Ganberako gobernu-organoen jarduera, prozeduraren izapidetzean haiei entzuteko eskubidea betiere bermaturik, indarrean dagoen ordenamendu juridikoa urratzearen kasuan, baldin eta, urraren horien larritasun edo maiztasunarengatik, neurri hori hartzea komeni bada, bai eta gobernu-organoren normaltasunez funtzionatzeko ezintasuna dutenean ere.

2. Etetearen erabakiak etenaldiaren iraupena ezarriko du; aldi hori gehienez hiru hilabetekoa izanen da; halaber, aldi horretan Ganberaren interesak kudeatuko dituen organoa zehaztuko du erabakiak.

3. Etenaldia bukatu eta etetearen arrazoiek lehengo horretan badiraute, Ganberaren gobernu-organoei desegiteari eta hauteskundeetarako deia egiteari ekinen zaio, hilabeteko epean.

Hauteskundeak egiterik ez badago eta Ganberaren gobernu-organoei eratu ezin badira, Nafarroako Gobernuak iraungitzeko erabakia hartu ahal izanen du; kasu horretan, bere ondarea tutoretza duen administrazioari atxikiko zaio, aurrez 2. idatz-zatian aipatzen den kudeaketa-organoei likidazioa egin ondoren.

4. Nafarroako Gobernuak, iraungitzeko erabakia hartzen bada, beharrezko diren neurriak hartuko ditu, foru lege honen 10. artikuluan zehaztutako pertsona fisiko eta juridiko atxikiei bermatzeko ezen Ganberari dagozkion zerbitzuak jasoko dituztela.

Lehen xedapen gehigarria. Barne-araubideari buruzko erregelamendua.

Ganberak bere barne-araubideko erregelamendua egingen du. Behin Ganberaren Osoko Bilkurak hura onetsita, Nafarroako Gobernuari igorriko zaio, foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bi hilabeteko epean, behin betiko onepena eman dakion igorpen hori egin eta hilabeteko epean.

Bigarren xedapen gehigarria. Langileak.

Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialei buruzko apirilaren 1eko 4/2014 Oinarrizko Legeak indarra hartu zuenean Ganberaren zerbitzuan zeuden langileei, bereizkuntzarik egin gabe, aplikatuko zaie Ganberaren zerbitzuan dauden gainerako langileei aplikatzekoa zaien lan-legedi indarduna.

Hirugarren xedapen gehigarria. Protokolo-araubidea.

Ganberaburuaren ordezkaritza- eta protokolo-araubidea erregelamendu bidez ezarriko da.

Lehen xedapen iragankorra. Gobernu-organoak.

1. Ganberaburuak eta Ganberaren Osoko Bilkurako nahiz Batzorde Exekutiboko kideek beren eginkizunetan jarraituko dute gobernu-organo berriak eratu arte, kasuko hauteskunde-prozesuaren ondoren, Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialei buruzko apirilaren 1eko 4/2014 Oinarrizko Legean eta foru lege honetan ezarritakoari jarraituz.

2. Era berean, foru lege honen arabera egindako hauteskunde-prozesuaren ondoren gobernu-organo berriak eratu arte, gobernu-organoek une horretan legez zehaztutako asistentzia-quorumekin eta bozketetarako beharrezko diren gehiengoekin jarraituko dute funtzionatzen, delako organoa eratzeari eta kasu bakoitzeko erabakiak hartzeari dagokionez.

Bigarren xedapen iragankorra. Kide batzuen hautapena.

Ganberaren barne-araubideari buruzko erregelamenduan xedatuaren arabera Nafarroako enpresen borondatezko ekarpena ezartzen ez den bitartean, Osoko Bilkurako kideek, foru lege honen 13. artikuluko 2. idatz-zatiko c) letran ezarritakoek, Ganberari 2010eko ekitaldian ordaindu zioten 100 enpresa handienek hautatuko dituzte, hain zuzen ere enpresa horien kideen artean.

Hirugarren xedapen iragankorra. Preskribatu gabeko ganbera-baliabidearen sortzapena.

Ganbera-baliabide iraunkorra ezabatzeari kalterik egin gabe, aipatutako baliabideko kuota preskribatugabeek exijigarri izaten jarraituko dute, kuota horiek indargabetzen den arauan oinarrituta sortu direnean.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetzea.

1. Indargabetuta gelditzen dira foru lege honetan ezarritakoaren aurkakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak; bereziki, Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera Ofizialari buruzko azaroaren 19ko 17/1998 Foru Legea.

2. Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera Ofizialaren barne-araubidearen erregelamendua onetsi zuen maiatzaren 7ko 111/2001 Foru Dekretuak indarrean jarraituko du foru lege honen aurkako ez den guztian, harik eta haren ordezkio erregelamendu-araua ematen den arte.

Azken xedapenetan lehena. Garapena.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita 16/2006 Foru Legea, abenduaren 14koa, jokoari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko martxoaren 26an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita 16/2006 Foru Legea, abenduaren 14koa, jokoari buruzkoa".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2015eko martxoaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita 16/2006 Foru Legea, abenduaren 14koa, jokoari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

2015eko urtarrilaren 13an, Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak erabaki bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen "ludopatia modu eraginkorrean sar dezan Drogamenpekotasunaren aurkako Foru Planean, substantziarik gabeko adikzioen artean, eta bereziki gazteen artean gora egiten ari den arazo horri buruzko informazio- eta kontzientziazio-kanpaina berriazkoak egin ditzan".

Halaber, erabakian esaten da beharrezkoa dela "koordinazio-tresna formal eta egonkorra" ezartzea Aralar-Nafarroako Ludopaten Elkarte eta "Osasun Departamentuaren, Hezkuntza Departamentuaren eta Gizarte Gaietako Departamentuaren artean, gazteen ludopatiaren prebentziorako berriazko plan bat egiteko, non honakoak bilduko baitira: familientzako, osasun-langileentzako eta irakasleentzako prestakuntza, eta gai hori ikaste-teeetan lantzeko hezkuntza materialak sortzea".

Eta, oso bereziki, Parlamentuaren testuak Nafarroako Gobernua premiatzen du "har ditzakeen araugintza-neurriak azter ditzan, kirol apustuen establezimenduetan kontrol-neurriak ezartze aldera, adingabeek haietara sartzerik izan ez dezaten".

Jokoari buruzko 16/2006 Foru Legea, abenduaren 14koa, sektorean online modalitateak agertu aurretik onetsi zen. Onespren-garai hori dela-eta, teknikaren egoeraren ondorioz, online jokoari buruz gaur egun ezagunak diren aukeren eta horiek kolektiborik babesgabeenengan izan dezaket balizko inpaktuaren berririk ez zegoen;

horrenbestez, testuan ez zen halako aukerarik aurreikusten, eta hutsuneren bat nabari zaio, batez ere sarbidearen eta jokoan parte hartzearen debekuei dagokiena. Hutsune hori bete beharra dago.

Geroago, Jokoa arautzeko 13/2011 Legeak, maiatzaren 27koak, modua eman zuen jokoaren merkatua online kanalari irekitzeko. Nahiz eta jokoaren merkatua gehienbat presentziala izan, 2013an jokaturiko guztizko kopuruak (28.112 milioi euro, Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioak argitaraturiko azken joko-oroitidazkiak, 2013ko ekitaldikoak, dioenez) agerian uzten du azken bi ekitaldietan izandako gorakada (2012an %4,46, eta 2013an %6,32). Azken ekitaldietan merkatu presentzialak erakutsi duen beharrezko joera dela-eta, gorakada horren zergatia online jokoaren merkatuaren sorrera izan da, zeinak, aipaturiko garaian, guztizkoaren %20,21 egiten baitzuen.

Hori guztia aintzat harturik proposatzen da, Jokoari buruzko 16/2006 Legea, abenduaren 14koa, aldatzea, jokorako sarbide-modalitate guztietan premiazko murriztapen guztiak ezartzeko eta, halatan, joko arduratsua izan dadin sustatzeko; hain zuzen, joko presentzialarekin egin izan den bezala.

1. artikulua. Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legeari 2. bis artikulua berria gehitzen zaio. Testu hau izanen du:

"2. bis artikulua. Joko arduratsua.

1 Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak joko arduratsuko politikak sustatuko ditu, halakotzat ulerturik harako haiek zeinetan joko arduratsua sozialeko ikuspegi integral batetik, fenomeno konplexutzat hartuko baita, izan ditzakeen eragin negatiboetarako prebentzio, sentsibilizazio, esku-hartze, kontrol eta onbideratze ekintzak uztartzera behartzen duena.

Prebentzio-ekintzen helburua izanen da bermatzea jokoan diharduen pertsonaren jarduna haren borondate eta burujabetzarentzat kalterik gabe gauzatzen dela, osasungarritasun-parametroetan, eta saihestuz zori-jokoetan itxuragabeki parte hartzea nahiz halako parte-hartzetik erator litezkeen ondorio kaltegarriak.

2 Joko-antolatzaileek, beren jardunean ari-tzean, arreta berezia emanen diete arrisku-taldee,

eta joko-jarrera neurritsu eta arduratsuak sustatuko dituzte, egoki diren informazio-emateen bitartez, zeinetan zehatz adieraziko baita adingabeek edo zaurgarriak diren bestelako kolektiboek behetu dutela parte hartzea.”

2. artikulua. Abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legearen 32. artikulua aldatzen da. Honako testu hau izanen du:

“32. artikulua. Joko jardunari eta joko aretoetarako sarbideari dagozkien debekuak.

1. Honakoek debeku dute jokoan parte hartzea, jokoan aritzea eta berriazko joko establezimendu bezala baimenduta dauden areto eta tokietan sartzeara:

a) adingabeek.

b) epailearen erabakiaz horrela ezarrita duten pertsonak, hala nola desgaiak, zarrastelek edo lehiaketa-prozeduran errudun deklaratuak izan direnak, birgaitzen ez diren bitartean.

c) horditasun, droga-intoxikazio edo erotasun sintomak agertzen dituen edozein pertsonak, edo armak eta halakotzat erabil daitezkeen objektuak daramatzala sartu nahi duenak.

2. Jokoak antolatu edo ustiatzeko baimenduta dagoen enpresa baten titularrek eta akziodun edo partaideek, bai eta horren zuzendaritzako langileek, enplegatuek, bai eta ezkontideek, lehen graduko aurreko nahiz ondorengo ahaideek ezin izanen dute jokalaria gisa parte hartu hark antolatu edo ustiatzeko jokoetan.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zilegi izanen du joko-jardunerako eta joko hori egiten den areto edo tokietara sartzeko debekua honakoei ezartzea:

a) Foru lege honetako arauak hausteagatik zehapena jaso dutenei.

b) Beren borondatez hori eskatzen dutenei, harik eta, orobat borondatez, debeku hori kentzea eskatzen duten arte. Sartzeko debekutik debekuentzea arte gutxieneko denbora-epe bat igaro beharko da, zeina erregelamendu bidez zehaztuko baita.

4. Kasinoak, bingoak edo apustu-dendak dauzkaten joko enpresek, beren erantzukizunpean, sarrera-kontrol bat izanen dute, non bertaraten diren pertsona edo online jokalaria guztien identitatea jasoko den, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko legediak ezarritako moduan eta epeetan. Kontrol horretan, sarrera debekatuko zaie adingabeei eta mozkortuta edo drogatuta dauden pertsonari, bai eta Nafarroako Gobernuak, agintari

judizialen batek edo beste administrazio eskudunen batek jokorako sarbidea debekatu dieten pertsonari ere. Joko aretoek, beren erantzukizunpean, areto horietara sartzeko kontrol bat jarriko dute, non sarrera debekatuko zaien adingabeei eta mozkortuta edo drogatuta dauden pertsonari.

5. Joko enpresek, artikulua honetan aipatutakoak ez bezalako baldintza eta debekuak ezarri nahi izanez gero joko aretoetara sartzeari dagokionez, horretarako baimena eskatu beharko diote Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren organo eskudunari.”

3. artikulua. Abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legearen 39. artikulua d) letra aldatzen da. Honako testu hau izanen du:

“d) Joko aretoetan sartzeko edo jokoan aritzen uztea nori eta, foru lege honetan eta bera gartzeko arauetan ezarritakoari jarraituz, horretarako debekua duten pertsonari.”

4. artikulua. Abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legeko 41. artikulua 3. zenbaki bat gehitzen zaio:

“3. Joko eta apustuak antolatzen edo ustiatzen dituzten enpresek har litzaketan erantzukizunak ezertan galarazi gabe, dena delakoagatik halako jardueretarako sarbidea edo parte-hartzea debekatua duten adingabeek eta pertsonak erantzukizuna hartuko dute foru lege honetako 40. artikuluan arin gisa tipifikaturiko arau-hauste bat egiteagatik.”

Xedapen iragankor bakarra. Araubide iragankorra.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatzen ez duen bitartean, indarrean jarraituko du jokorako sarbideari eta parte-hartzeari buruzko egungo araudiak.

Azken xedapenetan lehenengoa. Araudi fiskala egokitzea.

Nafarroako Gobernuak, araudi fiskala Hitzarmen Ekonomikoaren azken aldaketara egokitzeko helburuz, foru lege proiektu bat aurkeztuko dio Nafarroako Parlamentuari urtebeteko epean; Nafarroaren eta Estatuaren arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa hori 2015eko martxoaren 26ko bilkuran onetsi zuen Nafarroako Parlamentuak.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, zeinaren bidez indargabetzen baita martxoaren 14ko 3/2014 Foru Legea, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko martxoaren 26an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: “Foru Legea, zeinaren bidez indargabetzen baita martxoaren 14ko 3/2014 Foru Legea, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legea aldatzen duena.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2015eko martxoaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, zeinaren bidez indargabetzen baita martxoaren 14ko 3/2014 Foru Legea, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen 75.1 artikulua, hasierako testuan, ezartzen zuen 0tik 2 urtera bitarteko adingabeen adopzio nazionalean lehentasuna izanen zutela seme-alabarik gabeko familia-unitateek, seme-alabak dituzten familia-unitateen aldean. Profil horretan sartzen dira, praktikan, premia berezirik ez duten bi urtetik beheko adingabeak eta gurasoen baimena dutenak adopziorako. Seme-alabak dituzten familia-unitateek beren burua eskaini zezaketen, premia bereziak dituzten edozein adinetako neska-mutikoak adoptatzeko –gaiotasun baten ondoriozko premia bereziak dituztenak, ezgaitasuna dutenak, neba-arrebak, jatorria beste autonomia erkidego batean dutenak nahiz adopziorako guraso-baimenik ez dutenak–.

Lehentasun hori egokia ez zelakoan, Nafarroako Parlamentuak abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatu zuen, lehentasun hori kentze aldera, martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legea onetsiz.

Lege horretako xedapen iragankor bakarrak honako hau ezarri zuen, hitzez hitz: “Foru lege hau indarrean sartzerakoan adoptatze-zerrendetan inskribatuta zeuden pertsonak kontserbatuko dute momentu horretan zeukaten lehentasun-hurrenkeria.”

Interpretazio ezberdinak egin izan dira xedapen iragankor horri buruz, eta Nafarroako Familia-rako eta Berdintasunerako Institutuak horren aplikazio ezegoki bat egin zuen hasiera batean. Gizarte Politiketako Departamentuaren idazkaritza orokor teknikoak txosten bat egin zuen 2013ko urriaren 14an, jarraibideak emanaz horren aplikazioa zela-eta; txosten horren arabera, errespetatu egin behar zen aldaketa baino lehenagoko lehentasun-hurrenkeria, eta eskatzaile berriei ez zitzaizkien aplikatu behar seme-alabak dituzten familiendako lehentasuna, halako moduan non eskatzaile berriak eskabidearen dataren arabera sailkatuko baitira.

Xedapen iragankor bakar hori dela-eta egin beharreko interpretazioa argi eta garbi egon arren, orain indargabetu nahi den martxoaren 14ko 3/2014 Foru Legeak berrinterpretatu egiten du, hori aldatu beharra justifikatzeko. Berrinterpretazio horrek muga bat ezartzen du lehentasuna mantentzeko dagokionez, 13/2013 Foru Legea onetsi baino lehen egokitasuna aitorturik zeukaten familietara mugatzen baitu. Ez da hori, ordea, xedapen iragankor bakarrak adierazten duena, eta xedatutakoaz bestelako interpretazio arbitrario bat baizik ez da, Adopzioen Erregistroan 0-2 urtekoen profilerako egin diren ordena-aldaketek erakusten dutenez.

Praktikan, interpretazio arbitrario horren ondorioz, 0-2 urtekoen profilean egokitzen jo izan dira Adopzioen Erregistroko lehendabiziko hamar familia-unitateak –alde batera utzita egokitasunik zeukaten ala ez–, eta beste familia-unitate asko ez dira onartu, nahiz eta egokitasuna egiaz bazeukaten. Egokitasuna ez zegoen soilik lotuta lehendabiziko hamar familia-unitateak baloratuta edukitzearen irizpide teknikora, ezpada hurrengo ere bai: adopziorako beren burua eskaintzen duten pertsonen edo familien eskaintza, nazioarteko eta nazioarteko adopziorako balorazio paraleloa, balorazio lantalde teknikoaren lan-zama, eta balorazioa egi-

teko epe bat ezartzen duen prozedura administratiboa eta administrazio-isiltasunaren ondorioak.

Foru lege honen sorburu izandako lege-ekimena abian jarri zuten parlamentu-taldeon ustez, 3/2014 Foru Legea onesteak ez zuen esan nahi Adopzioen Erregistroko hurrenkeran aldaketarik egitea ezarritako epean zehar, eta haren aplikazioan egiaztatu dugu nahi ez ziren aldaketak egin direla, ondorio konponezinak dakartzatenak 0-2 urteko haurren nazioko adopziorako prest azaldu diren familia askorentzat.

Bestalde, 3/2014 Foru Legearen xedapen bakarraren xedea da ekiditea xedapen iragankor berriaren interpretazio batek berekin ekartzea seme-alabarik gabeko familiei mugarik gabe mantentzeko lehentasuna 0-2 urteko adingabeen adopzioan. Interpretazio hori gezurrezkoa da; izan ere, martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legearen xedapen iragankorrek ezartzen duen araubideak ez dakar berarekin lehentasuna mugarik gabe mantentzea, zeren foru legea indarrean sartu zenean Adopzioen Erregistroan zeukaten leku berean sendotzen baititu seme-alabak dituzten familia-unitateak.

3/2014 Foru Legeak bi urteko epea ezartzen du lehentasuna mantentzeko dagokionez, seme-alabarik gabeko familien lehentasunaren mantentze mugagabea ekiditeko. Horrek berekin ekarri du interpretazio oso ezberdinak egitea eta legegileak aurreikusi gabeko ondorioak gertatzea, halako

moldez non bere aplikazioan 2015eko martxoaren 28ra bitarteko epea ezarri baita, 2013ko martxoan Adopzioen Erregistroan zeuden lehendabiziko hamar familientzat soilik.

3/2014 Foru Legeari dagokionez egiten ari den aplikazio praktikoaren ondorioak –nahi eta aurreikusi ez zirenak– eta ondore konponezinak ekidite aldera eta Adopzioen Erregistroan 0-2 urtekoen profilerako ordena ezartze aldera, martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legearen indarraldia –bere hasierako testuarekin– berrezartzea proposatzen da.

Artikulu bakarra. Osorik indargabetzen da martxoaren 14ko 3/2014 Foru Legea, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legea aldatzen duena.

Xedapen gehigarri bakarra. Ukitutako familia-unitateentzako informazioa.

Foru lege hau indarrean sartzen denetik hiru hilabeteko epean, 0-2 urteko adingabeen Adopzioen Erregistroa osatzen duten familia-unitateei adieraziko zaie erregistro horretan zein tokitan dauden.

Azken xedapen bakarra. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Familiari Laguntzeko Foru Lege proposamena.

OSOKO BILKURAK ERRETIRATUA

Legebiltzarrak, 2015eko martxoaren 26an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko Familiari Laguntzeko Foru Lege proposamena erretiratu izana.

Proposamen hori 2015eko otsailaren 20ko 27. zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2015eko martxoaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

D saila:
HITZARMENAK

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko hitzarmen ekonomikoaren aldaketa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko martxoaren 26an egindako Osoko Bilkuran, onetsi zuen Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko hitzarmen ekonomikoaren aldaketa.

Iruñean, 2015eko martxoaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erretira dezan honako Foru Dekretu hau aldatzen duen foru dekretuaren proiektua: martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretua, zeinaren bidez arautu baitzen Nafarroako Foru Komunitatean haur hezkuntzako lehen zikloa eta ezarri baitziren hori irakasten duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko martxoaren 26an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erretira dezan honako Foru Dekretu hau aldatzen duen foru dekretuaren proiektua: martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretua, zeinaren bidez arautu baitzen Nafarroako Foru Komunitatean haur hezkuntzako lehen zikloa eta ezarri baitziren hori irakasten duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erretira dezan honako Foru Dekretu hau aldatzen duen foru dekretuaren proiektua: martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretua, zeinaren bidez arautu baitzen Nafarroako Foru Komunitatean haur hezkuntzako lehen zikloa eta ezarri baitziren hori irakasten duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak. Halaber, premiatzen du indarrean utz ditzan aipatutako 28/2007 Foru Dekretua eta bertako betekizun eta baldintzak"

Iruñean, 2015eko martxoaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aste Txuria mantentzea berma dezan, kasuko aurrekontu-zuzkiduraren bidez.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko martxoaren 26an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aste Txuria mantentzea berma dezan, kasuko aurrekontu-zuzkiduraren bidez."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Aste Txuriaren iraupena berma dezan, kasuko aurrekontu-zuzkiduraren bidez"

Iruñean, 2015eko martxoaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da landa eremuko eskolen izaera bereziaren aitortza gauzatu dezan, horiek emandako zerbitzuaren kalitatea eta ikasleentzako arreta egokia bermatzeko behar diren giza baliabideez eta baliabide materialez hornituz.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko martxoaren 26an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da landa eremuko eskolen izaera bereziaren aitortza gauzatu dezan, horiek emandako zerbitzuaren kalitatea eta ikasleentzako arreta egokia bermatzeko behar diren giza baliabideez eta baliabide materialez hornituz”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du landa eremuko eskolen izaera bereziaren aitortza gauzatu dezan, horiek emandako zerbitzuaren kalitatea eta ikasleentzako arreta egokia bermatzeko behar diren giza baliabideez eta baliabide materialez hornituz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du landa eremuko eskolekin lankidetzan gutxieneko kopuru bat ezar dezan, halako moduan non kopuru hori gaindituz gero eskola bat ireki beharko baita, baldin eta herriak hala eskatzen badu.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hezkuntza-eskaintzan hizkuntz aniztasuna babestu eta bultzatu dezan, halako moduan non aniztasun hori ez baita izanen landa eskolak ixteko edo ez irekitzeko faktore bat.

4. Nafarroako Parlamentuak Gobernua premiatzen du aipatu beharizanak aseko dituen eskola mapa taxutu dezan”

Iruñean, 2015eko martxoaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren ekimenak has ditzan, AP-68 autobideko 14. lotunea –Lodosakoa– bi norabidekoa izan dadin.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko martxoaren 26an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren ekimenak has ditzan, AP-68 autobideko 14. lotunea –Lodosakoa– bi norabidekoa izan dadin”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren ekimen eta ekintza guztien buru jar dadin eta haien aurrera eraman ditzan ukitutako erakunde eta eragile ekonomiko eta sozialekin, AP-68 autobideko 14. lotunea –Lodosakoa– eralda dadin eta irteera bat eraiki dadin Logroñorako norabidean, halako moduan non bi norabidekoa izanen baita”

Iruñean, 2015eko martxoaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

